



**SALBADOR ZAPIRAIN**  
**« A t a ñ o »**

**ZIGORPEAN**

# ZIGORPEAN

AUSPOA LIBURUTEGIA  
(181)

Auspoa Liburutegia  
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa  
Tel. (943) 67 12 82

SALBADOR ZAPIRAIN  
«ATAÑO»

# ZIGORPEAN

Auspoa Liburutegia  
1985

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Gipuzkoa)  
Fotokonposatzalle: Lente composición – Estella  
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)  
ISBN 84-7158-126-4  
Depósito Legal: NA. 682-1985

## ARKIBIDEA

|                                |     |
|--------------------------------|-----|
| San Kristobal'ra .....         | 9   |
| Guardiazibillen batzarra ..... | 25  |
| Zigor-mendia .....             | 41  |
| Inpernua .....                 | 49  |
| Eguberriak .....               | 59  |
| Gure bizitza .....             | 81  |
| Zikiña .....                   | 93  |
| Gosea .....                    | 101 |
| Artza, gure artasuna .....     | 111 |
| Igesaren moldaketak .....      | 121 |
| Igesa .....                    | 129 |
| Erasoa .....                   | 143 |
| Igesaren biaramona .....       | 147 |
| Aldaketak .....                | 159 |
| Orduña .....                   | 175 |

## SAN KRISTOBAL'ERA

Aldaketak ez baziran oraindik asi ere, bidean zetozen.

Espetxean baituta, sekuestratuta alegia, eduki zituzten aberats batzuk, diru-mordoska baten bidez beren askatasuna iritxi zutenak, nik espetxean erdi negarrez ezagutu nitun oietakoak, len negar egin zuten leku xaarrari bixita egitera etorriak itun arratsalde batean.

Bertako zaindariakin batera zebiltzaken. Donosti'ko agintarien artean bazeuden ere, garai bateko gutarrak, billauak orain. Erru gabeko txiki beartsuak espetxean lagata erten ziranak. Berak bultzata aurrera joan uan gazte jendea etsaiaren naiera utzita berak askatu itun.

Aiek nabaitu nizkin, lanean ari nintzan batean, azpi artan ara-onera paseatu ta puro ederrak erreaz, denak elkar-izketan:

— Espetxe au beteegia zegok, eta emen alperrikako atxillotu asko zeudek epaiketa

egin ta beren zigorrak izenpetuak. Oien lekua ez dek au. Oiek lenbailen atera egin bear dizkiagu. Emendik eraman, oientzat jasoak dau-den espetxe aundi oietakoren batera, beren zigorra an jasan dezaten.

— Deabruak aleenak! —nioken nereko—. Larri asko ikusi ziñuztedan, begi aundi gorrituakin, orain zuekin dabiltzan otso oien mende, ardi gaixoak bezela, gu arlote auei laguntza eske: Olako ekartzeko, alako eramateko. Diru zikin ortatik zerbait dezutelako, orain lengo espetxe-lagunak zapaldu nai al dituzute? Orain ez al gaituk gu lengoak? Orain ez al dezute gure alde ezer egin bear? Aundizki oiek beti olakoak izan dituk: txikiaren bizkar bizi ta arraixkuan erabat bakarrik beraren suertera utzi, berak ondo ta seguruan jarri diranean. Ez diguzute lezio txarra ematen. Uste dit erriak ikasi ta epaituko zaituztela. Baña au, an ta emen betiko lana dek: zakur aundien artean zaunka ugari elkarri, txikien aurrean; baña txikiak zapaltzeko elkarrekin ondo konpondu. Gazteak gaituk eta odol berokoak. Billaukeri au ez diagu aztuko.

Nik an entzun nuenez, beñepin, lanean asiak itun, eta espetxera ortara etorriak.

Gu ez geundenken ondo: kartzelan, eun metroren barruan, andik ertetzeko eskubiderik gabe, arma-pean etxe ta kanpo, ezeren askatasunik gabe, personak ez bagiña bezela.

Neretzat, askatasuna kendu exkero, gizona ez dek gizona. Jainkoak askatasunerako egin baizuen.



Orduan, Ondarreta'n ortara bizi zana, etzegoken ondo, naiz pusillatzeko beldurrik ez eduki. Oraindik gutxiago, arratseroko banaketak bero-beroan zeudela. Guk segurutik ikusten bagenitun ere, biotza naigabetzen zitzaiguen, erru gabeko ainbeste euskaldun negar-zotinka iltzera eramaten ikusita.

Baña guretzat, ordukoz beñepin, une larriak igaro itun. Anaien eriotzak ere erdi aztuak, arratseroko errosarioan aientzat eta iltzen zituzten guzientzat oroitzen bagiñan ere. Etxeko ta lagunuen bixitak ere noiznai bagenizkin.

Etxe barruan, jakiña, kutixi asko utzita, baña aske bizi giñun barrunbe artan guzian. Ez gela-txuloan giltzatuta. Txakurra bere nagusiaren mende bezela, ori bai, gure borondatea ustua ta aienera makurtua.

Goiz ta arratsalde lanean. Gu bezela oitua zegon batentzat, atsegiña uan ori. Bestela, eguna aspergarria egingo zitzaiguen. An ta emen, neke aundi gabe, baña beti zerbait egiñez, eguna asko moxten uan.

Lau edo bost lagun, denok euskaldun garbiak, lanak bukatu ondoren, azpian ortarako aukeratua geneukan gela txiki batean biltzen giñanean, lagunarte arek pozten gaitziken, an gertatzen ari ziranak oroitzean tristurak menderatzen bagiñun ere.

Arratsean, eraman-ala berriak zetozen. Ala bizi bearra ta ogei ta amar urteren zama bizkarrean. Au ez genin sinisten. Bestela, geron buruak galduko genizkin. Jainko berri

auék ori jarri baziguten ere, zerbait gertatuko zala, edo eriotzak lenago eramango giñula.

Nik ez nin Bizkai'ko apaiz xaar arek bezela pentsatzen. Irurogei ta amar urte zeuzkaken bizkarrean, eta auk ogei urteko zigorra eman zioteken. Zigorra izenpetu ondoren, ezer esan bearrik bazeukan galdetu ziotenean:

— Baietz, baietz. Eskerrik beroenak ematen dizkizutet, beste ogei urteko bizia ematen didazutelako —esan ta exeri omen uan.

Nik etzeukat arek bezelako sinismenik, edo eriotzak eramango gaitzik mundutik. Ori ere, gure egoeran, aringarria izango uke. Askatasunera joango giñuke, ta etxekoei ere zama kendu: guri lagundu bearra arindu. Gu ere, otsoen artetik aske geratuko giñuke. Gure zapaltzalleak etziteken oraindik gudik irabazi, ta zein Jaungoikok esan zieken irabaziko zutela? Alare, or zegoken gure arraixkurik txarrena: atzeraka asten baziran, etziteken espetxean zegon bat bakarrik bizirik utziko. Ezurretaraño sartua zeukateken gure aurkako griña gaixtoa. Ori ase gabe, ez itun atzeratuko.

Auek denak buruan nebilzkiken nik egun aietan, eta naigabetu egin nioken aien elkarizketak.

Eramaten bagaituzte ere, nora? Jainkoak zekin lekuraño, noski. Inguru auetan, Burgos'era arte ez uan olako espetxerik.

Ori ere, nere amets bat besterik ez uan. Ainbeste gaztelu zar bazeudeken mendigallurretan jasoak, España'n zear, kristaurik

ezin bizi liteken basamortuetan egiñak. Aietakoren batera ez ote giñuzten eramango? Zigorzen ari ziran guzientzat aña leku billatzen ez uan errexia izango.

Apal ondoan, sei-zazpi lagun gure gelatxoan bildu giñanean, errosarioa esan ondoren aipatu nieken nere lagunei:

— Gizon aundizki billau batzuk ibilli dituk emen. Gure artean erdi negarrez ikusten genitun aietakoak ere baitun tartean, beren kapelu aundiakin, lengo beren etsaiakin batera. Ta bai al dakizute zer esaten zuten?

— Ez badiguk kontatzen, azko zekiagu!

— Etxe ontan atxillotu asko gaudela alperrik. Beren zigorra izenpetu duten guziak aldatu bear dituztela emendik beste espetxeetara. Datozen berrien lekuak betetzen ari gerala, ta gu ortarako jasoak dauden espetxeetara eramán bear giñuztekela. Ori dek nik entzun dietana. Orrek zer esan nai duen igerriko diozute, noski.

Naigabetu itun nere lagunak:

— Bai, motell. Etzeukagu buru austen ibilli bearrik. Gure ta gure etzekoen nekeak arintzeko baño, zama berriak bizkarrean jartzeko obeak dituk auek, bai. Iritzi ori nere burutik ere igaro dek bein baño geiagotan: ez gaituztela gu emen luzaróan edukiko. Gurekin etzeukatek ezertan sartzerik. Auek odola nai ditek ixuri; ta zenbat eta berri geiago etorri, aukera ohea.

— Nik etzekit noiz ta nora; baña molda-

ketan ari dituk. Nere iritzi apalean, ortara etorriak, zenbat gauden-edo jakitera.

— Ez ditek orduan nora aipatu?

— Ez. Auek olako lanak ixilka ta ezkutan egiten dizkitek. Mendekoei al duten geiena supri-erazi; ori dek kristau berri auen legea. Burgos'era arte ez dala uste dit ortarako jasotako espetxerik. Baña ura, onuzkero, leporaño betea edukiko ditek. Beste gañera-koan, guda-gazteluak bazeudek mendi-gallur askotan. Oietako basamorturen batera ez bagaituzte eramaten... Baña emen luzaroan ez gaituztela edukiko, sinistuta bizi gaitezen.

— Eguberriak pasa arte utziko baligute...

— Ez al dituk orren presaka ibilliko, lau egun besterik etzeudek-eta.

— Gutxi piatu gero, gu zapaltzeagatik orixe ere ez diguten egingo.

— Eta denok leku batera eramango ote gaituzte? —zioken andoaindar batek.

— Zuek zigor txikia daukazute: amabost urte. Gure erdia. Zuentzat, espetxe erosoagokoren bat aukeratuko ditek. Guk basamorturen batera joan bearko diagu, noski.

Naigabetu giñala, egia. Guretzat ezik, etxe-koentzat ere zama gaixtoa izango uan. Baña etziguken ajolik, ar-zuloren batera eramaten bagiñuzten ere. Ainbesteraño nazkatuak geundeken negar-zotiñen artean.

— Etxekoak jakiñaren gañean jarri bearko dizkiagu —zioteken batzuk.

Gu bi anaiok ez genin pentsatzen oraindik

olakorik. Zetorrena zetorrela, an ere bizi uan Jaungoikoa.

— Zuek, nai dezutena egin. Baña guk, Eguberriak igaro arte, ixilik gordeko diagu. Zertako geiegi kezkatu bear dizkiagu?

— Ori izango dek, bai, noski, jatorrena: Eguberri-jaiak igaro arte, ixilik egon.

Ortan geratu giñun: gerora ere, ori esateko ez gendula denbora-paltik izango.

Gure elkar-izketa au ere ordukoz ortara geratu uan. Eramango giñuztela bagenekiken; baña erdi aztu zitzaiguen. Guk, beti bezela, gure lanean jarraitu genin. Baña beti ere oroitzen giñun Damokles'en ezpata buru gañean, ari batetik txintxilik, geneukala.

Abenduaren 23'an, anaiaren bixita izan genin. Nola edo ala, elkarri ulertzeko moduan itzegin genioken.

— Biar Gabonak dituk –esan ziguk—. Etzi, berriz, Eguberri. Biarko apari on bat, eta etzirako bazkari eder bat ere bai, ekarriko dizkizutet. Beti negarrez aritzea ere ez dek ona. Joan ziranak ez ditek otoitza beste bearririk. Gu baño obeto bizi dituk aiek. Aurki bi illabete badituk il zirala. Biar ez diagu itzegiterik izango, ez baita bixita-eguna. Nik, alare, dakardana atean utziko dit zuen izenakin. Tristeia dek egun ortarako etxera ez etortzea. Baña ori etzegok gure eskuan. Gure asmoak oker atera zaizkiguk. Urrengo urtean suerte ohea izango al diagu, guk bezela Jaungoikoak nai badu. Agur, bada, anaiak; eta Eguberri on bat pasa.

Gu, ordu garratz aietan, aztutzen ari giñun. Ikusten genin etxean ere polliki-polliki berdin ari zala.

Ez giñun goseak bizi. Larriagoak pasa bearko genizkin oraindik. Gauza piñetik ez bagendun jaten ere, naikoa beñepin bai. Baña, gu ere Gabon ta Eguberriak obeak igarotzeko asmotan giñun. Apari ta bazkari orren zai geundeken, bada. Gurekin bizi ziran lagunentzat ere zerbait iritxiko zala, lengo oitura xaarrak ez aztutzeagatik. Baña deabruak ezetz esango ziguteken.

Gabon-goizean, gosalongoan, gomazko abarka arin batzuk jantzi, ta balde ta isats bat nerekin neramazkila, eguneroko nere lanak egitera ninjoaken, barrungo garbiketa guzia lau lagunen esku geneukaken-ta.

Don Benito Txikia, ala esaten genioken, ni atetik salbatu niñuna ta barrun artako zaitzalle-buru guzietan prestuena. Txandaka egiten ziteken, baña ura uan atsegin ta gozoena. Aren aurrean purrustada gutxi egingo ziteken gure reketeak. Ni ninjoala ikusi niñunean, begira-begira jarri zitzaidaken; eta, eskuarekin keñu egiñaz, beregana deitu nioken. Urbildu nintzanean, ala esan zidaken:

— Utzi itzak emengo lanak eta traste oiek, amarrak aldean emendik atera bearko dezute-ta.

Zearo samindua geratu niñun, berri au eman zidanean. Noiz?, ta Gabonetan.

— Gaur? —galdetu nioken arrituta.

— Bai, bai. Gaur bertan, amarrak aldean.

Laxter ulertu zin arek, zergatik galdetzen nion ori, etxeko eskeñiaren berri ez bazekin ere.

— Joan? Eta nora?

— Ori ez dakit —erantzun zidaken; baña arek nai ta nai ez jakin bear zin, an edukiko baizuen paperean—. Esaiok anaiari ere. Zuen trasteak bildu ta prepara zaitezte, guardia zibillak billa etortzerako.

Ura an utzita ninjoala, begiratu triste bat egin zidaken atzetik eta kito.

— Oraintxe sartu zigutek epela! Agur, gure apari ta bazkariak! Agur gure ta gure etxeko pakeak. Egun okerragorik ezin ziteken aukeratu.

Anaia laxter etorriko uan espetxera bere pardelxoarekin, egunero joaten uan Donosti'ra-ta. Gure galdera egingo zin, eta andik norabait eraman giñuztela esango zioteken. Guretzat Gabonak, tristenetakoak izango itun, bidean noski igaro bearko baigenitun. Etxekoentzat ere, bada, ez oso alaiak. Ez baizuten sinistuko. Egia esaten bazieten ere, okerrera pasako uan aien burutik:

— Ea bazterren batean il egin dituzten.

Urteberritan, gero an azaldu uan aita espetxe berrira, bizi giñan edo ez jakitera. Etzegok esan bearrrik, aien Eguberri-jaiak nola-koak izango ziran.

Nere trasteak artuta triste erretiran ikusi niñunean, bai-baizekin arekin izketan aritu nintzala:

— Zer? Berri txarren bat bai al diagu? —galdetu zidaken anaiak.

— Bai, motell, bai. Gaurko egunerako ez goxo-goxoa. Kapelu-aundi aiek egin zigutek beren jokoa. Gaur bertan, emendik norabait bagaramazkitek.

— Gaur bertan? Erotu al dituk oiek? Edo ez al zekitek zer egun dan gaur?

— Ez dituk eroak. Benetan gaixtoak, bai. Daukatenetik ematen zigutek. Beren bidetik txuxen ziazik. Ez ditek gure zoritxarra besterik nai, eta gaurko au ez dek txikienetakoa. Urte guzian etxetik urrun bizi diran sendiak asarre pixarrak aztuta beren sendietara biltzen diran egunean, guk gure maiteekin artu-emanik izan ez dezagun, lotu ta beste bazterren batera. Ta, okerrena, gaur arratsean jaioko dan Aurtxo paketsuaren izenean.

— Eta goizetik?

— Bai, motell. Oraintxe: amarrak aldean.

— Demoniñoak dituk auek. Ori, gaixtoz egindako lana dek. Zer galtzen ditek, gu Egu-berriak pasa arte emen edukita? Au etzeto-rrek guretzat bakarrik gaizki. Etxekoak, jakitean, onak geratuko dituk. Auek ez dituk kristauak, egun zoragarri auei ere etzietek begirunik-eta. Nora esan al dik?

— Galdetu ziot; baña ez dakila esan zidak. Gezur borobilla. Agiria or zeukaken mai gañean. Or egongo uan nor ta nora goazen ere, nere iritzi apalean. Bañan auek ezkutuan ta ixilka egiten ditek lana, geiena supri-erazteko.



— Ire adiskidea ez dek, bada, ori?

— Irea ere, ixil-ixilik burua makurtuz agindua txintxo egiten badiok. Bigarren aldiz galdetu banio, goxoa jarriko uan.

— Gu bakarrak al gaituk joatekoak?

— Etzidak ezer esan. Baña gurekin dabilen Bidaniar ori ere badijoala uste dit. Lautaraño noski; baña etzekit nor dan bestea.

— Ori ala bada, emen etzegok aukerik. Agintzen digutena egin, ta aurrera.

— Ori dek itzegitea. Barrenak nastuko badizkigu ere, ik esan dekan bezela, itz bat trukatu gabe: aurrera! Astoak bezela, bizkarretik beera datorkion makillari ezpañak jasoz, irri egin ta aurrera.

Manta aundi bana jarri genizkin lurrean. An guretzat etzegoken maletik. Etxekoak jakin balute, anbat ekarriko zizkiguteken. Baña ez genin bearrik. Bitan eramateko asmoan, bakoitzak bereak, aundi bat baño, bi txiki errexago eramango genitula-ta. Berdin bide guzian lotuak ibilli bearko genin.

Beste biak ere an azaldu itun. Bidaniarra, Madalen bat egiña. Guk baño geiago galtzen zin noski arek. Nai zuen bezela, sukaldean zegoken ura. Laugarrena, berriz, San Joandar bat uan, gu baño zaarxeagoa ta ezkondua.

Gure pardelak egin ta laurok zai elkarizketan ari giñala, etorri zitzaiguken kanpora ateratzeko deia. Barruan gurekin lanean aritzen ziranak agurtu genizkin. Aiek ere kezketan geratu itun.

Guardiazibillak ez itun egundo barrura

sartzen. Bi beti egoten itun armatuak, baña asaltokoak. Laurok erten giñun ar-lekura. An zeudeken gu bidean zainduko giñuzten guardiazibillak. Betikoak, Jaunari eskerrak. Len ere zaindu giñuzten katalan aiek, alegia. Poztu giñun. Zenbait ero gaixto oietakoak izan balira, bide guzian mutu joan bearko genin. Subegorria bezela jartzen itun, euskeraz nabaituta. Oietakoak izateko, jator xamarrak, aien esanera makurtu ezkeru. Gure izkuntzan beñepin uzten ziguteken.

Lotu giñuztenean, buru egiten zuenak ala esan ziguken:

— Igesi egitea bururatuko bazaizuteke, erruki gabe bertan ilko ziñuzketegu.

Lenengotik sinistu genioken. Etzin bi aldiz esan bearrik. Ainbeste proba eman al zizkiguteken.

Txuxenean eskumuturrak lotu lenengo, ta gero binaka besorik-beso elkar, ta atarira eramane giñuzteken, berebil koxkor batera. Gure traste pixarrak atzera bota zituzten.

Aien aurrean bi guardiazibillak. Gu, berriez, txoperra ta bi armadunen erdian. Berai-zik ere, guk ikusteagatik, an bertan bete zizkiguteken pusillak. Txarrik pentsatzen bagendun ere, eroso geundeken, atzez aien pusillen aurrean. Aiek, iru; aske ta armatuak. Txoperra ere oietakoa izango baizan, eta ez uan utsik joango.

Abian, agurtu genin Ondarreta. Inpernu berbera geratu uan, gu andik erten giñanean.

Banaketak ez itun geratu, Bilbo artu zuten arte. Emen jarraituko ziteken.

Donosti'ko karrika basamortu aiek barrena, bertako jendea, auetakoak ere bai, asko oraindik larritasunez lotuak zeudeken. Baze-kiteken zer lan ari zuten militar sinisberak. Oraindik aske bazeuden, txatxu baten salaketa aski zala artu ta Ondarreta'ra eramateko.

Otza zegoken gañera. Orma beltza esaten diogun oietakoa zegoken egiña. Gero, goizera, mendiak beera arraxta-lañu itxi bat sartua, ta polliki-polliki loditzen ari zana.

Bereala iritxi giñun treneko geltokiraño. Besorik-besoko lotura kendu ziguteken, baña eskumutur lotuakin erten giñun. Ordu erdi inguru igaro genin gutxieneko. Ez giñala garaiz iritxiko-ta, gure guardiazibillak larri itun lentxeago.

Emengo trenak, pake-denboran ere, atzeratuak ibiltzen oituak zeudeken. Gudatean, berriz, iñork etzekiken noiz etorriko ziran. Orduan beñepin ogei minuturen atzerapenarekin azaldu uan. Jendea konten alare, atzeratuago iritxi etzalako.

Ke ta zalaparta zeriola, etorri uan noiz-bait. Bitartean, otzak daldaraka an egon bear. Tren artan ere, bada, ez giñun asko berotuko. Ez geundeken, alderatzeko ere, ondo jantziak. Ondarreta'n ez baigendun bearrik, eta ordu-beteren aurrearekin eman ziguteken abisua. Ezer eskatzeko ez genin betik.

Jendea bazebilleken ara-onera. Gu, berriz, geldi-geldi, bi guardiazibillen erdian. Gu ala

ikusita, ez uan iñor arritzen. Jainkoak zekik, egunaren buruan zenbat alako etzituzten ikusiko.

Andik, gure baserri ingurua ederki ikusten uan. Baña orduan gandu itxi batek estalia zeukaken, gure biotzak bezela. Mendia non zan banekiken. Baña ez uan ageri. Alare, biotzak billatzen zin oroitx goxoko kabi ura. Ala nioken naigabez betea:

— Ez dezute, guk ezik, zuek ere Gabon alairik igaroko. Onuzkero anaiak bazekik ez gaudela Ondarreta'n.

Norabait eraman gaituztela, agian ari egia esango zioteken, eta guretzat zekarzkin aparibazkariak berriro etxera eraman bearko zizkin. Gu orduan non geunden jakin balu, bertara ekarriko ziguken, bide-galtze aundirik etzeukaken-ta. Denon arte bidean jango genin. Berdin gure kargu zeudenak, etziguteken ur-txurrrupa bat ere eskeñi bide guzian.

Burutapen auk nerekkin nebilzkila, etorri uan bertaraño trena, arnaska ta ke-jario. Bere burni-ots artean noizbait geratu uan. Barruko jendea erten zanean, an sartu giñun. Gure trasteak oñetan jarri ta bagoiaren bazter batean exeri, guardia zibillak bestean genitula. Berriro besorik-beso lotu giñuzteken binaka. Etzeukateken nolanaiko beldurra. Bein Ormaiztegi'tik igaro giñanean, ondo zainduak joan giñun.

Unetxo batean olaxe egon giñun, nora ote garamazkin pentsatzen.

Txistu aundi bat egin zin trenak, eta asi

uan polliki-polliki gurrillei eragiten. Baña oraindik bere lekuan jarraitu zin. Andik bereala, beste txistu bat, eta trena arnaska ari uan. Azkenean, geltokiko buru zegonak, jo zin ezkillat. Orduantxe jarri uan martxan, alako purrustada bat egin eta denai astindu bat eman ondoren.

Nere biotzak bere barruan ala zioken:

— Agur, Donosti! Noiz arte?

Eta trena bazieken bere barearen martxan urrutiratzen.

Itzuliko ote giñan? Orra gu lauron galdera. Itxaropenik ez uan palta.

Trena bazieken, bere bideari lotua, egan-sube bat bezela, ke-mototsak aidatuaz, erri bat igaro, bestea igaro, danetan itxoginaldi bat egiñaz.

Erri geienak larritasun-pean, erdi ustiak, gaztedi guzia palta, batzuk igesi egiñak, besteak il edo espetxean, soldadu ere asko, errian zeudenak ere beldurrak, naiko negarra baze-goken len pakean bizi ziran erri koxkor oietan.

Geltoki bakoitzean ikusten genin guardia-zibillen bikotea. Bidean ere nonai, beren kapote aundi aien barruan bueltaka-bueltaka bilduak, ziri bat bezela beren pusillen muturrak gora zituztela. Aien zear-begiratuak!

Ormaiztegi'ra iritxi giñanean, bidea itxia zegoken trenarentzat. An, atera ta autobus koxkor batean sartu bear izan genin, aurrera-xeago joan ta berriro trenean sartzeko. Bitarte

ori itxia zegoken, Ormaiztegi'ko zubi aundi eder ura moztu ta eroria baizegon.

Eragozpen aundia uan atzera-aurrera zebillen jendearentzat, eta zer esanik ez gudan zebiltzan militarrentzat, araño joan ta autobuse-tan edo kamioi zaarretan artu ta berriro trenera sartu bearra. Auek denen jabe ziran ez-kero, etzeukateken kamioi-paltik. Laxter egi-ten itun, onean edo txarrean, olakoen nagusi.

Besteengatik zernai esaten ari ziranak, be-rak atzeraka asi balira, beste ainbeste egingo ziteken. Gudako legeak olakoak dituk, eta etzeukatek bestek egiñarekin zertan arriturik.

## GUARDIAZIBILLEN BATZARRA

Berebilletik atera ta trenean sartu orduko, asi itun andik-emendik gure bagoira guardia-zibillak biltzen. Bazirudiken jantzi orri usaia artzen ziotela, edo norbaitek aginduta an batzar bat egitera elkartzen ziralala.

Lenengoak bertan sartu itun, gure trenean zetozenak. Urrengoak, Zumarraga'n. Naparrak, baña Gipuzkoa zear zebiltzanak. Bertakoak, gorriakin nastu ziralako, igesi egin ziteken. Baña ortatik bazeukateken aukera. Perretxikoak bezela sortzen itun garai artan. Jantzi ta pusil bana emanta, sagaratuak zeudeken.

Aurreraxeago ere, ez nauk oroitzen non, sartu uan beste gazte bat. Ez guardia-zibil jantzian. Baña ala zala berak esan ziguken. Au aurretik zetorrena, eta armik gabe, Eguberriak ospatzera noski.

Beste bikote bat Altsasu'n. Auek ere naparrak, eta Naparroa'n zebiltzanak. Beste gazte

luze lirain bat zekarteken berekin, guardiazibil-jantzian ez, oraindik ez uan ala-ta, bere txapel gorria buruan.

Arekin etorri ziranak esan zigutenez, ez omen zala oraindik guardiazibilla; baña izan nai zuana, *neofito* edo *nobizioa*; eta aiekin zebilleken opizioa ikasten, lengo zaldunak bezela, armen ondoan gaubela egin ta lantegi berri ortarako onetsi zezaten. Izan ere, España'ren salbatzalleak omen itun berak-eta.

— *Es un novicio que promete mucho* —zioteken.

— Bazegok puska baterako guardiazibillan gudaroztea. Leku batzutan jipoi ederrak eman zizkigutek, baña gaztea bazetorrek ugari —zioteken.

Gazte arek beñepin —*joven que promete* izango uan, baña gure etsaia— begiratu onak egiten zizkiguken, gu euskeraz nabaituta.

Katalanak, gure zaitzalle zeudenak, ala erantzun zieten:

— Baietz, guardiazibillak aundiak artu zituztela. Baña ez beste aldean bakarrik. Emen ere bai. Emen, *el Movimiento* orrekin bat etzetozenak, eriotzarekin pagatu zutela. Legezko Jaurbatzaren alde atera ziralako, aiek batzuk ezagutu zituztela orregatik pusillatuak. Kataluña'n, berriz, asko katalanak ziralako, ta aiek, ango jaurbatzaren alde atera ziralako, erriaren aurrean begirune aundia zeukatela, Madrid aldeko berri etzekitela baña. Guk igesi egin diagu. Katalanak bagera ere, guretzat España dek lenengo. Baña guk etzeu-



kagu zertan gaizki itzegin beren erriaren alde atera diranengatik. Berdin katalanak ez dituk separatistak; eta, ordaintzen zien legezko Jaurbatzaren alde jarri diralako, ez ditek aiek billaukeririk egin. Iñor billaurik izatezkeroz, gu gaituk billauak, jaten ematen zigunaren alde joan ez geralako. Barkatu, gu lenengoak igesi egin baidegu andik.

Naigabez entzun zizkitekenez besteak katalanen arrazoiak. Bai auek laxter antzeman ere serio-serio jarri zirala.

— Orduan gu gaituk billauak. Bestearen alde joan diranak, ez.

— Zuzenbidez epaitzekotan, bai. Legezko jaurbatzaren aurka joan baigaituk. Alare, billauenak gu, andik iges egin degulako. An oraindik lengo Jaurbatzak agintzen dik. Zuek bete-betea auen eskuetan erori zerate. Emen auek agintzen ditek eta berai jarraitzea arrazoizkoa dek. Baña Gipuzkoa'n erori baziñaten, gorrien mende zer egingo zenduten?

— Ori etzekiagu. Baña Jaurbatza ez bada zuzena, ez gaudek ari jarraitzera beartuak. Ortan ez diagu uste uts egin degunik.

— Zuzena dan edo ez, gu nor gaituk epaitzeko? Baña legez jarritako Jaurbatzaren alde egin bear dik, aren bizkar bizi danak.

Igerri zioteken, bide artatik bazijoazen, azkenean asarretu egingo zirala. Naparrentzat biraoak itun katalanen arrazoiak. Aien pinta-suna zalantzan jartzea ere... Zumarraga'n sartu ziranak, beste elkar-izketa berri batean asi itun:

— Nora zoazte gudari auekin?

— Etzekiagu gudariak diran edo ez —erantzun zieken gure buru zegon guardiazi-billak—. Puska bateko itzala bazeramatek beñepin. Ogei ta amarrekoak dituk laurak, eta Iruña'ra ekartzeko esan zigutek. Or jakingo ditek zer egin.

— Leku ederra gudari auentzat, bakarren batzuk izango dizkitek illak-eta.

— Iñor il balute, ez itun orain gurekin etorriko. An, odol usai pixar bat artu ezker, etziotek barkatzen. Amaika, botoa eman utsarekin, entzun degunez, badizkitek beste gabe pusillatuak.

Azkena sartu ziranak, Naparroa'n lan egin zutenak, ala erantzun zioteken:

— Orduan emengo antzera ari dituk an ere. Naparroa'n gutxi dituk *consejo de guerra*'raño iritxiak. Olako salaketa zuten guziak, ez itun espetxera sartzen. Zertarako eraman? Berdin andik batzuk etxera bialiko dizkitek aske. Berriro salatu eta guk baitu egin bear, ondoren bazterren batean iltzeko. Naparroa'n, beñepin, gorri ta separatista oiekin guk egin diagu justizi jatorra: zañetik moztu, berriro sortu ez dedin.

— Orduan zuek, iñoren aginterik gabe, bururatu zaizuten guzia egin dezute? Ori, iñork kontrarik egin gabe jabetu ziñatela, gañera.

— Ez guk bakarrak. Sail geiago ere badi-tuk, ori egin dutenak; eta ez, gu bezela, mili-tarrak. Or dek *El Aguila* deitzen dioten falan-

je-talde bat. Guk zerbait egin degula-ta, arritzen zerate. Oiek ixuri ditek odola, oiek. Etzekiagu Naparroa'n erri bat izango dan oiek bakarren bat il gabekorik. Gaur bertan ere, entzun degunez, Erriberako erri batetik bi il dizkitek.

— Nik, zuen lekuan banego, arrapatu ta berak garbituko nizkikek. Oiek legez fuera zebiltzak. Zuen lekua betetzen ditek oiek.

— Ori etzegok gure esku. Militarren baimen osoarekin zebiltzak, gu bezelaxe.

— Orduan, elkarrekiko ezin ikusiagatik, amaika eroriko itun.

— Goikoak ez badigute agintzen, ezin gentzakek guk or ezer egin.

— Zertan ari dituk orduan emengo egunerokoak, gorrietan arma dutenak nai dutena egiten dutela esanaz, berak berdin egiten badute? Obe litekek lenengo beren etxea zuzenduko balute.

— Ez ori bakarra. Erririk geienetan, bee alde ortan beñepin, bi taldetan berexiak zeudek: rekete ta falanjeak. Talde batek askatzea nai badu, besteak bidera joango dituk iltzera. Guk aña edo geiago il dizkitek oiek. Guk uzten ditugunak oientzako dituk. Naparroa'n, bada, garbizio ikaragarria egin diagu. Gorri-separatista gutxi uan. Etziotek, alare, bakar bati barkatu. Baña orren errua goikoena dek; ez gurea.

— Ori, Donostia'n bertan ere berdin egiten ari dituk —zioteken Zumarraga'n sartutakoak—. Bidean batzuk, lekuraño baño len, utzi

dizkiagu. Besteak, Ondarreta'ra ziazik, norbaitek salatuta. Egia edo gezurra dan aztertu gabe, norbaiten aginduz, arratsean banakabanaka eriotzara zeramazkitek. Baña etzeukagu zertan negar egin. Oiek geienak separatista gorri oien kutsua zeramatek. España bi puska egin nai zuten oietakoak dituk.

— Orduan garbiketa ikaragarriren bat egin dezute?

— Agindua besterik ez. Naparroa'n amar millatik gora onuzkero. Ta oraindik etzeukak geratzeko itxurik. Noiznai agertzen dituk gorri oietakoak.

— Probintzia txiki baterako ez al dek geiegi ori?

— Ez, ez. Oraindik askoz geiagok erori bear ditek, orain arteko martxa badarama. España'ren etsai asko zegok, eta garbitu bear diagu, oietako bat bakarrik ez dedin geratu.

— Orduan konfiantza osoa zeukatek zuekin militarrek.

— Eskerrak Jaunari. Ori goratzarre bat dek guretzat.

— Gorriak ere garbiketa gogorren bat egingo ziteken?

— Asmoak bazizkitek. Baña ez ditek betik izan. Aiek ateratzeko moldaketak egiten ari zirala, aurea artu genieken. Bestela, ez uan gutako bat geratuko.

— Armik artu gabeko jendea, zalantza utsagatik, nola il litekek orren aixa?

— Beldurrak zaintzen ditula baratzak ziotek. Emen ere berdin. Beldurrak genbiltzaken,

oien moldaketak ikusita. Oraindik ondo pre-  
paratu gabeak erten giñun.

— Ori dana ulertzen diagu. Baña nola  
gingo zizkiteken moldaketa oiek, eskupeta  
txar batzun jabe besterik ez itun-ta?

— Emen ala gertatu dek, bada, ta etzeu-  
kagu egiñaren damurik. Ustez, gure burua ba-  
bestu besterik ez diagu egin.

— Gipuzkoa'n egingo ziteken orratik be-  
rea gorriak. Aukera eduki ditek beñepin. Ia bi  
illabetean berak agindu ziteken-ta.

— An ez ditek olakorik egin, nai zutenak  
baziran ere. Aundizki batzuk badizkitek illak,  
baña erdi gordeka. Ez nagusien aginduz, Na-  
parroa'n bezela. Gorri-separatistak indar aun-  
dia zeukateken. Alperrik dek ukatzea. Kris-  
tauak dituk eta garbizio bat ona egin nai zute-  
nei galerazi egin ziek, indarrean gañera.  
Orain berak ari dituk jipoirik aundienak  
artzen.

— Zergatik? Jendea iltzen galerazi dutela-  
ko?

— Ez, noski. Kristauak izanik, gure aurka  
erten itun, eta gure *Movimiento* oni kalte  
aundia egin ziotek. Benetako gorrotoa artu  
ziek goikoak oiei. Alare, ez dek Naparroa'n  
bezelakorik egingo. Zerbaitetan nastu diran  
guziak igesi egin ditek. Bizkai aldean zer egin-  
go dan, ori etzekiagu. Alare, San Kristobal'-  
dik aske bialtzen dituztenak, erabat errira sar-  
tu orduko, salatzen dizkitek eta Ondarreta'n  
ematen zietek berena.

— Orduan, gorri-separatista oiek, egundo-

ko garbizioren bat egin ez dutelako, etsairik gaixtoentzat dauzkazute?

— Nik etzekit zergatik; baña jipoirik gaixtoena berak ari dituk artzen.

— Kataluña'n ere, gorriak ez dituk atzetik geratuak izango. An ere, ibaika ixuriko ziteken odola? —galdetu zieken katalanei.

— Ez. Ezetzik ez dizuet esango. Baña ez onenbestekorik. Ango Jaurbatza, izan ere, legea zaitzeko laguntza gabe geratu uan. Alare, ez dek emengo alderatzekorik gertatu. An Elizak, errugabeak, pagatu dik larrutik. Apaizak esku-utsik zebiltzak eta arrapatu errexak badira. Oiek, ango gorrien eskuetan erortzean, jakiña zeukatek bi tiro, zer iritzitakoa dan ere galdetu gabe. Baña goikoak ori mozteko ezinñean arkituko dituk. Auek sartzen badira, ez dek atsegiñago izango. Amaiak joan bear dik ankaz aurrera. Batzuk ondo merezi ere bai.

— Apaizak errugabeak dirala diok? —zioteken Zumarraga'n sartuak—. Ez denak. Gipuzkoa'n separatista asko zegok. Amarretik gora izan bear ditek illak, eta oraindik geiago eroriko dituk.

Alaxe ziaziken, beren azañak kontatuz, gure guardiazibillak. Baña aurretik etorri zana ixilik zegoken. Entzun bai, baña ez uan elkar-izketa ortan nastu. Aren iritzia ere jakin nai ziteken katalanak. Ala galdetu zioteken:

— I ere guardizibilla izango aiz, noski.

— Bai. Ala nauk eta etzeukat ukatzeko. Baña ez zuen iritzikoa. Ni, guardiazibil egin nintzanean, erria ta España zaitzeko egin ni-

ñun, eta ez or erririk-erri arrapazka gizonak iltzen ibiltzeko. Nik ez dit ortarako balio. Ni kapitan Mayor'en eskolakoa nauk, eta aren bide berbera artu dit. Naparroa'ko garbiketak egiteko, bera aukeratu ziteken. Baña etziola kontzientziak agintzen ori. Eskubiak bezin naparrak zirala ezkerak. Beste iritzikoak ziralako, ura etzijoala anaiak iltzera. Aiek etzutela ezeren txarrik egin. Betik ere etzutela izan. Eskupeta txar batzuk besterik etzitzaizkiela arrapatu. Iritzi utsagatik ezin litekela gizonik il, ez badu txarrik egin. Lege berri auekin ondo ez datozen lanak egin bazituzten ere, eskubide osoarekin egin zituztela. Beste legeak zeudela orduan. Etzegola eskubiderik, arrazoirik ain gutxi, napar batzuk besteak iltzen ibiltzeko. Naparroa'k bere seme guziak maite ta zaindu bear zitula. Ta aurrerako eskatu zin, eta an il uan. Zer uste dezute: arek etzuela España'rik maite? Gutako iñork baño geiago agian. Bai ordea naparrak ere eta gizon-itxura zuen guzia. Aren eskolakoa nauk ni ere. Gu aurrean gabiltzak. Soldaduen gisa, gure bizia arraixkuan jartzen diagu. Ez beste askok bezela, erririk-erri errugabeak eta naparrak iltzen jardun. España'ren alde gudan gabiltzak. Ez aundizki batzun bizia zaintzen, atze ontan dabilzan bezela. Ainbeste eriotzen konturik ez dit emango nik.

Ala nioken nerekiko:

— Auetan ere gizon zuzenak badituk. Etzetozek, ari duten sarraski onekin, denak bat.

Etzitzaieken beste odol-zaleei ondo erori iritzi au.

— Aurrera joan ta atzean etsaia uztea arraixku txarrekoa dek, motell –erantzun zioteken suminduak.

— Zenbait erritan izan litekek ori; baña emen ez. Ez baidute iñor il. Naparrak bere lanean jardungo zin. Lai ta atxurrakin eraso bear al ziteken, zuek daramazkizuten arma oien aurka? Emen ez uan besterik. Ni naparra nauk eta min ematen zidak ainbeste il, ta oraindik arro, ori ondo egiña balego bezela, «amaikak erori bear dik» oiuka aritzeak.

— Ezagun dek ez dakikala Naparroa'ko berri. Egun batzuk atzeratu bagenu gure *Movimiento* ori, lekutara joango uan –erantzun zioteken asarre.

— Zuen buruak zuritzeko asmatutako ipui bat besterik ez dek ori.

Etziteken ortik jarraitzerik nai. Bai-baizekiten guardiazibil bakar arek arrazoi zucla. Bestela, geiago berotuko itun. Beste elkar-izketa bat asi ziteken; baña ura ere odol-zaleena.

Aurretik etorria aurreraxeago ertan uan. Eguberri-jaiak etxeko pakean igaro naiko zizkin noski, gudako ixkanbillak utzita. Baña ez ote zan beldurrak erten, nor zan ikasten bazuten salatuko zutela-ta?

— Nor dek ori? –batek galdetu zin.

— Oraindik gaztea dek, emen ezaguna izateko. Baña iritzi zitalak zeuzkak.



Ura joan zanean, lasaitu itun gure guardiazibil odol-zaleak.

— Gaztetxo orrek emango ote dizkigu, bada, guri lezioak? Zer irabazten diagu aurrera erriak artuz joatearekin, etsaiak atzean uzten baditugu eta armetan jasotzen bazaizkigu? Nai ta nai-ezkoa dek, aurreratu alean, atzea garbitzea. Ortarako, nor oberik guardiazibilak baño? Guk ondoen ezagutzen diagu erria, gu or bizi baigaituk, eta bertako gora-beeretan nai ta nai ez nastu bearra izan diagu. Guk zekiagu, bada, nor dan eskubi ta nor dan ezker. Benetan arraixku txarrekoa, gure *el Movimiento* onentzat, oiek atzean bizirik uztea, Naparro'ko jendea etzegok orren atzeratua-ta.

— Orren iritzia, bearbada, mazala izango dek. Baña gaurko egunerako ez dik balio. Gure etsaiak jabetuko balira, gutako bat ez uke bizirik geratuko.

Arrotuta bizi itun, bada, gure guardiazibilak, munduko pakea iritxi balute bezela. Baña, berak salbatzeko, il arrapatzen zuten guzia.

Aientzat fedeko egia uan *el Movimiento* ori. Ebanjelioa baño ere maiteagoa ziteken, ori salbatzeko, gizon iltze nazkagarrienak Jainkoaren aginduak bezela artuaz. Kristau belarrietarako, berriz, biraorik gaixtoenak; eta aientzat aintzagarriak. Aunditzat artzen zizkiten, orrekin España ezik mundua ere salbatu balute bezela.

— Guk emen egiten deguna egin bear litekek beste aberritan ere. Ez uke onenbestego-

rri izango —zioteken arro, santu aundi baten lanak egin zituztelakoan.

Katalanak ez itun iritzi ortakoak, eta ala erantzun zieten:

— Baña Jainkoak etzin mundua eskubitarrentzat bakarrik egin. Ezkertiarrek ere nonbait bizi bear ditek.

— Oien lekua kanposantua dek. Oiek ez ditek iñora pakerik eramango.

— Eta guk bezela pentsatzen dutenetik al zetorrek pakea? Emen ondo pakean zeudeken. Zuek ekarri dezute guda.

Sumindu itun arrazoi auekin ere gure odol-zaleak. Aien lanak zalantzan jartzen zituna, erejetzat artzen ziteken. Beren *el Movimiento* gatik dena eginta, nola utsegin zezaketen?

Mundua ebanjelioak, maitasunak alegia, salbatuko duela ziotek. Baña aiek etziteken olakorik entzun nai. Aientzat, gorri guziak ilta berak bakarrik geratsetik zetorreen España'ko pakea.

Katalanak laxter antz eman zioteken aiekin etzegoela elkar-izketarik, eztabaida antzean beñepin. Asarretu egiten itun, arrazoi aiek entzunda. Bereala, aien atsegiñezko galdera bat egin zieten:

— Orduan, zuek salbatu zenduten Naparroa, gorriei aurrea artuta?

— Bai. Ori bai egia dala. Bestela, Naparroa ere, Gipuzkoa bezela, gorrien mende geratuko uan.

— Ortarako zer egin zenduten, bada?

— Iruña'n zegoken gure koronela, ta bere mende zeuzkaken guardiazibillak. Baita asaltokoak ere. Militarrak erasotzera zijoazela igerri zionean, oso ausarditsua uan, baña *un republicano podrido* –zioteken arrokeriz–; guardiazibillak binaka-binaka jarri gaitziken lekurik eroso ta garrantzitsuenetan, asaltokoak ere berdin, militarrak igaro bear zuten bidea itxiz: Militarrak erasotzera zijoaztela, moldaketak egiten ari zirala ta, jakiña, aiek irabazten bazuten, errepublika bera ta aurre-ratutako askatasunak kendu egingo zituztela. Eusteko al zuten añean. Denok pin jokutzen bagendun, aiek aña bagiñala. Ez beldurtzeko. Denok jarri giñun gure lekuetan, eta koronel ori ausarditsu zebileken bikote batetik bestera, bere aginduak emanaz. Baña guardiazibillak eskubitarrekin giaziken. Ezkerrekin ez genin ezer ere jakin nai. Gure nagusitasuna ankaperata etorri uan Erkalarekin. Baña berriro eskubiak jartzen baziran nagusi, guk aginduko genin erri guzietan. Amaika ixtillu ta matxiñada bazebileken beñepin, eta beti gu galduan. Bikote bati bere aginduak eman ta atzea eman zigun orduko, atzetik sutu genio-ken.

— *¡Qué hotes daba el cerdo!* –zioken bateg.

Zirudienez, bera ez bazan izango ere sutu ziona, ikusia zin nola il zuten.

— *Si no, fracasa el Movimiento* –esan zin ondoren, España'ra zerua ekarri balute bezela.

— Eta iltzalleari zer egin zioteken?  
— Saritu; galo berri batzuk eman.  
— Bere nagusia il ta saritu mendekoa?  
— *Si no, fracasa el Movimiento* -zioteken  
arro berriro.

— Eta zuzentasuna noizko?  
— Guk agindu ori artu genin.  
— Zuen koronelaren gañetik, noren agin-  
dua? Bapo zegok. Justizi pollita! -esanta, ixi-  
lik geratu itun katalanak.

Belarri bat nere lagunekin neukaken. Bes-  
tea, berriz, guardiazibillen elkar-izketara. Na-  
parrak atsegiñez ari itun kontatzen. Denak  
itun España'ren alde; baña bai bideetan be-  
rex. Elkar-izketa interesgarria. Baña nazkaga-  
rriagorik ez nin egundo entzun.

Olaxe joan giñun Iruña'raño. Aiek ere  
Eguberriak ospatzera zetozela beñepin. Lau,  
ta rekete me luxe ura, Iruña'n atera itun. Bes-  
teak, treneko zaitzalle bezela, aurrera jarrai-  
tuko ziteken.

Ainbeste errugabeko il aien artean, beren  
koronela. Amaika etxetan negarra utzita, aiek  
etziteken espetxerik merezi; ta iñori txarrik  
egin gabeak, eta egiteko asmorik ere ez gen-  
dunak, kartzelara. Laxter jaioko zanaren  
antzekoak gu giñun; baña ez genin Egube-  
rriak ospatzerik izango gure etxekoen artean,  
lengo urteetan bezela. Bitartean, Herodes'en  
gudariak, errugabeak iltzen aspertuta, aukera  
izango ziteken beren etxeetan askok, ildakoei  
ostutako ondasunetatik.

Beartsuarentzat badituk beti bear-ezak.

Aundi gaixtoak gora ta txiki onak beera, espexera edo eriotzera. Ikusia zegok mundu ontan ez dagola zuzentasunik; gaixtoak ditugula nagusi, eta zuzen jokatuak oinpean ta negarrez bizi gerala. Orregatik, nai ta nai ez, bearrezkoa dek denon gañetik dagona ta bakoitzari berea emango diona.

Iruña'ra iritxi giñanean, bada, emen jetxi giñun baituak. Denak aurrera jarraitu ziteken. Gu, berriz, geltokian geratu giñun.

Gure guardiazibillak ere presa ziteken, berriz Donosti'ra biurtzeko, al zuten ondoena ospatzearren berak ere arrats ori.

Gu bakarraren mende geratu giñun. Joan uan bestea ango agintariren batengana, beste bikote bat eskatzera.

Otza zegoken benetan. Donosti'tik otzak erten giñun, eta Iruña'n ere etzegoken epel. Etzekit zenbat denboran egon giñan. Ordu erdiren bat bai, noski. Baña an zebillen jendeak ez gaitziken aintzakotz artzen. Amaika olako ikusi ta oituak egongo itun, gure aurrean arrituta geratzeko.

Mezetatik izkillotzeak ikustera joaten omen ziranei, gu ala lotuak daldaraka ikusteak etzieken biozkada aundirik egingo. Gogortuak zeudeken asko zoritxarrez, goikoak iruzurtuta. Baña andik urte gutxira asi itun esnatzen eta San Kristobal'ko atxillotuei laguntzen, bein igesa ezkeru.

Noizbait azaldu itun kamioi zakar batekin, eta beste bikote baten mende geratu giñun. Mutur illunak zeukateken aiek. Begiratu

onak egiten zizkiguteken, gu euskeraz ari giñala nabaituta.

Ango karriketan barrena igarota, -gutxitan izan niñun ni an, ez nin ezaguna-, aldapak gora artu genin. Bide zakar batean sartu giñun bereala. Inguru guzia arkaitz ta sasiz josisia zegoken.

## ZIGOR-MENDIA

Gorago ta bide zakarragoa, ta inguru guzia basatiagoa; eta bueltaka-bueltaka beti gora. Bi guardia zibillak aurrean, aulki batean exerita. Gu, berriz, beste zurezko aulki batean, aiek bezela atzeka. Iruña ikusten genin beeko zokoan. Uzten gendun bide zakarra ere bai, sube bat bezela biurrika-biurrika, bi aldeetara txara ta arkaitza.

Lenengoz arrituta geratu giñun:

— Nora ote garamazkite?

Baña gure arridura laxter beldur biurtzen asi uan.

— Non arraie ote daukate auek goi ortan espetxea? —zioken anaiak.

— Etzekiagu, motell, —erantzun genio-ken—. Lenengo aldiz giazik gu ere aldapa basamortu auetan barrena.

— Preso asko ekartzen badituzte, gose ikaragarriren batzuk pasa bearko dizkiagu. Gu mendi ontan mantentzen ez dek errexa izango.

Anai zaarrenaren urduritasuna sartu zai-  
guken guri ere.

— Emen, mutillak, ez diagu gauz onik. Jainkoa beste lekukorik gabe egingo dizkitek gure lanak. Gero, auntzak ere biziko ez lira-  
ken arkaitzez josia dagon basamortu ortara bota, saien janari. Ola oituak egongo dituk.

— Ortarako ekarri ote gaituzte oneraño? Leku basatia dek; baña gure etxe inguru aie-  
tan ere bazeudek onen antzekoak. Gasolina ta nekeak aurreratuko zizkiteken, gu an utzi ba-  
giñuzte.

San Joandarra ez uan iritzi ortakoa:

— Txorakeri ederra egingo litekek, gu an-  
dik oneraño iltzera ekartzea. Or batek esan  
duen bezela, urbillago etzeukatek lekuaren  
paltik. Itxasoz aurrera eramán, bala bat sartu  
burutik, lepotik arri batekin lokarri bat lotu  
ta *punpa!* itxaspera. Ez litekek geiago gure az-  
tarrenik billatuko. Len ere militar oiek ori  
egin zutenaren susmurrak obeto zeudek. Ba-  
tez ere, Martínez Anido'rena. Indarra izan ez-  
kero, kontzientzirik ez duenarentzat dena zi-  
llegi baita.

Larritzen asiak giñun. Iges egiterik ez.  
Aiek txoperrarekin iru baitun, ortzetaraño ar-  
matuak. Gu lau, ta eskumuturrak ondo lotua-  
kin. Gure elkar-izketa au nabaitzen ziteken  
guardiazibillak, baña etziteken ulertzen.

Aiek kamioiean atzeka zeudeken jarriak.  
Gu ere bai. Beraz, aien pusillak garrondoan  
genizkin. Mugitzen bagiñan, amen batean  
eroriko giñun laurak.



Orrekin, aurrea ikustea ere galerazi egiten ziguteken, ea an goien zer zegon jakiteko. Bide arek ez baizuen bukatzeko itxurik. Igo ta igo, ta gero ta bide kaxkarragoa ta leku basatiagoa.

Orduan oroitu niñun ni, norbaiti entzuna niola, Iruña inguruko mendi batean bazala gaztelu edo *fuerte* deritzaion aundi zakar bat. Nonbait lanean ari giñala, egundoko zanpetakoak entzuten genizkin, eta nere lagunak esan zidaken orduan:

— Zanpetako oiek, seguru asko, San Kristobal'koak izango dituk. Aieka artatik zetozek, eta aizeak ere andik jotzen dik.

Ori esan zidana naparra uan, eta berak soldaduzkarik geiena an igaro zuena.

— Eta San Kristobal ori non zegok? Urrutiko zanpetakoak ez ditek ematen.

— San Kristobal ori, Iruña'ko gañean, mendi zakar baten muturrean, bide extu batean igota.

Ordu erdi bat bageramaken igo ta igo. Baña bere erteerik ez genin ikusten.

— Lasai, mutillak. Orain oroitzen nauk Iruña ondoko mendi-gallur batean badala guda-gaztelu aundi bat. Zalantzik gabe, arako txangoa diagu —esan nieken.

San Joandarra ere bereala oroitu uan:

— Bai. Ortan arrazoi daukak. San Kristobal dik, gañera, izena.

Orduan lasaitu giñun. Bañan ia etsi genin.

Otzak daldaraka goazela, bean otza baze gon mendi kankar artan etzala beroago egon-

go, eroak ere bazekik; eta kamioi erekian. Eskerrak, alare, gora ginjoazen. Aizeak etzin ainbesteraño korritzen, geldi-geldi zieken-ta.

Goizean, amaikak baño len atera giñun Donostia'tik. Illun-bistan giaziken. Jakiña, eguna ere motxa zala. Orduantxe zieken eguzkia ezkutatzera urrungo mendi atzean.

Zer tristura ematen zigun illunabar arek! Nere ogei ta bi urterekin, mendi-gaztelu baten barrunbean bizirik usteltzen egon bearra, ain eder ta lilluragarria zirudik adin ortan munduak-eta. Ogei ta amar urteko zama bizkarrean geneukala, leku onera giaziken, munduak eskeintzen zizkigun atsegiñak irixteko.

— Itxu bizi diranak ere badituk, eta zer egingo diagu, bada? Ez ote zuten gero, Ondarreta'n il ziran bi anaiak, guk baño suerte obea izan?

Eguzkia ezkutatu-alean, otza azitzen ari uan.

— Ez ote gera beñere iritxiko?

Eskimalak sei illabeterako agurtzen omen ditek eguzkiaren sarrera. Guk bost urtetarako agurtu bearra genin. Ez baigendun bere erteara-sarrerik ikusiko.

— Ez ote gaituk ar-zulo madarikatu ortara iritxiko?

Mutur artan ageri etzanean, ezin ziteken ar-zuloa besterik izan.

Alako batean, bide-gurutze batetik atzera zear begiratu bat egin nuenean, an ikusi nin atzean gaztelu zaar aundi ura. •

— Ara non zegoken gure inpernua —esan nieken.

Bat-batera begiratu ziteken aiek ere atzera.

— Iltzera onuntz ekartzea parragarria bazean, bizitzera ekartzea ez al dek oraindik parrarriagoa izango? Auzoan zeukagu au baño erosoago ta askoz leku ohea San Markos —zioken nere anaiak.

— Ikasi-ordua badiagu onuzkero, auek ez dutela gure onik nai. Errextasunik eman ain gutxi. Gu beti oñazetan eta etxeakoak eziñean jarri, ori dek auen asmo bakarra. Gu gorriak bagera, bazekitek etxeakoak ere ala dirala. Gu bixitatzeko asmoan, nor etorriko dek mendimutur ontara? Len arlote bizi badira, ez dituk asko aberastuko. Bidean kastatu bear dutena, obe ditek presoentzat biali.

Suminduak geratu giñun, Donostia'tik arkaitz-zulo artara ekarri giñuztelako. Gu zigortuoi alperrik supri-eraztea etzegoken ondo. Orregatik, ez gaitziken beren alde jarriko. Maitasunak biltzen dizkik biotzak; gorrotoak berexi.

Baña etxeakoentzat uan izugarrizko aldrebeskeria ori. Edozeñek zekik, etorri nai bazuten, zer txango zeukaten egin bearra. Lenengo, trenez; gero berebillan edo oñez. Sendi beartsu batek biotza bear zin, ainbeste neke ta diru botatzea bost minutuko izketaldi bat egiteko. Ta, bakarrik bagiñan, etziguteken gure izkuntzan utziko.

Bertara iritxi giñanean, eta kanpotik ar-zulo ura ikusi, alako tristura batek lotu gaitzi-

ken, eta gure biotzak oñetaraño erori itun. Eta, gu ikustera joaten zan beste edozeñi ere, berdin gertatuko zitzaioken. Aiek bost minuturako joango itun, eta gu ogei ta amar urtetarako giaziken sartzera.

— Andik oneraño ekarri? Ez al zegoken gure lurrean lekurik? Au, basamortu bat besterik ez dek. Auntzak ere ezin bizi litezken lekua. Emen egingo ditun elurteekin, ez dek neguan edari-paltik izango. Elur urtua bederenik izango diagu. Udaran izango dizkiagu naiko lanak. Baña erditan zer janik ez. Ez dittek, negu-partean beñepin, errex igoko. Gose ta barau ugari egin bearrak gaituk.

Guk aurretik ikusi genin sarrera bakarra, alegia, kanpotik ain beldurgarria zana. Nola-koak ote zitun bere sabelak? Urrundik ikusi genin, aga baten puntan, bandera xixtrin bat, koloreak joan ta zearo xaretua. Inguru guzia, berriz, mendi-muñoz betea zeukaken, legun ta belarrez josia; eta ez uan arkaitzik ikusten. Dena, gaztelua jasotzerakoan zulo egiteko atera zuten lurrarekin bete-lanez egiña. Oien gañean etxola txiki batzuk ere ikusten genizkin. Aiek, gure zaitzaleen ezkuta-lekuak izango itun. Zegon giroarekin, zerbaiten bearra bazeukateken. Udaran leku pollita izango uan gain ura. Baña neguan benetako izoztegia. Auntzak ere garbituko zizkin an zebillen aize arek.

Astigarraga'n badek Aizeleku deitzen dioten baserria. Au dek aize-leku; ez ura. Lau al-

deetatik nai duen bezela artzen dik mendimutur au ta.

Euskalerriko erri batzun antzera, batez ere itxas-bazterrekoena, egiña zegok. Ar-zuloak bazirudik mendi-egaletik barrura sartua dago la, eta andik gora zurubi-mallak bezela zeudek etxe-bizitzak jasoak.

Zuloan egin gaztelua. Ura soldaduentzat; eta agintarientzat, berriz, egutera-eguteraan beren etxe-bizitza koxkorrak, goraka-goraka, elkarren gainka bezela.

— Len soldaduen antzera, orain atxilotuak biziko gaituk zuloan. Gure borreroak, eguterako bizitza oietan.

Konpañi bat osoa zegoken, bada ez bada, espetxea zaintzen.

Inguru guzian, jakiña, gaztelu auek guziak bezela, lubakia. Baña ez uan aundia. Beetik gora sartzen zalla; baña goitik beera laxterka datorren gazte batek aixa eragiteko moduan.

Gero esango degunez, andik aldegin zin jauzi batean konpañiko kornetak. Igesi egin nai zutenen ametsak ere, jauzi arek moztu zizkin.

Sarrerako zubi bat zeukaken, jaso ta jexten zana. Bañan zubiaren sarreran burnizko ate aundi bat, eta bere gañean: *Fuerte de San Cristóbal*. Nondik atera ote zuten izen ori, San Kristobal txoperren zaindaria izanik?

## INPERNUA

Ate aren goiengan, *San Cristóbal*'en lekuan, ez uan gaizki etorriko, Dante'k inpernuko sarreran ikusi zuen bertso ura:

Jaungoikoaren zigorra naiz ni,  
inpernua det izena,  
atsedenik ez, zigorra beti,  
kezka gaixtoen eztena;  
ortz-karraskada, izu-ikara,  
pozik ez dagon barrena,  
onuntz zatozen orrek uztazu  
atean itxaropena.

Orretxen antza artu nioken nik San Kristobal'ko sarrerari: goitik beera, zulora, inpernu bereko sarrera.

Zubi gain artatik barrura sartu giñanean, atea itxi ta askatu zizkiguteken eskuak. Kamioia joan uan bere guardiazibillakin Iruña'ra, eta gu leizeko deabruen mende geratu giñun.

Gure trasteak bizkarrean, aietako bat bide-erakusle aurretik genduela, ate aundi baten aurrean geratu giñun, burnizko txapaz egiña, zabaldu ziguten arte.

Noizbait ura ireki ta sartu ta ixterakoan, egundoko zanpetakoa atera zin burnizko ate arek, bere inguruak dardarazterañokoa. Alako buelta bat eman zin gure biotzak.

— Zer jasan bearrean ote gaude gu, barrunbe illun ontan? —nioken nereki.

Anaiak esan ere bai:

— Orra: demoniñoak artu gaitzik bere mendean. Ate ori etzaiguk berriz zabalduko, gu ankaz aurrera eramateko bestetarako.

Nere burutik ere igaro itun oldozmen oiek. Baña itxaropentsu erantzun nioken, zearo eroria ikusten nuen anaiari:

— Lasai adi, Joan Joxe. Ez itxaropenik galdu. Jainkoak bere eskuan zeuzkak orko giltzak; eta esaera zaarra dek, Jainkoak estutzen badakila, baña ez itotzen. Inpernu beraren itxura zeukak, egia; baña ate bat zabalik zeukagu beti. Gu nor bagera beñepin, deabru guziak itxiko ez digutena. Inguruak ixten badizkigute ere, goia etzeukatek ixterik. Ortik iges egingo ziegu.

Bakarrik izan banintz, askoz ariñago jasango nizkin espetxeko nekeak. Baña nere anaia aldamenen dena pazientzian zeramala ikusiz, naigabe ematen zidaken. Zer egin ote du onek orrela supritzeko? Neroni ere berdin nebilleken baña.

Ari ala itzezin banion ere, ez dakizute

nola negon neroni, atzera egin nairik. Etzego-  
la zero-lurretan zuzentasunik, zirika ari  
zitzaidaken biotza.

— Jesukristok etzin pekaturik egin; guk  
bai, ordea. Alare, ura gurutzera joan uan. Gu,  
kristauak, bere jarraitzalleak bagera, zergatik  
ez gurutz-bideari jarraitu, aren antzekoak iza-  
teko? Aurrera, Salbador, norbaitek urrezko  
izkiz idatziko dik au ta!

Sinismenak arintzen zizkigukuen naigabe  
auek denak. Bestela, etzekit nere buruari az-  
kena ez ote nion emango. Ain nazkagarria  
iruditu zitzaidaken ar-zulo aren barrena. Ez  
baizan besterik ori: ar-zuloa. Euskalerriko  
antziñetako oituretara biurtu nai giñuzteken:  
ar-zuloetara.

— Etzeukatek preso gutxi, azkenean zulo  
ontaz ere beartu diranean. Etziotek gizonaren  
nortasunari asko begiratzen. Zenbait lekutan,  
gu emen gauden bezela, txakurrak eta katuak  
jarriko balituzte, ez uke atsegin izango. Ema-  
kumeak matxiñadaren bat sortuko litetek. Eta  
errugabeko personak zulo ontan estali dituz-  
telako, España zabalean ez da protesta bat  
ere. Militarrak egiten dutenean ondo egiña  
egongo dala ta kito. Ori len ere ikasia genin,  
bai: gudan mando zaarren bat iltzen zanean,  
orrek naigabe geiago ematen omen zieken bu-  
ruzariei, bi edo iru soldadu iltzeak baño.

Iru edo lau ate igaro genizkin. Aizea txix-  
tuka sartzen uan nonaitik. Mendi gañetik  
beera zulo artan sartzen zanak, bazekiken  
gure jantzien txuloak billatzen. Batetik sartu



ta bestetik ertengo uan. Izan ere, zurrunbullo bat sortzen zin, ezurretaraño sartzen zana, ta ixtua ere lurrera baño len ormatzen zuena inpernuko sarrera artan. Inpernuan sua dagola ziotek; bertako sarrerak etzeukaken alako itxurik.

Noizbait ate aiek igaro ta leku babes batera sartu giñun. An berogarria zegoken pixtua. Bai atsegin ere.

Gure pardelak zabaldu zizkiguteken, eta asi uan azterketa edo katxeoa. Zer kenduko ziguteken guri? Espetxetik espetxera zer eramatea usteko ziteken? Baña etziguteken ezer ere kendu. Erropa besterik ez geramaken. Artatik ere gutxi leku artarako.

Bati zerbait kendu zioteken, bai. Baña bere erruz. Ordulari bat. Joaterako ikasia zin, zekitenak esanta. Etxerakoan emango ziotela. Baña, andik egun gutxira, aietako baten esku-muturrean ikusi zin kendu ziotena.

Beren azterketa bukatuta, gure pardelak loturik, gu txut-txutik jarrita, barru artako buru zegonak, -nik txinoa zala uste nin, baña etzala angoa esan zidateken, bere sudur motz, begi tiratu ta kolore ori aiekin, angoa zirudiken-, arek egundoko itzaldi aberkoia egin ziguk. Artara oituak egongo itun. Ez uan nerezat azkenekoa izango. Urrungo egunean, beste alako bat entzun bearra neukaken. Bu-kaeran, beñepin, ala esan ziguk:

— *Aquí sólo yo yevo lo cojone. Utede pueden colgalo a la puerta.*

Etzin beste itzik esan bearrik. Orrekin

ederki ulertu genioken. Alare, au uan ango zaitzallerik onenetakoa: zaunka ugari, baña beti laguntzeko prest.

Ango zaitzalle bat aurretik, sartu giñun berriro izoztegi artan. Ordurako, illunak menderatzen ari zin ar-zulo beltz ura. Espetxe barruan argiak pixtuta zeuzkateken beñepin.

Preso guzien ikusgarri sartu giñun. Ikusten genizkin nola zeuden leiotik begira. Baña kristal barrundik. Norbaitek esan omen ziela Donosti'tik gentozela. Zer berri ekartzen genitun ikasi nai zin jendeak.

Amaika atzera-aurrera eman bearko genizkin, igarotzen ari giñan arrizko patio estu artan. An ere burnizko ate bat zabaldu ziguteken. Iru galeri aundi zeudeken, ta ura uan denetarako sarrerako atea, galeri bakoitzak bere atea bazeukan arren. Andik aldapatxo bat, baña estalpean, igaro ta sartu giñun. Beste ate txiki bat ere zabaldu ziguteken. Etxe auetan ez dek ate-paltik izaten, eta geienak burnizkoak. Tunel batean sartu giñun. Sarreratik begiratuta, tunel estu bat zirudiken beñepin. Luzea zenbat metro, etzekit; baña eunen bat, bai.

Tunel orrek, ordea, bere bi aldeetara arkupe aundiak zeuzkaken, bakoitzak patio aldera leio aundi bana zeukatela aize berritzeko. Amarren bat olakoak izango zizkin tunel bakoitzak. Arkupe auen denen erdian zeuzkaken, alde batera, komunak; eta, bestera, garbiketako iturriak, berreunen bat solda-

duentzako jasoak. Baña ia millaraño egongo giñun, igesa ordurako.

Gu sartu giñanean, beñepin, erdi utsa zegoken. Bigarren galeria esaten ziotenean sartu giñun gu. Iru bazizkin olakoak: goikoa, erdikoa ta beekoa.

Goikoan jende mordoska bat bazegoken; baña oraindik epaitu gabeak. Gu joan giñanean, an zeudeken oraindik Molero jenerala, baita Irujo bat ere. Manuel Irujo'ren anaia noski. Ura uan San Kristobal'ek zeukan lekurik onena; eta, patioz beste aldeko gelak berexi exkero, aizetsuena.

Gurea ere ala uan, patioko muga-mugan.

Irugarrena, lenengo galeria deritzana, au zearo lurpean zegoken. An ez uan eguzkiaren argirik sartzen. Egunaren pozik ain gutxi. Leio txikiak zeuzkaken patiora, azpitik gora, txirrikitu batzuk bezela. Orduan utsa zegoken.

Gu sartu giñanean, bada, zaitzalleak joan ta trasteak utzi giñun lekura, bereala asi uan jendea urbiltzen.

Aiek egiten zizkiguten galderak zearo arrituta uzten giñuzteken. Amets-pean bizi itun asko. Etziteken, egia esanta ere, sinistu nai. Gasteiz'tik joan ziranak bai; aiek joan berriak itun-ta.

*Radio Petate*'k egiten omen zuela lana, esan ziguteken gasteiztarrak, eta ala izango uan. San Kristobal'en bertan asmatzen ziran gezurrak.

Batean, Arrasate alde ortan, Bizkai aldetik

aurrera zetozela. Bestetan, Ondarrabi aldera etzekit zenbat milla sartu zirala itxaso aldetik. Eten gabeko galderak. Oiek egiak ote ziran jakin nai. Berri onak entzun nai, ta guk eduki ez.

Arrasate aldeko ori egia izan zitekela. Baña Ondarrabia'n ainbeste milla itxasoz sartu ziranik ez gendula sinisten. Donosti'tik ia bistan dagola, ta, olakorik gertatu izan balitz, laxter ikasiko gendula ori. Nola sartuko itun, kanpoko nazioaren bat izan ezik, itxas zabal ortan, zoritxarrez, Franco'ren ontziak agintzen ziteken-ta? Andik sututako zanpetako ederrak entzunak giñun.

Batzuk, alako zear-begiratu bat egiñaz, ala zioteken elkarri:

— Oiek, Donosti'tik zetozek, eta ango geienak, errosarioa eskuan dabilkiten oieta-koak dituk. Geienak fazistak. Guk gezurra esanta, oiek egiarekin baleude bezela.

Baitun gure alde atera ziranak. Azkena joanak, geienak Gasteiz'en arrapatutako bilbotarrak itun. Ongi zekiteken aiek, Ondarrabia'n itxasoz sartzeko, indarrrik etzeukatela gorriak; eta erotzat artu zizkiteken, alako galderak egiten zituztelako. Nai bai, baña ezin.

Espetxe guzian, orduan beñepin, bi euskaldun bakarrak bizi itun. Biak adiñekoak. Bat, oiartzuarra; ta bestea, Eibar'koa, baña trenean lana egiten zuena. Arek etzin edozeñekin itzegiten. Piakaitza uan. Oso tratu gutxi eduki genin arekin. Oiartzuarra, berriz, oso bestelakoa uan.

Txiki sendo bat. Berrogei urtetik gorakoa. Zentral batean lana egiten zuena. Auek, gizarajoak, larrutik pagatu ziteken. Denak ixpitzat artu zizkiteken. Askok beren biziarekin pagatu. Beste batzuk bazeudeken espetxeetan zigortuak. Baña gutxi. Beren aldekoak ez besteak garbitu egin zizkiteken. Zentral oietan baizeuden urrutizkiñak.

Au etorri zaiguken, bada, *dranguka-dranguka*. Ezkerreko oñetik erren pixar bat egiten zin. Arritzeko moduan jantzia. Berez gizon bapoa zegoken. Gizen xamarra. Ezagun zin etxetik bialtzen ziotela. Espetxeko janarekin bakarrarekin an ala iraungo zuen gizonik ez dek jaio. Orduko espetxeratuena jantzia zeramaken. Kaki kolorekoa izango uan berri-tan. Arek zekarrena, beñepin, zuri xamartua zegoken. Galtza txorrotzak; ipurdian estuegi. Txamarra ere berdintsua. Bi edo iru adabakirekin itxusitua. Txapela ere berdin: kakizkoa. Gizon parregarria zirudiken orduan. Txorizutzalleetako aproposa. Ori ere zurkeriz egingo zin, bai, noski, benetako zurra uan-ta.

*Dranguka-dranguka* etorri ta ala galdetu zigukenen:

— Zuek Donosti'tik omen zatozte. Ala esan zidatek.

— Bai, bai. Donosti'ko inpernutik.

— Bai. Emen ere naiko inpernua zeukagu.

— Eta zu, nongoa zera?

Ni baño ondotoxoz zaarragoa uan ta zuka itzegiten nioken.

— Ni, oiartzuarra.

— Orduan auzoak gera, gu Errenteri'koak baigera.

— Errenteri'koak? Zein aieketakoak?

— Altza ta Astigarraga'ko muga. Base-  
rriak, Bordaxar izena.

— Ez dit uste entzun detanik.

— Zuk zentrolean etzendun lana egiten?

— Bai; Ollokiegi'ko zentrolean.

— Orduan ezagutuko dezu Joxe Antonio Frantzesillaga-zaarrekoa. Ura ere alanbreetan lana egiten duena baita.

— Joxe Antonio bai, aspaldi auetan. Gizon gogorra ta langillea.

— Ura gure osaba da. Aren arreba zan gure ama.

Besterik gabe, bereala egin giñun lagun. Baña arratsa aurrera zicken, eta kornetak apaltzera jo zin. Bereala gure lekuetan jarri giñun, ez omen zegola txorakeririk zaitzallee-kin-ta.

Ez uan konten geratu. Gure aldeko be-  
rriak jakiteko irrikitzen zegoken. Baña ixil-  
ixilik bere lekura joan bearra arek ere. Orain-  
dik naiko beta izango genin, urteak geneuzka-  
ken ortarako-ta.

## EGUBERRIAK

Anaiak eskeñitako apari-bazkariak utzita, atera giñun Donosti'tik. Goizeko kapesne utsarekin geundenen, bada. Bide guzian iñork etziguken ezer eskeñi, eta ez dek arritzekoa. Sartu berri auek etzekitek besteak gosetzen diranik ere. Berena egin ezkerro, or konpon besteak. Beldurrak igaro genin San Kristobal'erañoko bide guzia. Ori ditek berena. Batez ere, guardiazibil batzuen eskutik atera ta besteen mende geratu giñanean. Utzi genitunak odol-usaia bazeramaten; artu genitunak ez itun santuagoak.

Aiek, Eguberriak ospatzera joan itun beren etxera. Gu ere bai; baña San Kristobal'era. Etzekit aiek zer izango zuten. Baña gurea baño ohea izaten, ez uan zalla. Egun santu guzian etzin gure urdallak ezer artu: ez jaki, ez edari.

Apal-ordua etorri zanean, bada, bagenekiken ez gendula gauza aundi ta ederrik izango.

Oiartzuarrak alde z aurretik esan ziguk en, emengo arrantxo utsarekin bi urte bizirik iraungo zuenik etzala. Asetzeko aña ez bazi-guten emango ere, gosea zerbait iltzeko aña ekarriko al ziguteken.

Gabonak itun. Orren itxaropenik ere ez geneukaken. Norberak bere patrikatik ez bazuen zerbait erosten, ezer berexirik etzigutela emango.

Jarri giñun, bada, bakoitza bere lekuan, eta bazekarteken bi lagun en artean alako pertza aundi bat gure apariarekin. Aien aurretik igaro zan zaitzalle batek, bai-baizekin lau berri bagiñala etorriak, soldadu-azpil erdoitu bana bere kutxarearekin bota ziguk en, eskuetara bearrean, gure trasteen gañera.

Orduan nik, apal-apal, ogirik ez gendula ta eskatu egin nioken.

— I goizean emen ez engon ezker o, etzaik ogirik tokatzen; eta eskubiderik gabe ez ezer eskatu.

Ta, bere berga zaar aundi ura artuta, jotzeko zemaia egin zidak en.

Nere ondoan zegon napar batek esan ere bai:

— *iBestia, más que bestia!* Goseak dagon batek ogia eskatuta, jotzeko zemaika!

— Ogiaren itxaropenik ez geneukan ezker o, beste zerbait jan litekena ekarriko al zigutek. Bestela, aurtengo Gabonak oroigarriak izango dituk.

Bazekarteken geldi-geldi txerri-pertza aundi ura arkupetik arkupera. Gurera iritxi



zanean, etzekit zer burruntzalikada emango ziguten. Baña zekartenak baño zikiñagorik ez dit nere begien aurrean ikusi. Krakaz beteak zetozen. Aiek berak olakoak zetozenean, nolakoa ote zekarten ontziko jana?

Nerera baño len, ikusten nizkin mortxatu zutenak. Nazkatuak, azpillara bota ziteken aoan artu zutena. Besteak, berriz, kutxarean artu ta lengo lekura botatzen ikusten nizkin.

— Gabon-apari ederren bat diagu, noski -nioken nereki.

Nere ondora etorri zanean, luzatu nioken nere azpil erdoitu ura. Burruntzalia pertzan sartu baño len, arpegira begiratu zidaken, simaurretan muturka ibillitako zerri-mutur gisako arekin, burruntzalikada trinkoa eman edo urtsua, nor nintzan jakiteko. Bere adiskideak burruntzalikada oparoa artuko ziteken. Besteak, berriz, ura. Ori dek emengo legea.

Lenteja uan gure Gabon-aparia. Bota zidaken azpillara. Ura beltz-beltza, epel xamarr. Ogeiren bat lenteja bota bezela, gordiñ-gordiñak, berotu beste gabeak.

— Au ere gureztat al zegon? -nioken nereki amorruz-. Zikiñak etortzea ez uan arritzekoa, zekarten iru aiek baldin baziran sukalde-zaiak. Baña ain gordiñak? Au al da Gabon-aparia? Mandoa bera ere nazkatu egingo uke-ta.

Begi gorriak jarti zizkin jendeak. Ezer iñori esaterik ez. Ixil-ixilik, burua makurtu ta amen. Bestela, oroigarriak izango itun, kezatzen zan arentzat, Gabonak. Ebaki-ebaki

eginta, beeko zulora eramango ziteken. An egon bearko zin luzaroan usteltzen. Ori uan San Kristobal'ko legea.

Lenteja ale aiek etzegoken jaterik. Beren ur beltz ura zurrutan edanta, beste gañerakoa an joan uan komonera. Beren azpillak eskuan, lerroa egiña zegoken ordurako komonetan, Gabon-aparitarako eman ziguten ura ara botatzeko, ordua baño len.

Ogia zutenak, ura bederenik jango ziteken. Etzuenak, barau, guk bezela. Donosti'ko gosari pixarrarekin geundeken.

Asiera bikaña eman genioken San Kristobal'ko bizitzari.

Dirua zutenak ikusten nizkin beste zerbait artzen.

Gasteiz'ko inguruan kuneta zaarren bat austen arrapatu ta bertan epaituak, baitun gutxieneko amarren bat gazte. Aiek, beren ezerezetik, eman ziguteken ogi kozkor bana.

Aien artean zegoken Juan Iglesias, gero Eusko Jaurlaritza atzerrian zegoen arte ango aolkulari izango zana.

Beste mutil aundi bat ere bauan aiekin, arabarra, Araia'koa, ezin ase zana. Gosearen gosez ezin buruturik, ormaren ertz bizia buruarekin jota, txikitzeke zorian zebilleken. Baña bere lagunak etzioteken uzten. Berak ere, noski, itxura ugari. Etzeukaken artarako gogo aundirik.

Aize gaixtoa zebillela, ta zurrinbulluan tximinitik beera sartzen zala, ta etziola suari indarrrik artzen utzi; aitzaki ori jarri ziguteken

sukalde-zai zikin aiek. Denak preso komune-takoak itun. Berentzat zerbait ohea izango ziteken, bai.

Gu baraurik uzteko modua egin ziteken beñepin, eta agintariak etzieteken kargurik artu.

Kristau errian, al duenak al duenetik, kas-tu-beldurrik gabe, oparo zer jan ta zer edan izaten duten egun auetan, aitzaki-maitzaki gu barau gorrian geratu giñun. Olako otorduak geiago ere egin bearko genizkin.

Nere anaia ere etzegoken betekada aundiegiak egiten oitua; baña platerkada lenteja aren aurrean begiak gorriak jartzen zizkin.

— Au dek aparria ekarri digutena, au! —esan zidaken—. Ai zer nolako erraldeak bota bear ditugun, oberik ez badigute ekartzen!

Ni ere ez negoken umoreko, baña ala erantzun nioken:

— Donosti'n, emen baño aukera ohea geneukaken. Baña an ere iru egun baraurik egin genizkin. Emen, lenengo egunetik zerbait ekarri zigutek.

— Ortatik an ere bagenin: ura, alegia, ta au baño garbiagoa.

— Uretik ere etzekit ez ote geran eskasian ibilliko. Mendi-mutur legor ontan etzegok urik. Nonbaitik igo bearko ditek, eta ez dek beti atsegin izango. Alare, neguan ez diagu elur-paltik edukiko. Urtuta, bederenik, andik edango diagu. Ekarri diguten au zikiña dek. Ura bai garbia izango dala.

Aparria joan uan nolako-alakoa.

— Agintariak, eman zigutela esango ditek. Ez bazenuten jan nai, or konpon zuek.

— Urde auek etzigutek irabazten uzten, eta berak eman ez -zioken anaiak.

— Ederki esana -erantzun nioken-. Ortan pentsatu gu zertaz gauzkatzen. Beiekin orixe berbera egiten diagu: ganbela janariz bete; ez badute jan nai, or konpon. Egin dezatela marrru. Aske utzi ezkerro, bilduko litekek, bai, aiek ere sabela nondik bete. Gure nortasuna, beiena baño batere geiago ez dek auentzat.

— Anaiak Donosti'ra eramane duena emen bagendu, gu ezik beste batzuk ere egingo genizkikek zorientsu.

— Auek olakoak dituk, bada. Nondik geiago suprieraziko, ura egiten ditek. Orain arte naiko probak eman zizkigutek.

Azkenetarako, denok lasaitu giñun, eta bearko. Alperrik suminduarekin, ez genin ezer irabaziko. Erdi broman artu ta kito. Bestela, laxter eroriko giñun, gure buruak geiegi estutzen asten bagiñan. Ori uan nere lenengo erabakia: ezerengatik ez galdu guie biotzeko pakerik; dena umorez artu. San Kristobal'en osasunik ez galtzeko, sendagairik onena ori uan. Astoak egiten duena: bizkarrean joagatik, bere artan jarraitu. Emen geiegi estutzen dana, galdua zegok.

Ez al zigukene, bada, aolku orixe bera eman Jesukristok: Pazientzian jasanez, salbatuko dituzute zuen biziak?

Askoren gaitza burugabekoen atsegiña

omen dek. Artaraño ez giñun iritxi. Ikusten nizkin gu baño okerrago bizi ziranak.

Iru malla berexiak zeudeken. Batzuk guri-guriak ikusten nizkin; gizenak, garbi ta ondo jantziak. Auek naparrak itun, eta inguru xamarrekoak. Dirua bazebilketeken, eta etxe-koak egiten zieteken garbitasuna.

Bigarren malla: guri-guri zeudenak, baña zikin jantziak. Auek dirua bazebilkiteken. Baña ez itun inguru artakoak. Berak egiten ziteken beren garbitasuna; ta, San Kristobal'en, garbi ibilliko zanik ez uan.

Irugarren malla: auek txitxarea baño argalago zebiltzaken, eta txerriak baño zikiña-goak. Auek etziteken iñoren laguntzik.

Ikusi nituneko, erruki eman zidateken. Auek geienak komunetakoak itun. Espetxerik espetxe zebiltzanak. Gero itzegingo diagu auetaz. Gure galerian ibiltzen itun, olloak bezela, guk botatzen giñun ondakiñak biltzen.

Lotarako turuta jo zutenean, xaguxarrak bezela ertetzen itun gure galeritik, atea itxi baño len. Ez baiziran gure galerian bizi.

Emen, itxura zuenez, koarteletan bezela, kornetaren bitartez adierazten zizkiguteken gure eguneroko ibillera guziak.

Ordurako, batzuk moldatua zeukateken beren etzan-lekua. Betekada aundiegiagatik etziteken zaldaleak irabazten ibilli bearko. Guretzat, berriz, non etzana moldatzea, ura uan buru-austerik aundiena. Izotza ari zuen arrats artan, non ta nola lo egin? Nola arrats

luze ura, izoztegi batean, manta mear batekin eta lastairik gabe igaro?

Ondarreta'n manta xixtrin ura aski izaten genin. Azpirako ere bai-baigendun lastaira zar bat. Emen ori ere palta diagu. Ondarreta'n, burnizko oatze bat ere bagenin. Emen, ori ere ez. Ormigoï gogor ta otzaren gañean etzan bear. Alde batetik barau gorrian. Bestetik, berriz, zerekin estalirik ez.

Seiak ezkerro, begirik itxi gabe geunden; ta azkenean, asko pentsatu ta gero, ormigoï otzaren gañean etzan giñun, gañetik manta xixtrin ura jarrita. Negon bezela, ormigoïaren gañean etzan, nolabait arratseko otzari gogor egiteko.

Gaberdi aldera, mantari tiraka ari nintzala esnatu niñun. Otzak egoki. Ta bereala, goiko mendi gañetako etxola aietatik etorri uan nere belarrira abots betean eta ozenki:

— *!Alerta el uno! ¡Alerta el dos! ¡Alerta el tres!*

Bederatzitaraño. Ez uan, bada, antxe ere atsegin egongo. Gu baño obeto jantzi ta janak egongo itun. Bestela, an zebillen otzarekin etziteken burutuko.

Gu ta goiko zentinelak baño lasaiago zeudenak baitun San Kristobal barruan. Egundoko oiu ta abestiak entzuten nizkin nik. Gure zaitzalleak ari itun, leporaño edari ta janez beteak, gure orde z Gabon-jaiak ospatzen.

Atzeko gela uts aietako batean jiñasi egin nin. Berriro etzan niñun, goizeko korneta entzun arte. Ez negoken beste alako arrats bat

igarotzeko asmoan. Zin egin nin, egoarte artan andik edo emendik koltxoi baten jabe egingo nintzala.

Turutaren otsera denak zutitu giñun. Gure garbiketak pake-pakean egin genizkin. Gaxo etzegonak, etzeukaken oiean geratzerik. Bestela, norbaitek erakutsiko zioken, an nork agintzen zuen.

Jaiki nintzan orduko, oitura nuen bezela, zer moduzko eguraldia zegon, leiotik begiratu nin patio aldera. Oraindik illun zegoken. Baña au ikusi nuenak, samindua utzi nioken egun guziraiko.

Lau gizon ziaziken zaitzalle baten atzetik. Aiek garai artan ikusita, txarrena pentsatu nin:

— Ondarreta'ko martxa zebilkitek emen ere. Auek iltzera zeramazkitek.

Iru gazte, ta bat zaar xamarra uan. Bereala oartu niñun, an sallean zijoan zaar ura, iru gazte aietako baten aita zala. Besteak bere erritarrak izango itun.

— Lasai, aita, -esaten zioken semeak, bera ere negarrez-. Minutuko oñazerik ez degu izango, ta orduan kito.

— Bai. Nere oñazea ez dek il bearra ta une bateko miña. Nere benetako oñazea i aiz. Askoz lasaiago joango niñuke, ez baengoke i nere ondoan. Nereak baño min geiago ematen zidak ireak: adin ortan eta erru gabe il bearra.

— Guk ere noizbait joan bear degu.

— Bai; baña beste modu batera. Iru illa-bete emen eduki ta itxaropen pixar bat artu

degunean, uste gabean iltzera. Ori ez al dek oñazea? Izan detan guzia etxe txiki ari eman ziot. An zegok munduan maite genezaken guzia. Ta, il baño len, agurtxo bat ari ematerik ez. Eta errugabeak gerala jakinki.

— Gu galduagatik, naiko indarra badago etxean.

— Ez dit ezetzik esango.

Ta ixilik geratu itun. Semeak poztu naitzin aita, onek ere bai semea; baña aien biotzetan etzegoken pozarentzat lekurik.

Alaxe ezkutatu itun aita-semeak. Beste biak, berriz, ixil-ixilik beren baitan bilduak, ordu garratz ura igaro arte. Kupiragarria uan aien gurutz-bidea, ta ori Eguberri-goizean.

Asiera bikaña eman zioteken, pakea ta elkar-maitasuna eskeñiz, gu salbatzera etorri zan Jesusen jaiotegunari.

Aiek ezkutatu ziranean, benetan triste, oiartzuarrarengana joan niñun. Ordurako ura ere jantzia zegoken.

— Eguberri on! —esanaz agurtu nin.

— Baita iri ere, Salbador! —laxter ikasi zizkin arek gure izenak.

— Non dago emen eliza?

— Zer esan dek? —galdetu zidaken arrituta.

— Nun dagon emen eliza.

— Eliza, zertarako? —berriro ere arrituta.

— Eguberri-goiza da ta meza entzuteko.

— Meza? Non bizi aiz i?

— Ez da, bada, geiegi eskatzea.

— Ez al ditek erakutsi, inpernuan ez dala



mezik ematen? —erantzun zidaken serio—. Emen gorputz ta animak baraurik zeuzkagu.

Aoa bete ortzekin aretxek utzi nioken.

— Ez dute orduan mezik ematen?

— Ka! —ori esateko oitura zin-ta—. Ni onera etorri ezkeror, ez beñepin. Illaren lenengo ostiraletan, egundoko kanpai-otsak izaten dituk, nonbait or, patioz kanpo. Baña ori soldaduentzat izango ditek. Igandeetan ez nauk oartu.

— Bear danean ez, ta bear ez danean bai.

— Nik ez dit orrenbeste ikasi —erantzun zidaken.

— Eguberri-jaiei asiera pollita eman diogu.

— Bai; atzotik asita —erantzun zidaken.

— Beste galderatxo bat ere egingo nizuke pozik —esan nioken.

— Galde, galde! Dakidana erantzuteko etzeukat beldurrik.

— Aristian, leiotik begiratu detanean, illun zegon; baña lau gizon ikusi ditut, goiko baituak, zaitzalle baten atzetik nola joan diran kanpora. Aiek nora daramazkite garai ontan?

Goibel-goibel jarri uan gure oiartzuarra, ta ala erantzun zidaken:

— Nora eramango zizkitek? Iltzera. Garai ontan ateratzen danik, ez dek oraindik etxera iritxi. Bost illabete auetan olaxe ari dituk. Iltzeak ez dik emen aterrunik. Eta noiz eta gaur! Etziotek egun aundi oni ere begirunik.

— Lau ziran: iru gazte ta bat zaarra. Au semearekin, noski. Elkar poztu ta lasaitu nairik joan dira. Asiera pollita Eguberri-jaiei.

— Azagra'tarrak izango itun. Len ere bereak eta bost egiñak dizkitek, bada, an. Ez dek oien artean beste aita-semerik. Aspaldian or zeudenak gañera. Oiek il dituztelako, ez arritu besteren batzun billa biar goizean ez ote diran beste sallekook etorriko. Olaxe zebiltzak rekete ta falanjistak, elkarren leian.

Sumindua geratu niñun. Eliza zaitzera atera ziran auek, oraindik gizon iltzen ari bairiran. Apaiz bat ere etzegoken. Ainbeste preso, pagano batzuk bezela zeuzkateken. Jakiña, gu Donosti'tik joan giñun. Guk sinisten genin. Baña ar-zulo artan bizi ziran geienak, ez. Alare, apaiz batentzat naiko lana bazegoken an.

Ni arekin izketan ari nintzala, jo zin turuta, gosaria zekartela adieraziz. Oiartzuarrak ala esan zidaken:

— Oa lenbailen ere lekura, bestela ogirik gabe utziko iñuteke-ta.

— Ederra izango litzake ori, jan litekenik ori bakarra emango digute egun guzian-ta.

Laxterka joan ta jarri niñun nere lekuan. Ogi-opil biribilla, beroa oraindik, eskuetara bearrean, lastaira gañera botatzen ziteken. Ez itun eskura ematera piatzen, norbaitek bat baño geiago artu etzezan.

Luzatu nioken nere azpilla, eta etzekit zer bota zidaten. Urdinxka iruditu zitzaidaken. Ura askoz geiago, esnea baño. Zopak egin

baño len, bada ez bada probatu nin, jan ziteken edo ez jakiteko, alperrik ogirik ez nezan galdu. Ain gexa zegoken, etzeukaken ezere gustorik. Txurrutaka edan nin, beroa zegolako, ta ogia gerorako gorde. Alako erderazko esaera ura gogoratu zitzaidan: Benetako gosearentzat ez dago ogi gogorrik.

Bereala patiora erten niñun. Orma zegoken. Baña alare, gazteak izaki, ibillian-ibillian berotu giñun.

San Kristobal'ko patio au, zerekin berdindu gentzakek? Gure errietako pelota-plazaren itxura zeukak. Gure pelota-plazak iru orma dizkitek: aurrekoa, atzekoa ta ezkerrekoa. Eskubia libre. San Kristobal'ko patio onek bere eskubia ere ormaz itxia zeukak. Ormik txikienak ere badizkik amabost bat metrotik gora. Lauki bat dek, baña luzera askoz geiago, zabalera baño. Eunen bat metro gutxieneko luzera, zabaleran ogeitik gora ez dizkik izango. Azpian, arri urdin beltza, altzairua bera baño ere gogorragoa. Amaika atzera-aurrera egingo zizkiteken, gu joaterako. Ta guk ere bai gero. Baña oraindik ondo legundu gabeko arria zegoken. Bi aldeetan espaloi-antzekoa, baña ormigoiz egiña.

Patio ortan ibilliko giñun goiz ta arratsalde, eguraldi ona zan guzietan, atzera ta aurrera. An etzegoken aulki edo zizillurik esertzeko. Etziteken uzten. Zaarrak ere, gazteak bezela, sarrerako turuta jo arte, txutik eta ibillian. Ori geneukaken agindua.

Orma-arte artatik, ez genin, ainbeste urtean, zerua besterik ikusi.

Patioan aurrera-atzera genbiltzala, esan nioken anaiari:

— Badakik bart nolako arratsa igaro degun, eta ez nitek beste alako bat pasa nai. Koltxoi ta manta bana eskatu bear zizkiogu, barruko serbizioen buru dagonari. Zer iruditzen zaik iri?

— Ik nai dekana egin. Baña ez nerekin kontatu. Oietatik, zenbat eta urrutiago, orduan ta obeto biziko gaituk.

Donosti'tik joan ziran beste bieie ere esan nieken zer asmoak nitun.

— Motell, bergazoren batzuk irabaziko dituk, eta orixe izango dek emango diteken saria. Gurekin beñepin ez kontatu.

— Ez dezute sinisten. Eskatu ta emango zaizute, zioken Jesusek.

Eta, txuxenean, bera egoten zan lekura joan niñun. Bezperakoa zakar itxurakoa uan, baña mazala zirudiken. Bere egin bearrak gauza guzien gañetik betetzen zitun oietakoa. Beste bat zegoken orain, *Mitxelin* esaten ziotena.

Oñak eta eskuak neskatx gazte batenak zizkin; burua, parregarrizko txikia, bizarraren izpirik gabea. Arpegia, emakume batek bezela, txuri ta guria. Sabel-uztaia, berriz, bi metro inguru bai. Orregatik esaten zioteken *Mitxelin*. Emakume edo gizon egiten asita, ez bat, ez beste, erdian geratua zirudiken. Gilbor

aundi ura kendu ezkeru, ura ez uan berrogei ta amar kilo.

Ni joan nintzanean, bada, bezperako mozkorra ezin egosirik ari uan. Eskubi aldean, koñaka botella zeukaken, neurri txikikoa, erdi ustua. Itxura zuenez, esnatzen zanean, tarteka-tarteka bere txurruptxoak egiten zizkin. Orduan, beñepin, zearo lo arrapatu nin, azpiko ezpaña luxe, xigarro-mutur bat an erantsia, baña itzalita. Buruari gora-beera eragiñaz, lo-kuluxkaka ari uan. Ori dena kristaletik ikusi nin, patiotik begiratuta.

Ura artara zegola ikusita, beldur ematen zidaken atea jotzeak. Zalantzan egon niñun, aurrera egin edo atzera. Oien aldarteak beldurgarriak izaten dituk. Atea jota esnatzen zanean, zer nekiken nik nola jarriko zan? Alare, aitaren egin ondoren, «eskatu ta emango zaizute» oroitzuz, jo nin polliki-polliki atea. Geienez ere, bergazoren batzuk emango zizkidaken, eta ez itun izugarriak izango.

Nik atea jo nuenean, koñaka botella maipen ezkutatu zin. Zigarro-punta ere, ixtua bezela bota zin aidean. Bere burua dotoretu zin eta, ezer gertatzen ez balitz bezela, kristaletik begira geratu uan. Eta orain bere esnaera, alaia edo samiña izan, egiña zegoken.

— *Adelante* —esan zidaken goxo-goxo.

Sartu niñun apal-apal, begiak lurrera nitula, ta:

— *Buenos días, señor* —esan nioken gizon ospetsu bati bezela.

Goitik beera, beetik gora, zearka, aurrez ta atzez neurtu ondoren:

— *Igualmente* —erantzun zidaken—. *¿A qué vienes tú aquí?* I ez aut ezaguna. Noiz etorria aiz? —galdetu zidaken zorrotz-zorrotz.

Nik apal-apal esan nioken, nola atzo etorri nintzan; ez gendula ez lastaira ez mantik; aiek eskatzera nentorrela; berdin Donosti'tik San Kristobal'era alde aundia zegola; emen otz egiten zuela benetan.

— Emen otz egiten duela ez didak ik erakutsiko. Nere larruan ederki ikasia zeukat ori —berriro ondo arpegira begiratu.

Orduan esnatu uan gure *Mitxelin*:

— Aaa! I atzo Donosti'tik etorria. Beraz, Gora Euskadi'tarra. Gixaixoak, aleenak! Zuek ez dituzute amets txarrak egin! Euskadi? Zer dek Euskadi ori, zuen buruko amets bat besterik?

Amar bat minutuan, oraindik iñori entzun ez nizkion astakeririk aundienak entzun nizkioken. Ura, Euskadi'ko arazoetaz, zearo baraurik zegoken. Arek etzekiken ezertxo ere, ez guk zer eskatzen gendun, ez zer nai gendun.

Nik beti, arrazoi balu bezela, buruarekin baietz esaten nioken: Ik nai dekana esan zak, baña emaidak eskatzen ditena.

— Bai, gixaixoa, bai! —esan zidaken bukatzerakoan—. Gaurtik aurrera obe dek *¡Arriba España!* esan, Gora Euskadi'ren lekuan. Berdin zuen Euskadi'k laxter dizkik azkenak.

Ta bat-batean, asarre bezela:

— Zertako etorri aiz neri eskatzera? Ez al zegoken bitartekorik?

— Orra! Esnatu dek gure artza. Nere itxaropenak joan dituk —esan nin nerekiko. Baña, alare, ez nin etsi. Apal-apal, ala erantzun nioken:

— Bai, jauna, Ori ala da. Baña bitartekoak beti luzatu egiten dute, eta eskatu ere bai zerbait, mesede bat egiteagatik. Baña zuzen eman lezakenak, ez.

— Ondo pentsatua. Pozten nauk, aita bati bezela, beldurrak erabat utziz, zuzen eskatzera neregana etorri aizelako. Baña zuek, etziñaten lau etorri?

— Bai, jauna, bai. Lau etorri giñan.

— Non geratu dituk, bada, beste irurak?

— Aldaketa onekin zearo eroriak daude.

Nere artean ala nioken:

— Gure arazoa ondo ziek. Ez dik gaizki artu.

— Bai. Ez dek arritzekoa. Beren etxe ingurutik urrundu bearra. Baña oa lasai. Zuek patiotik sartu orduko, or dituk eskatutakoak, etxeak jarri bear baiditu.

Beste gabe biali nioken.

Andik atera orduko, anaia ikusi nin ekonomato edo *tragaperras*'en. Geienak ala esaten zioteken. Lerroan jarria zegoken, zerbait erosteko asmoan. Txuxenean beragana joanta, ala esan nioken:

— Emen egoteko, nork eman dik dirua?

— Odriozola edo oiartzuar orrek. Jakiña, gero ordaintzekotan.

— Bejondaikela, motell. Ekatzak diru ori ta orain ni jarriko nauk.

— Eta ezer iritxi al dek?

— Bai, motell. Eskatutako guzia. Aita batek bere semea bezela artu niok. Gu patiotik sartu orduko, or izango ditugula, agindu zidak.

— Orixe egia bada, gure esker onak merezi dituk.

— Ez dit uste gezurretan aritu zaidanik. Bitartekorik gabe zuzen beragana joan naizelako, ez dakik zer atsegin artu duen. Mozkorrara ezin egosirik ari dek, eta, gure zorionerako, aldarte onak eman zio.

Anaia, lerroan otzak zegona, egurastera joan uan, eta ni jarri niñun bere lekuan. Mermelada-ontzi bat artu nin, besterik ezinta. Eman ziguten gosariarengatik, zerbaiten bearra bagenin.

Gu etxera sartu orduko, lau komun, etxe-ko serbizioan langille bezela zeudenak, berea-la ikusi nizkin nola zetozen, laurak lastaira ta manta aundi banarekin. Soldaduzkan ibiltzen dituzten manta lodi oietakoak. Gure Eguberriak zerbait goxatzeko, ez itun gaizki etorriko. Orduan ala esan nioken nere anaiari:

— Eskatu ta emango zaizute. Ikusten al dituk oiek?

— Bejondeikela, motell. Egitan ari uan orduan?

Atetik banaka-banaka deituta, artu zin ba-koitzak berea. Eguberri-jaiak bere alderdi txarrak bazizkin; baña bai onak ere guretzat. An



egon nintzan bost urte aietan, ez nin geiago *Mitxelin*'ekin itzegin.

Esan bezela, ekonomatuan mermelada-ontzi bat erosi nin; ta, Eguberriak igaro arte, uraxe genin ezer berexirik. Etxetik diru pixar bat biali arte, oiartzuarrak emanarekin konpondu bearko genin. Oraindik, beñepin, etziteken jakingo non bizi giñan, ez bazioten anaiari esan.

Otza ta gosea izan itun emengo Eguberriak. Eta, bukaerako, uste gabeko bixita bat.

Urteberri-egoartean bagabiltzaken betiko gisa patio estu artan pasian. Korneta jotzen zuenak, izen dotorea zeukaken: *Panparacuatro*. Arek oiur egin zin, gu bi anaion izenak aipatuz.

Zer gendun galdetzera joan nintzanean, ala esan zidaken:

— *Tenéis visita*.

Nor ote dator oneraño? Ez genin ametsik egiten ere, nor izan ziteken. Illunpetatik argira azaldu giñanean, arrituta geratu giñun: aita zegoken gure zai, beste bere illoba batekin.

Ortan pentsatu nolako Eguberriak pasako zituzten etxean, gu Gabonetan etorri ta Urteberritarako aita an azaldu zanean. Aiek etziteken sinistu, Donostia'n esan ziotenik. Egiazan edo ez jakitera etorria aita.

Triste azaldu bazan, ez uan alaiago joan. Itzik erderaz etzekina ta gu geunden bide oietan egundo ibili gabea, bere illoba batek egin ziokeen itxu-aurreko. Baña orduz fuera ikertxo ori egiteko baimena, len San Markos'en egon-

dako kapitan batek iritxi zieken, eta oiek lan auek ez dizkitek duan egiten. Ari ere zerbait eman bearko zioken. Illobak ere itxu-aurreko egingo zioken. Baña aren joan-etorriak eta bazkariak aitak ordaindu bearko zizkin. Ez uan aitarentzat bixita ura oso merkea izan.

Aiek an ikusi giñuneko, Donosti'n uzten ziguteken eta gu euskeraz asi giñun. Bestela, nola itzegin bear genioken aitari, besterik etzekiken-ta?

Guk zer itzegiten gendun, gure zaitzalle zegona goxoa jarri uan. Zezen batek bezela jaso zin burua, gu euskeraz nabaitu giñunean.

— *Hablen ustedes en cristiano. O, si no, márchense de aquí.*

Nere anaia ta aita ixil-ixilik geratu itun, eta nik itzegin nin nere lengusuarekin. Pastel batzuk ere ekarri zizkitek. Baña etzioken guri ematen utzi. Paketeak sartzea galerazia baizegon. Alare, bizi giñala. Orrek atsegin aundia emango zioken. Personak al giñun, bada, gu? Gero, gizonen eskubideak, oiuka ariko dituk.

Gure deabru arek txalo jo zuenean, eskua-rekin agur egin, bai, ta bakoitza bere lekura. Aiek, askatasunera. Gu, berriz, porra zaar aundi ura eskuan zeukan zaitzalle maltzur aren atzetik, igesi dijoan txakur bat bezela, txulora.

Errenderi'tik San Kristobal'eraño joan, Jainkoak zekin bezela, bere semeekin bost minutuan itzegitera; ta erdian zegon buru-aundi arek euskeraz etzekilako, itzegin gabe

etxera. Ori izan uan Eguberri-jaien azkena. Gaizki asi eta okerrago bukatu. Geroztik, ia lau urte luzetan, iñork etzin gure aitik San Kristobal'en ikusi. Bizi giñala bazekiken, eta bizi dana nonbaitik azaltzen dala. Alare, diru pixar bat utzi ziguteken, eta bagenin gure oiartzuarrari ordañak emateko modua.

## GURE BIZITZA

Nik San Kristobal'i, inpernu txiki baten antza artu izan ziot. Mendi-muturrean bakarrik, gizartetik berex, utzia, baña jendez be-tea. Bertako agintarien mende, iñor ez uan ara, zer gertatzen zan azterketa bat egitera igo. Bestela, bertakoak bezin billaua, ez ikusia egingo zin. Agian diru pixar batekin erosiko ziteken, eta: Or konpon zuek! Bere eginkizunak kontzientziz bete nai dituenak, ezin leza-kek ango martxa zuzendu gabe utzi.

Gañetik zeuden agintariak beren eskutik utzita, bertakoen mende zegoken, gu joan giñanean, San Kristobal.

Bertako zuzendariak prestuak izan balira, gu ondo biziko giñun. Baña deabruak itun, batzuen batzuk beñepin. Txakurra izan edo gizona, aientzat berdintsua uan, gero ikusiko degun bezela.

Gizon gazte kankallu batzuk zeudeken zaitzalle, gu zigortzeagatik ondo sarituak. Ai-

tortu bearra zegok auetan bazirala onagoak eta gaiztoagoak. Batzuk ondo ulertzen zitezken, ezin zitekela gizonik artara eduki. Askotan zigortu bearrean, ez ikusi egin ta joan egin itun. Baña baitun tartean, batez ere azken orduan sartu ziran politikoak; auek askotan arrazoi billa ibiltzen itun mendekoak zigortzeko. Ta zenbat eta zuzenago bete beren egitekoa, orduan ta maiteagoak zizkitek.

Oien doñura guk dantza egin bear. Bestela, an zeudeken banaka-banaka aukeratutako mutil kankallu aiek, porraren bidez zer egin bear gendun erakusteko.

Auek eskubide oiek zeuzkaten ezkerro, ez nauk batere arritzen, emen gertatu ziranak gertatzea.

Elizak ere bere eskutik utzia zeukaken. Ia urte guzian ez uan apaiz bat azaltzen. Orduan, ia preso batekin itzegin gabe, ta ikusi-mukusi bat egin eta joango uan. Okerrena, berriz, iñor etzala piatzen, gure egoera larriaren berri ematera.

Etzekit Elizak zer eskubide edukiko zitu. Iruña'ko Gotzai jaunak alegiñak egin zituela San Kristobal ixteko, ori bazekiagu. Baña etzin iritxi.

Lenengo ostiral batean joan giñun, erdi beartuta, mezetara. An entzun nituenak entzunda, ni ez niñun geiago azaldu. Gaizki egin banun, Jainkoak barka zaidala.

Bere itzaldi biurrian, orduan bete-betean zegoken guda eta igerleren batek bezela ala esan ziguk:

— Jainkoak gure lan onak eta txarrak astailuan pisatu ditu, eta txarrak askoz astunagoak ziran onak baño. Beraz, odol geiago dago ixuri bearra, Jainkoaren asarrea apaltzeko.

Gero arte! Esan bezela, ni ez niñun mezetara joan. Ori, kapilla txikian ematen ziteken beren soldaduentzat. Presoentzat egundo ez.

Dana dala, au, beñepin, naiz Jaurlaritza naiz Eliz, denen eskutik, bertako deabruen mende utzia zegoken. Ala etorri itun, gero gertatu ziranak.

Neretzat inpernua ez dek besterik: Jainkoaren eskutik utzia, iñori ezeren onik opa ez dioten deabruen mende. Emengo kankallu batzun antzera, oien atsegiña zigortzea uan.

San Kristobal'en, ilkorrak giñala ta iltzen zirala. Zoritxarrez, ez gutxi. Inpernuan, berriez, illezkorrek dituk.

Ixkanbillen bat sortzen bazan, ikustekoa uan zaitzalleen zoramena. Errudunak izan edo ez, zaarrak edo gazteak, laxter zin burutik beera porrazoa, isekik lotsagarrienak egiñaz askotan aita ta amaren aurka. Ta dena, burua makurtuta jasan bear. Bestela, erantzuna ez uan goxoagoa izango. Ez itzez emana ere. Il, ori ezin ziteken. Beste gañerako guzia, bai.

Patioan egurasten gabiltzala, ikusten nizkin zigortuak, gazteak eta zaarrak ere bai, ume txiki batzuk balira bezela.

Ezkerreko eskuarekin lurra jotzen zuela, eskubiarekin ezkerreko belarriari eldu, antxe, gañetik, sua zeriola, eguzkiak kixkaltzen zue-

la. Zaarrak baziran, askotan erori egiten itun. Orduan, zigortzalleak ostiko bat ona emango zioken atzetik, birao zikiñen bat esanaz, eta egurastera bialiko zin. Azkena sartutako amasei-amazazpi urteko ume mukizuak itun aitonen zigortzalleak.

Arrokeri ona zebilkiten. Ez beren indarrean. Konpañi osoa zegoken goien, ezer gertatzen bazan ere, indarrez konpontzeko.

Leku ontan eta auen mendean, joan uan lau urtean gure bizitza.

Jeiki, goizeko seietan. Lenengo illabetetan, ez uan zailtasunik izan gure garbiketak egiteko. Baña ugaritu giñun, eta egunetik egunera geiago zekarzkiteken. Bereala asi itun eziñak. Askotan, batek aurrea artu ziola ta etziola, mutur-jokak noiznai. Jendea errea zegoken, ez len artara oituak, eta pazientzitik atereaa, txanda ezin arrapatuz.

*Bergaretxe*'ren bat azalduko uan. Biak ebaki-ebaki egin, ta, pakean uzten bazien, gaitz erdi. Askotan, beeko zigor-gelara eramaten zizkiteken. Ura bai zala inpernu berbera. Txuri askoak ateratzen itun andik.

Ori ez uan aien errua. Errextasunak izan bagenitu, ez giñun ainbeste berotuko. Baña guk artu bear ordañak.

Gero, gosari-lege bat ekarriko ziteken: ura esne pixar batekin naastua. Arek etzin ezeren gustorik. Ain gexa uan. *Tragaperras*'en salgai zegoken, ordea, azukre aukera. Gosalduko bazuen, diru pixar bat zeukanak erosi egin bear, eta urrearen truke guri tokatzen zitzai-

guna. Gure *Artzak* bazekiken, bai, dirua nola egin. Argikumeak baño, illunkumeak geia-goak dituk ortan.

Ondoren, patiorako deia. Binaka-binaka aterako giñun. An «*iRompan filas*»! esaten zigutenean, diru pixar bat berekin zeukana, arrapazka *tragaperras*'era. Lenengo ogeiren batek ogia erosteko modua izaten baizuten. An ere asiko itun iskanbillak. Bai *Bergaretxe* aguro azaldu ere. Zartako batzuk emanaz, eta «*iCalma, calma*»! esanaz, azkeneko jarriko zizkin, eta ori gaitz erdi.

Beste zaitzalleren batek etxe barrua ondo aztertuko zin, ea iñor oatzean geratu ote zan ikusteko. Bere izen-abizenak artuko zizkio-ken. Sendagilleak, etortzean, etzuela ezer esaten bazion, bereak artu gabe ez uan geratuko.

*Engañatablas* uan ortan iaioa. Izen ori an jarri zioteken. Pauso bat emateko, oiñ bat zabaltzen zin, eta, bestearen ondora biltzera-koan, bi edo iru olen gañetik igaroaz, emen jarriko zin, noizbait baten gañean atsedeten zuen arte. Ori uan ortan gaixtoa.

Amabi-amabitan barrura sartuko giñun bazkaltzera. Gosaria, ordurako, orpotik atera ta joana.

Partitzallea betikoa izaten uan, eta betiko lana egiten zin: adiskideei trinkoa emango ziken; besteei ur utsa. Besterik etzeukana, bapo zegoken. Etzeukaken gilborra azitzeko beldurrik.

Lo-xuxta lege bat, egin nai zuenak; eta pa-



tiora berriz, eta *tragaperras*'era laxterka, goizean artzeko egokierarik ez bagendun izan.

Etxera sartzean, merienda lege: ontza txokolate izenekoa. Baña ain mearra, argia pasatzen zitzaiokeen batetik bestera. Gure Manterola *Milimetro*'k -ala esaten zioteken txikia zalako, iñoizka etortzen baizan San Kristobal'era- etzeukaken negozio txarra, txokolate egillea bera zan-ta. Gero, barruan geratuko giñun, garbiketarik egin nai zuenik bazan edo ez.

Zortzietan apartari lege bat eginta, bederatziak aldean oiera.

Ori izan uan San Kristobal'ko gure bizitza lau bat urtean. Egun guzian ezer egitekorik ez eta denetara presaka.

Beste oitura amorragarri bat ere bagenin, igesa arte beñepin. Preso komunak zeudeken ofizina guzietan. Aiek agintzen ziteken. Aiek zeuzkateken gu baño maiteagoak. Dena aien eskutik etortzen uan; joan, berdin.

Beti purrustaka, beti gaizki esaka, aspaldian espetxean oituak, ango ezkututa tranpa guziak bazekizkiteken, eta ango zaitzalle lizunnen batzuna adiskideak. Geienak, lapurretatik zeudenak. Erne ibilli bearra zegoken aien artean.

Alare, denetan okerrenak *chivato* edo salartariak itun. Aien bitartez jakiten ziteken zaitzalleak, guk zer esaten gendun eta zer egingen gendun. Oiek, besteak baño obeto jantzi-ko itun. Jan ere, ala egingo ziteken, noski.

Sendagilleak, bat baño geiago etortzen

itun. Jakiña, gaur bat, biar bestea. Ez alperrik! Arek agintzen zuenik ez baizuten ematen. An zegoken *Artza*, ori dena mozteko. Onetzaz itzegingo diagu gero. Onek ala zioken:

— Sendagai oiek erosi nai ditunak, aukera bazeukak ekonomatuan.

Sendagillearean aginduak, bada, aizeak eramaten zizkin. An, denen gañetik, orduan beñepin, *Artza* zegoken. Onek agintzen zin denakin.

Urrengo egunean, etorriko uan sendagille ura bera, ta gaixoa okerrago arkituko zin. Agindu zuen sendagaia artu al zuen, galdetuko zioken.

Etziotela eman, betiko erantzuna.

Itz bi egingo zizkin laguntzen zion zaindarekin, eta ez uan sendagille au geiago etorriko. Baña gaizki egiña. Gizona bazan, salatu egin bear zin.

Azkenean, *sal de higuera* ta aspirina besterik agintzen etzuen, gazte arroxko bat geratu uan.

Tifusen aurka tarteka-tarteka ematen zizkiguteken ziztakoak. Aiek ere duan etorriko itun onera. Baña ortik ere gure *Artzak* ateratzen zin bere negozioa.

Ogia kentzen ziguteken, eta ordez ur-esne pixka bat eman. Ogia uan zerbait balio zuana. Ura kendu ezker, baterez bezela.

Arrats gaixtoak igarotzen zizkiteken batzuk. Baña neri etzitzaidaken egundo itsatsi. Anaiari ere ez dit uste. Baña batzuk errukia ematen zidateken.

Iruña'tik etorriko uan sendagille bat. San Kristobal'en, berriz, ogei bear ta ere, egongo itun preso, pratikante oiek kontatu gabe. Gu lerroan jarriko giñun, gure atorra buru gañera jasota, ori zuanak. Garbiak arrapatuko zizkin gure gorputzak, ainbeste urtean urak ukuitu gabeak. Seiren bat asiko itun akulluan eztenka. Beste seiren bat orratzak sutan pasa ta betetzen. Bereala, egun gutxian bukatzen ziteken lau bat millaren lana.

Len esan detanez, emen ere *Artzak* egiten zin bere jokoa. Ez omen zala jatea komeni. Jaten al genin? Eta ogia kendu. Guk egiten genitun otorduak, etziguteken sukar aundirik emango, ez.

Urtean bi edo iru ziztako emango zizkiguteken.

Gaixotegia izena zuen olako bat bauan San Kristobal'en. Baña, zoritxarrez, lapurren mende. Dirurik ez bazeukan ara zeramaten gaixoak, urrengo egunerako anakaz aurrera zieken. Izan ere, azken orduan, iltzera igotzen zizkitekenta.

*Artzak* bere gisara manejatzen zin ura ere. Bein ara eramaterako, beren oatzean azkentan zeudeken. Jendearen aurrean ez iltzeagatik zeramazkitekenta ara. Baña dirua bazeukan, aiek kendu arte zainduko ziteken, eta egun batzuk geiago iraungo zizkin. Baña onen atzena ere beartsuaren antzekoa izango uan: anakaz aurrera atera bearra.

Ni bein igo niñun. Jaunari eskerrak, ez gaixo. Espetxeko bost urte oietan, nik ez nin

katarro ta buruko min bat ere arrapatu. Non-bait kasta gogorra izaki. Gaixo eta etsipena emana zegon tolosar txiki bat ikustera joan niñun. Biriketako gaitzak josia zegoken. Ez nioken noski ezagutu. Bigarren egunerako egin zizkin mundu ontako lanak. Zearo nazkatuta atera niñun andik, eta berriz joateko gogorik gabe geratu.

Urrikalgarria uan, ara igo ta an bere egunak bukatu bear zitun gaixoa. Odol-moltso ziatuak ikusi nizkin komon aietan, batere garbitu gabeak. Zikiña ta utzia dena. An gaixozai zeuden geienak, lapurrak itun; ta gaixoari baño, diruari geiago begiratzen zioteken.

Arrunt utziak geundela etzegok esan bearrrik. Ez Jaurlaritzak bakarrik; baita Elizak ere: ez apaizik, ez mezik. Eta an bageundeken, igesa orduko, berreundik gora, aske geundenean iganderoko mezik utsegiten ez genduenak. Nere iritzi apalean, berreun sinismendunek apaiz bat merezi ditek.

Illaren lenengo ostiraletan entzuten genizkin egundoko kanpai-otsak; eta askotan, *trágala* egiñaz, lenengo arrapatzen zituztenak aurrean eramaten zizkiteken. Baña au ez uan apaizaren errua. Igande ta jaietan, ezer ez. Eraspena, agindua baño len. Ni joan niñun bein; baña an entzun nuenarekin, berriz joateko gogorik gabe geratu niñun.

Bat baño geiago il itun gure inguruan txakur bat bezelaxe: utziak. Jakiña, Elizak ere militar auekin erne ibilli bearko zin.

Neguak, otzak egiten zizkin zearo. Aste

osoak igarotzen genizkin patioan jela gañean edo elurretan. Noiznai egiten baizuen. Bein, iru egunean etenik gabe elurra egin ta egin jardun zin. Illunabar batean, ozkarbi geratu uan; ta, goizean patiora erten giñanean, arria baño gogorrigo zegoken elurra, eta belaunetik goragokoa egiña. Etzekit zenbat egunean ibilli giñan gu, azpiko arririk ukuitu gabe, orma gañean egurasten.

Ogirik jango bagendun, bein baño geiagotan atera giñun presoak bidegitera gure pala ta guzi, eta beetik zetozenakin topo egiten genin. Automobilletik zaku ogiak artu ta arzulora.

Neguko elurteak beldurgarriak itun emen beti. Iruña bera ere otza dalarik, San Kristobal'ko gure ar-zuloa, berriz, milla metrotik gora egongo dek. Inguru guzian beste mendirik etzegok. Orrek etzeukak leku babesgarririk. Bera xoil ta bakar geratzen baita, neguko enbaten zurrinbulluetan ez uan atsegin izaten. Aizea ormatua sartzan zaiguk. Asteak igarotzen genizkin, bada, guk orma gañean. Askotan, berriz, ura urtu baño len etortzen itun berriak.

Udaran, leku kixkalgarría. Zulo-zuloan baidago. Baña alare eramán errexagoa. Berandu sartzan uan onera eguzkia, ta laxter urrundu ere.

Ekarri ta ekarri, igesa ordurako bete-betea zegoken gure espetxea. Ziur esateko etzekit zenbat; baña lau millatik gora, noski. Errex esaten dana dek ori. Basarmortuan, inguruan

erri bat ere ez, arkaitz-zulo ontan lau milla bizi giñala esatea ere... Oiek denak oneraño ekartzeak ere bere lanak badizkik.

Guk aldizka izaten genizkin bixitak: Iruña'n soldadu zegon anaiarenak, eta etxetik ere iñoiz etortzen baiziran. Baña beñere ez aita. Betiko eskarmentua sartu zioteken. Gure lagunak ere noiznai azaltzen itun. Azkenean geiegi, Iruña'ko militarren iritzian eta San Kristobal'ko zaitzalleen lasaitasunerako.

Iruña'ko neskak asi itun, sailka-sailka, ostegunero emengo erropa zikiñak zaku batean eraman ta urrengo ostegunean garbiak ekarri. Etzieken buru-auste gutxi ematen orrek, gorrien enda errotik moztu zutela esaten zutenai. Bein guda urrundu zanean, lasaitu itun.

Donosti'ko emakume aberats batek, erropa, batez ere txuria, barrukoa, biali omen zin Ondarreta'ko baituentzat. Gobernadore zego-naren ezaguna uan, ta onek serio xamar ala esan omen ziokeen:

— Elitzake ori, aurrean dabiltzan soldaduentzat gaizki etorriko.

Bai onek ederki asko erantzun ere:

— Aurrean dabiltzan soldaduei, eraman dezaiela Franco'k.

Asi itun, bada, beldurra galtzen. Iruña'ko neskak etortzen ziranean, alaitasun bat ematen zioteken San Kristobal'i, guk barrundik ez bagenitun ikusten ere.

Gotzai jauna asi uan ortan. Arek mugierazten zizkin.

Au dena, igesa bitarte.

## ZIKIÑA

Zikiña uan gure suprikizun aundienetako bat, eta garbi bizitzeko modurik ez. Ez baigeneukan ezertarako ere aukerik.

San Kristobal'en sartu nintzan arratsean bertan, nere sudurrak nabaitu ziteken alako usai gaixto bat. Ez nekiken orduan nondik zertorren. Baña galdezka ari bearrik ere ez nizan: urrengo goizean komonak ikusi nitu-nean, an zegoken usai gaixto guzi oien lekua.

Amarren bat komun baitun orduan. Geunden jendearentzat naikoak, gure galeria oraindik erdi utsa zegoken-ta. Baña erditan urik ez. Zearretan ortxe metroren bat luzeko orma bazeukateken. Aurrean baterez; zearo irikiak.

Gu ez geundenen jauregi eder oietan oituak; baña beti ere txukunago bai, eta lotsa geixeagorekin eziak. Komun itxiakin, alegia. Alare, gu laxter oitu giñun.

Baitun larriago ibiltzen ziranak: aundizki

jende oiek, illundu arte ezin buruturik. Dennen aurrean ara joatea lotsatu egiten baiziran. An lotsak bota bearrak, berriz. Ez baizegon aukerik. Bat erruten ari zan bitarte, bestea zai aurretik begira egon bear, arenaren gañera be-rak ere erruteko.

Askotan, sator-lur pillak ziruditeken. Baña sudurrak laxter jabetzen itun beste ori zala. Ara sartzen zanak, oñetakoak ezik, beste zerbait ere zikintzeko arraixkuak bazeuzka-ken.

Alegiñak egiñagatik, aiek garbiak edu-kitzerik etzegoken. Ezta munduan dan ema-kumerik txukunenak ere, zerekin etzegoken-ta.

Arratsean, leioak itxita jartzen giñanean, usai goxoak zabaltzen itun andik galeriaren azkeneko muturreraño.

Alare, naikoak baitun ordurako. Baña ge-rrora ez. Ez geundenen komon eskasian. Baña urik etzeturren garaian, nazkagarriak itun.

Ura Artika'tik igotzen ziteken bonbaren bidez. Orrek noiznai bazin matxura: edo in-darrrik etzegola, edo tximistak ondatu zuela, edo motorrak berak indarrrik etzeukala, or-duan izaten genizkin ixtilluak. Edateko ere urik ez.

San Kristobal'ek, bere azpian, mendi-pean egindako ur-zulo edo osin batzuk badizkik. Ango atea zabaltzen zizkiteken orduan. Te-llatuko euritik betetzen zan osiña. Ez aize, ez eguzkiak u ukuitzen etzuen. Ur urdin-beltz bat, ustela. Andik artzen genin edateko.



Amaika tripako min ematen zigun ura. Gure agin ta ortzak ere ez genizkin gutxi ondatu, beti geldian zegon ustel arekin. Erropa garbitzeko, andik zeukateken jarria ura. Txarra zala bagenekiken; baña bizia lenengo.

Ori bera ere ez uan nolanaiko suprikizuna: asteak eta asteak agiñeko miñak. Sendagairik ez, ateratzerik ain gutxi.

Erropa eskaxia. Aiek ere ez itun betikoak. Ixtilluak ibilli genizkin orrekin ere, eta ezin ausartu etxera eskatzen. An ere naiko lanak izango zizkiteken. Espetxean eskatzea, berriz, alperrikakoa uan. Arrazoi txarren bat emango ziteken. Aldarte txarrean bazegon, jipoiren bat berdin. Ijito batzuk egiñak genbiltzaken, eta iñor ez uan arritzen, geienok orren premian genbiltzaken-ta.

Erropa garbitzeko, bada, oso gaizki ibiltzen giñun. Egokierarik ez, jendea baizegon gañezka. Zerekin garbiturik ain gutxi, ura besterik. Jaboia bazegoken salgai. Baña garesti ta buztiñarekin egiña. Alare, zikiñak etziguken miñik ematen. Goseak bai, ordea. Geienok naiago genin, geneukan dirua, garbiketarako baño, jateko kastatu. Erropik ez bada egosten, alperrik dituk jaboia. Zorriak bere artan bizi-bizirik geratzen dituk.

Zorria baño animalia zikiñagorik ez dek. Ez nin nere begien aurrean ikusi nai. Baña, onera etorri orduko, leporaño bete ta Orduña'ra arte ez giñun garbitu. Askotan, jaten ari giñan azpillara eroriko itun burutik edo jantzitik.

Arratsean ezin burutu. Bein berotu ezke-  
ro, zorriak ez dik pakerik emango. Beti *xarra-  
ka-xarraka* bazebillek, eta azkureka ibilli  
bear edo arrapatu. Gaberdi aldera, norbaitek  
argiak pixtuko zizkin, eta denok, agindua ba-  
geneukan bezela, lastaira gañean exeri, elasti-  
koa erantzi ori zeukanak, askok etzeukateken  
ori ere, ta zorriak iltzen ariko giñun. Ori gar-  
bitzean, azpikoa. Ori ere, zeukanak. Azkaza-  
lak gorritzeraño. Askotan, ogei ta amarretik  
gora. Lanak bukatzean, berriz, lotara. Baña  
geratzen ziranak, etziguteken pakerik uzten.

Lenengo beeko tunel-pera erropak gar-  
bitzera joan nintzanean, ur-putzu zikiñaren  
inguruan ondarra zegola iruditu zitzaidaken.  
Beirok ondarra! Zorriak itun. Aurretik joan  
ziranen jantzitik urera erorita, igari bazterrera  
atera ziranak, urrena zijoanari atxikitzeke as-  
moan. Ukuitu nituenean, ara-onera asi itun.  
Batzuk, berriz, buruzpera urera.

Nereak utzita, besterenak artu bear nik  
ere. Gorputzik-gorputz zebiltzaken zorri zi-  
kin aiek. Alare, ainbeste gaitz zikiñez betea  
zegon jende artean bizita, ez giñun kutsatu.

Beatzakin ezik, an etzegoken zerekin illik.  
Dena ixil-ixilik jasan egin bear. Bestela, oke-  
rragoko lekuren batera laxter eramango iñu-  
ten.

Oraindik gogoan zeukat Joxe Mari Korta,  
Azpeitiar Aundia deitzen geniona. Zalantzik  
gabe, San Kristobal'en zan gizonik indartsue-  
na. Emengo deabru kankallu guziekin probak  
egiña uan. Zan gogorrena ere, etzin ikusteko.

Ongi oroitzen nauk, nola esan zidan bein, egundokoak botatzen zekina baizan ura ere, lagun batek zorri aundi bat billatu ta aurrera ekarri ziola, esanaz:

— Au añako zorririk ez dit oraindik ikusi.

— Nai al dek, eskuan daramadan duro zillar onek lertu baietz? —esan nioken.

— Ez, motell; kilo bat jasoko likek orrek eta.

— Duro zillarra jarri nioken gañean, ta zereko lertu! Anakak balitu bezela, arrastakarrastaka bazieken duroa.

— Ikusten al dek? Baita kilo bat ere jasoko likek orrek.

— Ez duela nere beatzik jasotzen...

— Ori ez, motell.

Zanpatu nin duroa nere beatzarekin, ta ura dek otsa atera zuena! Lertu ta arpegiraño aren zipriztiñak, ala jainkia!

Bizar ta ille-moztallerik ez uan. Guk, berriz, olako errementik edukitzea ez genin zilllegi. Bera ere ez uan nolanaiko suprikizuna guretzat. Ia urtebete igaro genin bizar ta ille-rik moztu gabe, zorriz beteak eta zerekin garbiturik ez. Iruña'tik etortzen omen itun. Baña gure *Artzak* ordaindu nai ez, etxearen bizkar zegoken lan ori-ta.

Azkenerako, ezin ezagutu nor nor zan izketan asi arte, edo bat atzeraka edo aurreraka zegon. Zearo arpegia estaltzeraño.

Artara etzegola irauterik eta gerok asmatu genin gure buruak txukuntzeko modua. Ez bagiñan dotore geratzen ere, garbitzen giñun.

Poxpolotik aukera zebilleken, eta orrazea jarri azpian, eta gañetik illea erre. Arindu ederra artzen genin.

Bein, eguraldi txarra zan batean, azkeneko puntan ille erretzen ari itun, baña leioa zabalik. Campos deitzen genion zaitzalle batek, leiotik somatu zin ille erretzeko usai gaizto ori. Bere berga eskuan zuela, an sartu uan:

— *¿Qué pasa aquí que huele a cuerno quemado?*

Azkeneko puntaraño joan ta besoak toles-tatuta, begira geratu zitzaieken arrituta:

— Auxen dek ille mozteko era berria! Jarrai ortan, baña meserez leioak itxi.

Gizona izaki ta ontzat artu zin, etxeak jartzen etzun bitartean, al zuten moduan beren buruak garbitzea.

Bost urte luzetan ez genin izan ez dutxik, ez bañorik. Urak etzin gure esku, arpegi ta oñak besterik ukuitu. Zolda egiñak zeudeken gure gorputzak.

Igesa baño len, legez tokatzen zan alako lau geundeken espetxe ontan, enda guzieta-koakin batera; eta tartean, Jainkoak zekik zenbat zebiltzan gaitzik nazkagarrienakin kutsatuak. Sarnaz josiak nonai zebiltzaken, eta ez dek arritzekoa ainbesteko pillan ta garbitasun geiago gabe. Azkenean, errebista pasa ziteken, patioan erdi larru gorririk jarrita. Gu bi anaiok garbi geundeken.

Minbizi zutenak ere asko izango itun. Batzuk nabarmenak, begiratuan ezagutzeko moduan. Sudurra beetik gora erdi jana zeuka-

tenak ezagutu nizkin. Gutxiena uste genduanean, zerraldo illak geratuko itun.

Goizean, beñepin, noiznai billatzen ziteken illa.

Andramin edo *sífilis* zutenak ere asko, nabarmen ezagutzen genitunak; eta ezkutuan zeudenak, zenbat etziran izango?

Politika utsagatik geundenak bakarrik izan bagiña, jendea askoz garbiago ibillikotuan. Baña iñon eduki nai etzituzten lapur, gizon-iltzalle, arkupeetan lotara biltzen ziranak, txakurren gisa ilda non erori etzekitenak, batez ere komunetakoak, denak gure tartean barrena zebiltzaken. Aien antzera artu gaiztziken gu ere; ta zaitzalle askorentzat, aiek gu baño maiteagoak.

Bat bauan oraindik gaztea ta mutil bikaña gañera, jakiña, ango gosearekin urtu xamarra, bere aitaren gibela jan zuena.

Egundoko aza-burua omen zeukateken baratzan. Semeak ala zioken aitari:

— Aza orixe nere eztaietan jan bear degu.

— Eztaietarako ez al daukak ori baño gauza oberik?

— Ori ortik kentzen duenari, gibela jango diot, bada, nik.

Semea eroxko xamarra zala ta alakoren bat egingo zuen beldurrak, kendu ta saldu egin zin aza-buru eder ura, berari alako txarrik egingo zionik pentsatu ere gabe, astakeri asko esaten zuena omen uan-ta.

Bai semea laxter oartu norbaitek aza eraman zuela andik.

— Nork eraman du, aita, or zegon azaburu aundi ura?

— Edozein astakeri egingo uan beldurrak, neronek, motell.

— Ederki egiña orixe. Baña, aita, nik beteko det nere ziña.

Aitari erantzuteko betarik utzi gabe, jo atxurraren buruarekin, il ta gibela kendu omen zioken, eta bere andregaiari eman maniatzeko. Bion arte jan omen ziteken. Goxoa geratuko uan andregaiia, aitaren gibela jan zutela jakitean. Ori ere, bada, an zegoken, beste olako askoren sallean.

Gu, oraindik gazte iñoxente batzuk, oien artean bizi giñun. Baña beti gure jendearekin. An ere ez itun, ez, denak esku garbikoak.

## GOSEA

San Kristobal'ko espetxean sartu nintzaneke, antzeman nioken gaitzik txarrena gosea izango gendula. Zikiña ere ez dek ona. Baña, ondo jan ezkeru, zikiñagatik iraungo dik bateg. Goseak, ordea, begi gorriak omen dizkik, eta San Kristobal'en ori uan nagusi: gosea.

Sartu ta bereala, oiartzuarrarekin izketan negola, gure ondolik igarotzen itun errañu batzuk bezela, arin-arin. Oiñ-otsik ere etzitzaieken entzuten. Etzeukateken ortarako ere kargik. Luxe, mee ta xerallak, txitxareak txutik ziruditeken. Egurrez egindako gurutze jantziak. Ez sabel, ez ipurdi. Arpegiko ezurak zorrotz, larrua ebaki zorian. Oñetako xaar batzuk, norbaitek nai ezik utzi ta artuak, oñetan txiñalka.

Kaki-jantzian, txapela ere berdin, ori uan espetxeko jantzia ta etxeak jarri bear zuena. Jainkoak jakingo zin noizkoak ziran eta zenbateg ibilliak. Aiek etzeukateken lengo kolo-

rerik. Zearo xaretuak, zuloetan adabaki batzuk, oso dotore josiak: Ziri zorrotz batekin zuloak egin ta espartzin-lokarriarekin lotuak. Batzuk txikiegiak zizkitek; beste batzuk, berriz, aundiegiak. Galtz-ipurdiak belaun-txokoetan, eta txamarraren sorbaldak ukalondoan. Beste batzuk, galtza txorrotx batzuk zanko erdiraño. Txamarra, toreroak bezela, txilborreraño. Andik galtzetaraño alkandora, zeukanak. Besteren batzuk, zatar zikin batekin estaliak. Asko, larru gorrian. Kanpotik ala zeudenean, nola ote zeuden barrutik?

Guri etziguteken eman kaki jantzi ori, etzegolako. Egiteko, berriz, diru asko bear. Gure *Artza* etzegoken ortarako, dena beretzat nai zin-ta.

Intxixu auek, bada, gure galerian ibiltzen itun. Lo ez baizuten an egiten. Jakiña, duenak geiago emango duela ez daukanak baño. Orregatik zebiltzaken gure artean. Berak lo egiten zuten lekukoak, denak berdiñak itun: komunak. Iñondik xox bat artzen etzutenak. Andik etzezaketan ezer atera.

Aulak bazeuden ere, begi ta eskuak bai erneak. Iñon ezer tirabidean ikústen bazuten, laxter egingo itun jabe.

Iru edo lau izketan ari giñan ondotik, arin-arin joango itun. Bakoitzari arpegira begiratuz, zearo iñozotuak, zentzurik gabeak, burutik joanak, janari paltaz auldu ta erdi erotuak, lotsa galduak, lau urteko ume bat bezin ajola gabeak, beren kasa izketan, parrez ere berdin. Iñor zigarro erretzen ikusten bazu-



ten, aren atzetik ibilliko itun. Arek botatzen zuen muturra, oraindik sutan, aidera arrapatuko ziteken. Batek txupada bat, bestea besteak, beatzak eta ezpañak erretzen zitzaizkien arte. Elkarri irripar zoro bana egiñaz, jarraituko ziteken aurrera.

Arrituta geratu niñun, zutena nola elkarrekin partitzen zuten. Aiek ala ikusi nitueanean, galdetu nioken oiartzuarrari:

— Auek gu bezelakoak, gizonak dira, edo intxixu edo norbaitek onuntz ekarritako enda eskax edo aulen bat degu?

— Kaaa! —erantzun zidaken—. Gizon bikain askoak itun auek, ni etorri nintzanean.

— Zer gertatu zaie orduan? Auek iñozotiak dabilta. Ez dute lau urteko batek baño juizio geiago, oso gizon irixten ez dirala dirurri-ta. Zerk ondatu ditu ortaraño?

— Alimenturik ezak. Goseak ortaratu dizkik. Etxetik ezer artzen ez duena, olaxe geratuko dek: akitzen-akitzen, iltzen dan arte. Emen ematen duten janak, ez dik olako animala batzuk bizirik edukitzeko kemenik. Eun kilotik gorakoak itun batzuk, nik ezagutu nitueanean, orain bi illabete inguru. Orain berrogei ta amar ba ote dira? Emendik aurrera ez dituk beerago jetxiko. Illabeteren batzuk iraungo dizkitek ortan, goizen batean beren oatzean illak arkitzen dituzten arte.

— Gaixoak! —nioken nerekiko—. Maitagarria dek orratik bizia. Auek dabiltzan bezela ibiltzeko ere... Baña ez ditek il nai.

Izutua geratu niñun ni aien aurrean. Ez

bazetorren etxetik ezer, eta ez uan errexazango, alaxe bukatuko genin guk ere mundua, auleriak erotuta.

Oraindik leku gutxitan ezagutu izan dan bezelako gosea zegoken San Kristobal'en. Ondoren zetorren gudan, ikaragarriak ikusita-koak baituan; baña ez emen baño aundia-goak, ez ditek bizirik iraungo-ta.

Gure *Artza* artadun zegon bitartean, ez uan aldaketaren itxaropenik. Etxeko zuzendaria milla pezetako batzukin iruzurtuko zin. Iñor goragokoren bat etortzen bazan ango martxa aztertzeraz, ura ere iruzurtuko ziteken diruz edo gezurren batzuk kontatuz. Kontzientzi gutxiko gizona bazan beñepin, diruak laxter limurtzen dik olakoen biotza.

Zerk ote zekarren gose au? Janik ezak, zalantzik gabe. Baña erru zutenak, San Kristobal'koak.

Emengo jana ez uan gizon bat luzaroan bizirik edukitzeko añakoa, ondatu gabe beñepin. Ez genin lan askorik egiten. Baña, biziko bada, gizonak bere eguneroko anoa bear dik, ematen zigutena baño oparoagoa.

Eguneroko ogia, orixe uan zerbait balio zuena. Bertako jan utsarekin alare ezer ez; baña etxetik zerbait artzen zuenarekin, iraunkor. Jakiña, andik dirua besterik etzeturren.

Gosaria edo kanillatik datorren ura, berdintsuak.

Bazkaria, len esan degun bezela, sukaldezaia lagun zuenarentzat or nonbait; besteentzat ezer ez.

Bidaniar bat eta ni —ura aspaldian illa dek, urte berekoak giñun baña— bazkaria artu orduko leiora joaten giñun, zenbana garbantzuz erori zitzaizkigun ikustera. Egun batzutan polliki; askotan, berriz, ur bero utsa axal batzuzkin.

Illabeteko bazkariak garbantzuzarekin egiñak, iñoiz txikori berdea ere ekartzen baizuten, milla berreun ta irurogeita amabi ale neri tokatu zitzaizkidanak. Eguneke berrogei ta bat edo bi, beste ezer ere gabe.

Olo baten otordua gure ogi, gosari, bazkari, azkari, apari ta guzi. Gure etxeko olloak onenbeste jaten ziteken orduan.

Gure *Artzak* San Kristobal ollotegi bat zala usteko zin, eta ez gizonen espetxea. Berak zeraman gilbor aundi ura betetzeko, guk baño otordu obeak egingo al zizkin.

Ogiaren neurria ere ala moduzkoa uan. Askok egin ziteken apustu, opil osoa busti gabe bost minutuan jan baietz, eta zopak eginta bi minutuan. Egin zuten guziak irabazi ziteken; eta zai geratzen itun, ea beste bat jokatu nai zuenik bazan.

Berak eman ez eta etxetik ekartzen etzigiten uzten dirua besterik. Onekin, berriz, ogei ta amaika eskutik zeukaken *Artzak*.

Aukera ekartzen zin *tragaperras*'era. Goseak irrikitzen zegonak, diru pixar bat patrikan bazeukan, an zieken buruzpera eroatera. Etzeukateken gure diruak, erdoituko ziran beldurrik. Zertarako ariko uan diru-pillatzen, goseak iltzezkeroz?

Askotan ekartzen zizkiteken, jendeak erosiko zuelakoan, Eguberritarako turroi edo antzekoak. *Guirlache* deitzen dioten oieta-koak asko beñepin. Puska txiki bat, bi pezeta ta erdian. Kiloak ere etzin orduan asko geiago egingo, ta puska txar arengatik ori eskatu. Dirua autsa bezela zebilkinen batek erosiko zin. Baña geienak muzin egiten zioteken. Prezio ortan bost ogi artuko zizkin.

Ez uan orregatik gure *Artza* asko larrituko. Urrengo egunean, ogi eroatera joaten zanari, ogia ta turroia eskeñiko zizkioken: biak artu; bestela batere ez. Gure *Artzak* etzin merkeago salduko, ta azkenerako denak lenen jarritako prezioan salduko zizkin. Alare, gaitz erdi. Turroia jan ziteken. Okerragoak egin zizkiguen oraindik.

Zigarro-paper aukerik etzebilleken eta zurezko pipa aundi batzuk jarri zizkiteken salgai, urritz ta intxusakin egiñak. Urritz-zati bati goitik zulo bat egin, tabakoa sartzeko; zulo ontara beste txulo txiki bat zearretik, intxus-kirten bat emendik sartzeko, ta egiña zegoken pipa.

Au ere bi pezeta ta erdian jarri ziteken salgai. Bakarren batzuk erosiko ziteken oroigarri bezela eramateko. Beste gañerakoan, zertarako uan ura?

Orregatik etzin gure *Artzak* bere umorerik galduko; ezta xentimo bat bere prezioa jetxi ere.

Bi errealean zegon ogia itxu-itxuan eroste-

ra joango itun; eta gure *Artzak*, erosi nai zuen  
ogiaren ondoan, pipa jarriko ziokeen:

— Au dena iru pezetan: biak edo baterez  
—esanaz.

— Nik ez dit, ordea, pipa zar orren bea-  
rrik —erantzungo ziokeen erostunak.

— Ez dek orduan ogirik ere eramango.

Batzuk utzita joango itun. Erretzalleak,  
berriz, erosi egingo ziteken, zigarro-paperetan  
asko bear zutela-ta. Guk muzin egin genio-  
ken. Ez genin erretzen, eta ez geundenen,  
etxetik ainbeste kostata bialtzen zizkiguten  
pezta aleak, alperrik botatzeko.

Orrelaxe, nai zuena egiten zin gure  
*Artzak*, eta gañetik eziñean zebiltzan gizara-  
joei irri, *tragaperras*'en leiotik bere buru beltz  
aundi ura aterata.

Estaduk guretzat bialtzen zuenetik, lauta-  
tik iru beretzat gordeko zin. Igesaren ondoren  
ematen zigutenetik igerrri geniokeen, lautatik  
iru ortxe ibilliko zala bere lapurreta.

Igartzerañoko gosea jarri presoan artean,  
eta gero begien aurrean alako aukera ipiñi,  
gure diru pixarrak biltzeko.

Sukaldeko zikiñak ateratzen zituztenean,  
an itun gure baitu komun guziak, laxterka  
joanta, olloak bezela aztarrika. Aza-zorten  
batengatik mutur joka ikusi izan nizkin. Artar-  
rako bazeukateken oraindik indarra. Kale-  
ximaurretan txakurrak bezela geratzen itun,  
ango zikinkeriz sabelak beteta.

Esan degunez gañera, beste espetxe guzie-  
tara pakete ta jana bialtzea zillegi uan. San

Kristobal'en ez ori ere. Ori utzi balute, ez gennin alako goserik pasako. Martxa guzia bere negozioarako zeukaken *Artzak* jarria.

Azpeitiar bat bauan. Arritokieta zeukaken izena. Oso laixterkari ona. Amaika bider esana sasikoa zala. Noski, orrekin ez dik miñik artuko. Au ere gurekin batean zegoken San Kristobal'en. Berak zionez, andregai koxkor bat bazin; baña oraindik bada-ezbadan zeukana.

Neska ori neskame omen zegoken. Ez uan aberats oietakoa izango, baña ona ta txuxena; ta orrek balio dik. Arritokieta'k berak uste zuen baño geiago maite zuena. Arek, bada, bere ezerezetik eta bere ta Arritokietaren lagunei eskatuz, pakete txiki bat osatu zin, eta San Kristobal'era biali, maite zuen mutillari. Gurekin izketan zegola deitu ziteken.

— Ni deitu? Bixita-ordua ez dek au.

Zer ote zan etzekila joan uan, eta ain nekez osatutako pakete txiki ura. Zaitzalleak zorrotz galdetu ziozen:

— Ez al ekin paketeak bialtzea ez dala zilllegi?

— Nik bai, jauna; baña biali duenak ez.

— Alperrik ator, bada, onen billa.

— Baña neskatx beartsu batek, bati ta besteei eskatuta osatutako pakete bat biali dit. Gañera, galerazia dagon ez dakila. Ni ere eziñean nabil emen...

— *Tienes más razón que un santo.* Baña artu paketea ta jarrai neri.

Karamelo bat ere artzen utzi gabe, sutara

bota erazi zioken, ainbeste kostatutako andregaiaren pakete txiki ura. Olaxe bizi giñun San Kristobal'en.

Baña gure Arritokieta ez uan asarre etorri.

— Alare gaitz erdi. Andregaiak maite natxiok —esan ziguken zoriontsu.

San Kristobal'ko goseak etzin neurririk, eta egunetik egunera nabarmenago ikusten genin presoetan ari zuen kaltea, ta orren erruguzia *Artzak* zeukaken. Jakiña, bera baño goragokoren batzuk zekitela.

## ARTZA, GURE ARTADUNA

Orain ez giñun bigarren galerian bizi. Etzekit noiz ta noren bitartez; baña gure leku xaarra berriei utzita, garbiagoko leku batera joan giñun. Gela txiki batean geundeken be-deratzi euskaldun. Baña itxua ura ere. Leioa kanpora zutenak, diru zutenen eskuetan erori itun. Zalantzik gabe, an ere ori izan zala bi-tarteko. Baña gurea, San Kristobal'en izateko, naikoa genin.

Emengo gela txiki batean bizi uan, bada, len Errenderi alde ortan ibiltzeri zan karabi-nero zaar txiki bat. Beartsua, beartsurik ba-zan, eta gutxi bezelako zigarro-erretzallea. Baña dirurik ez. Goizetik asi ta arratseraño, oiuka ariko uan:

— *¡Que me quemó, que me quemó!*

Ea norbaitek, urrikalduta, zigarroren bat ematen ote zion.

Goiz batean, oiuka somatu genin, lenengo gelatik asita:



— *iNoticia bomba! iNoticia bomba!*

— Orain ere bazebilek gure karabinero eskalea.

Gela bakoitzean bere jardunaldia egin ondoren, zorientsu kea zeriola urrengo gelara joango uan oiuka:

— *iNoticia bomba! iNoticia bomba!*

An ere bere itxogin-aldia egin ta zigarroren batzuk irabaziz, urrengora sartuko uan lotsa aundi gabe, baña beti oiuka:

— *iNoticia bomba! iNoticia bomba!*

Gure gelara etorri zanean, ala galdetu genioken:

— Zer dek, bada, ire *noticia bomba* ori?

— *Bien merece un cigarrico.*

— Baita amar ere, egiz berri ona bada-kark.

— Bai; oso ona. Gure *Artza* frontieran arrapatuta, Iruña'ko kartzelan sartu dute.

— Gezurretan ari aiz. Ez diagu sinisten.

Bi beatzekin gurutze bat eginta ari muxu emanaz:

— *Como hay Dios, la verdad pura* —esan ziguken.

— Ori egia bada, bat baño geiago merezi dituk.

Lau edo bost eman zizkioteken.

— Baña, gezurra bada, ez dek geiago gure zigarrorik artuko.

Eztaietan atera uan gure gelatik, eta «*iNoticia bomba! iNoticia bomba!*» oiuka, igaro zizkin ango gela guziak.

Egitan ari uan gure karabinero xaarra. Len

sinistu bagenio, beste zigarroren batzuk jasoko zizkin. Alare, egun guzirako naikoak bildu zitunak. Etzekit nondik ikasten zitun alako berriak.

Lareun milla pezeta zillarretan automobil txiki batean zeramazkila, frontera arrapatu ziteken reketeak gure *Artza*.

Goxoa jarriko uan. Aren aldarteak beldurgarriak itun. Bere lapurretak, bere ametsak, denak uxa zitzaizkioken, bere jainkoa kendu ziotenean. Diru ori guzia gurea uan, gure mixerien bizkar egindakoa. Amaika eriotzen saria. Amaika gaixoren negarra.

Lareun milla pezeta errex esaten diagu. Jakiña, gaur ere dirua dek; baña gaurko milloiak baño geiago. Ori dena bi urte eskaxetan aurreratzeko, etzeukaken eguneroko txarra. Zaindaria ere zuritu bearko zin. Eta nork zekik ori ote zuen bere lenengo txangoa?

Au irakurtzen ari danen batek, onuzkero esango zin:

— *Artza*, nor ote da ori?

San Kristobal'eko artaduna uan; administradorea, alegia. Erdaldunak *El Oso* esaten zioteken. Euskaldunok, berriz, *Artza*. Aren itxura ohea zeukaken. *Kupel-aundia* ere norbaitzuk deitzen zioteken, noski.

Gizon beztaka motz bat; baña bi metroren gerri ingurua bazeukaken arek. Beti falanjejantzian azalduko uan. Etzin ezertan sinisten diruan bestetan; eta azkenean berak galdu. Eskatutako pusken batzuk ez bazizkioten garaiz ekartzen, erreko zizkin Jainko, bere

santu, gotzai, apaiz, relijioso ta elizak. Oiek zeukateken arentzat erru guzia. Franco'k eta bereak, ez. Amaika olako bazeudeken sail ortan.

— Onenbeste apaiz, konbentu ta eliza, Iruña zikin ortan! Kanpaia besterik ez dek entzungo.

Emen birao gorri bat botako zin, ta:

— *¡Y por fin nada!*

Askotan egoten uan *tragaperras*'en, bere gilbor aundi ura danborreroak bezela aurrera, oñak eta besoak atzera. Tripa aundiak ikusi dizkit; baña ura baño luzeagoa etzan batean gutxitan. Almazen aundi ura ondo betetzekeroz, guk baño otordu obeak egin bearko zizkin.

Amaika par egiten zin deabru arek, gure gose ta mixerien bizkar.

Artaduntza orrengatik bere saria jasoko zin beretzat. Egunerokotik egiten zuen lapurreta, *tragaperras*'en beste ainbeste, etziguken lapurreta txikia egiten. Gure gosea zenbaterañokoa zan, agerian zegok, lapurren eskuetan zebilleken emengo gora-beera guzia-ta.

Udarako beroan, osin-zulo artako ur uste-la ez edateagatik, ardoa ere saltzen baizuten, asko joaten itun, gu ere bai iñoizka, baso ardo bana edatera. Bein, nere aurretik joan zana, tabernaria izango uan, noski. Bera ere alakoak egiten oitua. Baxoxka errealean saltzen ziteken. Ezpañetara eramán ta murtxatu zuen orduko, purrustada batean ormara bota zin guzia, esanaz:

— *¡Esto es agua sucia!*

*Artzak* atera zin leiotik burua ta ala erantzun zioten:

— *El siguiente también tendrá que beber agua* -ja-ja-ja algara gozoa egiñaz.

Orduan, basoa bere ardo ta guzi mutur beltz artara tiratzea merezi zin. Baña ezer egi-terik ez. Ixil-ixilik alde egin egin bear.

Alare, neretzat nazkagarriena, arek ildakoei egiten zien iseka uan. Lau milla espetxe-ratuetatik asko xaarrak, gaixorik etorriak, noiznai bauan eriotzen bat. Lau ol zaar elkarri josi, pintatu ere gabeak, an illa sartu ta lau gizonen bizkarrean, gu denok bi aldeetara lerroan jarrita, eramango ziteken askatasunera, ez gurutze, ez apaiz, txakur bat bezela. Alakoetan, beti leioan egongo uan *Artza*. Aldamenean zeukan saltzalleari, ala esaten omen zioten:

— Ori baziak. Neretzat irabazia. Amai-kak lagundu bear ziotek.

Zer ote da gizon baten biotza ortaraño zekentzen duen diru zikin ori?

Jakiña, saltzallea ere komunetakoa uan. Lapurra, alegia. Arritzekoa uan, lapurrak lapurrakin alako konfiantza artzea?

Egoarte batean, bi gorputz lerroan atera zizkiteken. Orduan ere, *Artza* leiotik begira somatu genin. Ala zioten bere saltzalleari, beraizik ere ingurukoak entzuteko moduan gañera:

— Bi al daramazkite batera?

— Bai, jauna. Atzo il ziranak —erantzun  
zioken aldamenekoak.

— Lastima! Atzetik bi zero baleuzka, be-  
rri pollita uke.

Eriotzak ere, noski, bere negozioak itun.  
Noiz egingo ote zuten baja? Bitartean, bera  
aien egunerokoa kobratzen ariko uan.

Jana zeramatenean ere, askotan malkoak  
ixurtzen zitzaizkidaken, nere aurrean ikusten  
nuenarekin. Lastaira zikin batean manta za-  
rrean bilduta, sukarez egosten an egongo uan  
gaixoa. Aren aurretik igarotzerakoan, purrus-  
tadan esango zioken zaitzalleak:

— *Alarga ese plato.*

— *Eso es veneno para mí* —esango zioken,  
egosten ari zan gaixoak.

— Au ez badek nai, or konpon! —eta au-  
rrera.

Sendagilleak agindua izango zin zer eman;  
baña *Artza*'rengana paper ori iritxi orduko,  
txikitu ta sutara. Bestea, berriz, gaitzak eta  
goseak pixkanaka-pixkanaka illeraziko zite-  
ken. Lagun edo adiskideren bat bazeukan,  
arek zerbait lagunduko zioken il arte, *traga-*  
*perras*'tik zerbait ekarriz.

Beste asko zearo etsiak ikusten nizkin, go-  
seak aulduta, iltzeko zoratzen, baña beren bu-  
rua iltzera ezin ausartuz.

Illa zeramaten batean, nere aldameneko  
aitona —ala esan bearko, oraindik ez uan oso  
zaarra, baña aitua zegoken— negarrez somatu  
nin.

— Zer? Lagun edo adiskideren bat al zendun ori? —galdetu nioken.

— Ori ez uan neretzat ezer ere, emen gurekin mixeri artean bizi zan lagun bat besterik. Ez nin ezagutzen ere.

— Barkatu, negarrez somatu zaitut-eta...

— Bai. Ala dek. Baña ez laguna detalako. Ori daramaten lekuan ni ez eramana, orregatik egiten nin negar. Berdin, laxter ez badigute jan geiago ekartzen, zulo ontan izango dek nere azkena; ta ez nitek, berriz, nere bururik galdu nai.

— Bejondaizula! Ni Jainkoari eska ta eska ari naiz, libra nazala emen iltzetik. Eta zuk, lenbailen emen iltzea nai dezu.

Olakoxea uan gure *Artza*, ta olaxe bizi giñun gu. Baña emengo gosearen erru guziak orrek eta bertako zaindariak zizkiteken.

Len esan degunez, fronteran arrapatu ziteken lareun milla pezetakin. Lenengo txangoa ote zuen, edo aurretik ez ote zuen besteren bat egiña? Ajola zioken ari Franco, España ta emengo gudarengatik. Zenbat eta geiago irautea, ura ta naiago. Arentzat ez uan bera ta bere dirua besterik. Amaika olako baitun, guda ortan nastuak, sekulako aberastu ziranak.

Onek, Iruña'ra ekarri ta bere lagun batzuk bixitara joan zitzaizkionean:

— *Viva Rusia!* —oiu egiten o.nen zuela.

San Kristobal'en, bati baño geiagori entzun nieken:

— *Viva Rusia* orain? Datorrela, datorrela!

Laxter erakutsiko ziogu Rusia non dagon. Ez likek bi bider oiu ori egingo, ez.

Orrek majiña bat gizon ondatu zizkin betiko. Iñozotuak eta burutik joanak asko gelditu itun. Beste asko, beren etxera aske iritxi baziran ere, urte gutxi barru utzi ziteken mundu au.

Urrutira joan gabe, bat Errenteri'koa: Etxebeste. Aske etorri uan; baña biriketako gaitzak zearo menderatua. Illabete gutxi barru egin zioken mundu oni azken agurra, ta oraindik ez oso zaarra.

Engañagarria dek, orratik, dirua, ainbeste kalte egin ta egiten ari dana. «Zorionekoak gogozko beartsuak, zeruetako jaurgoa aiena dek-eta». Ori guretzat esana izango uan. Gu San Kristobal'en baño beartsuagorik...

Militarrak, edo espetxeetako kargu zeukatenak, orduantxe ziteken egokiera polita, San Kristobal'en zer gertatzen zan ikasteko. Baña *Artza*'ri diruak kendu ta bi tiro emango zizkioteken. San Kristobal'en, ordea, ez uan ezeren aldaketarik egin. Berdin-berdin jardun zin goseak, eta paketerik sartzen utzi gabe.

Beti bezela, gosea, zikiña ta mixeri gorria. Eriotzak ugaritu, jendea gaixotu, sendagairik ez. Presoak etsi ziteken; eta, bein itxaropena galdu ezkeru, gizona dek lurraren gañean dan pixtirik gaixtoena. Ortatik etorri uan, egundo etorri bear etzuen igesa.

Iges ondoren zabaldu omen zizkiteken agintari askok begiak. Baziteken ordua. Alare, iges egiñakin etziteken erruki aundirik eduki.

Ez gero gezurretan ari naizenik uste. Itzak eta idatziak ez ditek indarrrik, gertatuaren garraztasunak bear bezela agertzeko. Ezin lezakek gure espetxeko larritasun au neurtu, norberak ikusi ta bere aragian jasan gabe. Ia aundiena ikusteko geneukaken oraindik...



## IGESAREN MOLDAKETAK

Lenengo galerian, azkeneko arkupean, bizi uan Asturias'ko irakasle bat. Ez nauk orain bere izenaz oroitzen. Gizon bitarteko bat, argala, xeralla, beti jantzi berarekin ibiltzen zana. Kolore galdua ta xaretu xamarra. Soñekoa bezela, bera ere beartsua, noski. Zulo artan geienak non erori etzekitenak itun.

Irakasle au, bada, sudur luze xamarra, edozein lekutan igaroko uan euskotar bat bezela. Oso kolore tristeak zeuzkaken. San Kristobal'era etorri zanean, ala omen zizkin, eta etzaizkioken emen asko gorrituko. Gaixo etorri ta etxe au ez uan iñor sendatzeko lekua. Betaurreko lodi batzukin, zirudienez, begibista ere kaxkarra zeukaken. Berrogei bat urtekoa zirudiken; baña baziteken gutxiago izatea. Zaulia zegoken oraindik, baña aren birikak ukuituak ote zeuden. Beti triste ikusten nin nik ura.

Oso bakartia. Orrek oraindik gaixo-itxura

geiago ematen zioken. Bere erri-aldeko lagun bat edo bi bazizkin. Bat, ondo xamar zegona. Dirua ere polliki artzen zuena. Arek laguntzen zioken zerbait, bere patrikatik gañera. Aiekin aterako uan egurastera, eta aietako batek erosiko zioken *tragaperras*'en.

Bakartia ta izutia, bada, benetan; agian gaixo zegalako.

Gizon otz-bera, gaixo geienak bezela. Orregatik, bere borondatez joan uan lenengo galeriara, ta azkeneko arkupe artan jarri. An aizeak etzin geiegi korritzen, tunelaren bukaerako orman.

Tunel illun ori iru bat metro lurpean baizegon, goien, aize berritzeko, saietera txiki batzuk zeuzkaken. Auek beti beltz-beltz egiñak egoten itun kanpo aldetik, barrungo arnas, lurrun ustel ta kiratsez. Kanpo aldeak ortara jartzen zituenean, barruan ere zerbait egingo zin.

Ez uan eguzkiaren izpirik sartzen. Eguna-ren pozak ere etzeukaken an lekurik. Beti elektrikaren argira. Eskaxa ura ere espetxe guzian.

Berreunentzat egiña, zortzireun biziko itun orduan bertan. An, udara ta negu, giro berdintsua egiten zin: epela; baña osasunarentzat ez ona. Ango betiko ustel usai arek, eta lanbroa bezela zebillen ezetasunak, len osasun txarra zeukana laxter bialiko zin an-kaz aurrera. Emen ere gosea ta zikiña itun nagusi.

Azkeneko arkupe artan aritzen uan au ira-

kasten, gu su ondoko epelean neguan kontu kontari aritzen giñan bezela.

Onen ondora urbiltzen itun batzuk zerbait ikastera. Baña ez dit uste xentimorik artzen zuenik bere maisutzagatik, beren burua non etzan etzekiten aietakoak itun bere ondora biltzen ziran guziak-eta.

Euria ari zuen denbora luze aietan, baze-kiteken denbora arin nola pasa. Etzeukaken libururik; baña berak, erakutsi nai zuena ondo ikasia zeukaken. Komunismoaren erakundea, ori uan bere betiko gaia.

Gorputz ta anima komunista, bada. Baña ez bero ta ekinkor oietakoa, ameslari bat baizik. Aita San Frantzisko zirudiken izketan, baña kristau legearen etsaia.

Sei-zazpi, geieneko oiek biltzen itun aren ondora, oietako bat Piko bilbotarra, Valladolid'ko batzukin. Denak irakaslearen iritzi-koak.

Ikusi-mukusin, eguraldi txarra zegonetan eta patiorako girorik ez, joaten niñun ni ere, ea zer zan irakasleak zebilkin gaia.

Piko, illabete batzuk lenago gure galerian egona uan. Nik, ezaguna ezik, adiskide ona nin. Elkarrekin olako amaika eztabaida edukiak, baña asarrerik gabe. Oso gizon gazte gozoa. Bere borondatez ara jetxia. Goiko bi galeriak bete ziranean; nai zuenak beera joan, aukera jarri ziteken. Gure ondoan zegon bi-tarte, lagun bezela bizi giñun. Baña ura bere iritziakin eta ni nereakin. Orregatik egiten nin, noski, tarteka-tarteka nere ikertxo.

Aiek batzarrean zeuden lekura joaten niñun, eta beti ondo artzen nioteken. Ara joan nai zuenak libre zeukaken; baña an esandakoak ixilik edukitzekotan.

Ez niñun egundo ere an esandakoakin bat etorri. Aren iritziak ez itun kristau iritziak. Ni, berriz, beti kristau sutsua izan nauk, eta aren erakutsiak ez nizkin ontzat artzen. Baña oso indarkeriaren etsaia zuan.

Relijioa arek jarri nai zuen gizarterako izurriterik gaixtoena, batez ere kristau legea. Etzin gaizki artzen aberri bakoitzak bere relijioa edukitzea; baña aberkoia ta, jakiña, komunista. Ez, kristau legearen antzera, mundu guziko buru bezela Erroma. Europa'ko enda asko orrek lelotu omen zizkin.

Ez uan enda-zalea edo *racista*, berak zionez. Baña, ondo pentsatu ezker, bai. Bakoitzak bere oiturak eta bere izkuntza maite bear zizkin. Baña, denentzat zilbor bezela, bat bear zin mundu guzirako aukeratua. Estadu bat, gañera, beste guzien gañetik. Zalantzik gabe, au Errusia zala.

— Ik, Erroma'ri ukatzen diokena, Errusia'ri ematen diok. I, gañera, ameslari bat izanik, Aita San Frantziskok bezela itzegiten diguk. Ez dek, bada, oso goxo-goxoa izan ango komunismoa, eredu gisa jartzeko.

Ez genekila zer zan Errusi'ko komunismoa esaten ziguk. Jainkoa bezela, ez ezaguna zala guretzat. Ezagutzean, arrituta geldituko giñala.

Oso interesgarriak itun aren iritziak, batez

ere militarren aurka. Komunismoaren etsairik txarrenak Eliza ta militarrek jartzen zituzten. Langillearen irabazi geienak oiek jaten zituztela, ta errotik moztu bear zirala.

Iñon etzala jarri komunismorik, indarrean ez bazan; eta gero, biziko bazan, militarrek jabetzen zirala, esaten nioken nik.

Oiek etzirala komunismo garbiak, erantzun zidaken.

— Orduan mundu ontan ez dek komunismorik?

— Nik nai nuken bezelakorik ez.

— Guk gero itxaroten degun zerua nai uke orduan ik mundurako.

— Orixe bera; baña Eliz ta militarrik gabe.

— Baagoke pixka baterako. Gizona gizon dan arte, ez dek olakorik etorriko. Ezta komunismorik ere, indarrez ez bada eta indarrez eusten ez bazaio.

Olaxe aritzen giñun, umore onean ta pakean, txoko epel artan, gure maisu ameslari arekin.

Baña bazin begien aurrean ikusi nai etzuen etsaia, len *inspector de enseñanza* zana. Arek jakingo zin onen berri, zer erakusten aritzen zan ere. Ori, San Kristobal'erako, pekaturik gaixtoena baizan. Ura inguru artan ikusten zuenean, urduri jartzen uan gure ameslaria.

Ez nauk oroitzen noiz ta zergatik; baña galeri aietatik beste leku batera eramam nioten. Ez niñun geiago ara joaten. Ez giñun pa-

tiora ere elkarrekin ertetzen. Baña Piko'rekin, elkar ikustean, izketa-aldiak izaten nizkin.

Au, gizon gaztea, jesuitakin ikasia, oso otxana berez. Gaztetan mutil garbi ta elizkoia; gero, adiñera etorri zanean eta erkalaren garaian, alamoduzko lagunakin asi uan. Bere sinismena ez bazitzaion oraindik burutik joan, biotzetik beñepin bai. Jainkoan sinisten bazuen ere, kristau legean etzin sinisten.

Au uan, bada, erasoaren buru egin zuena. Gu beste aldera joan ta gero artutako asmoa ziteken ori.

Ez nauk batere arritzen, zulo artan bizi ziranak edozer astakeri egitea. Gizonak artara edukitzeko eskubiderik etzegok. Ara sartzen nintzan bakoitzeko, sarreran beñepin, nazkatua geratzen niñun, ango zoko edo ijito-usai ura sudurretara zetorkidanean. Luzaro bertan dagonak ez dik nabaitzen; baña kanpotik zetorrenak, bereala. Asko zeudeken an, sendatzerik etzeukatenak, biriketako gaitzak ukuituak. Aiek zer itxaropen bear ziteken? Arrantxo utsarekin luzaroan an bazeuden, ta sendagairik gabe, eriotza; askatasunera ertetzen baziran, berriz, ezertarako gauza ez, besteren bizkar bizi bearra, ta an ere laxter eriotza.

Zer illabetetan, zer egunetan, zer ordutan, nor gidari, dena ikasia ta aukeratua zeukateken. Baña maisuak, arek erakutsi bezela egin bazuten ere dena, azken orduan atzera egin zin. Komunista izan arren ameslari bat uan. Ari ere, kezka txarrak asi zitzaizkioken.

Eraso ori gaizki ateratzen bazitzaien, egundoko ixtilluak sortuko zizkitekenez espetxe barruan, eta agian atxilotuak len zeuden baño okerrago utzi. Berak, berriz, bazekitekenez zer ondoren izango zuten.

Ondo ateratzen bazitzaien, berriz, eriotzen batzuk egingo zituztela eta egundoko odol ixurtzea ekarriko zutela espetxera. Zalla, benetan zalla izango uan beste aldera pasatzea.

Guda zebileken oraindik. Orrek ematen omen ziokez beldurrik geiena: kanpora joaten ziranakin etzutela begirunik izango.

Gure komunista ameslariak atzeratu nai omen zin lenengo; gero, berriz, utzi, arraixku txarreko lana zala-ta.

Ikasleak ezetz esan ziotekenez; erabakitako ill, egun eta orduan egingo zutela, gaizki eruten edo ez.

— Nik etzeukat neronez iltzeko beldurrik. Berdin ori polliki-polliki bazetorkidak —omen ziokez—. Gaixo etorri niñun, eta nere osasuna beeraka ziez. Baña gure erruz, ezer ez irixteko gañera, besteak iltzera bializ bear dizkiagu. Orrek min ematen zidak neri. Ez dek ori nik erakusten detana.

— Guk ori ikasi diagu, bada; ta, esandako egun ta orduan, gure saioxka egin gabe ez gaituk geratuko.

Elkarrekin autsi zitekenez. Batzuk aurrera joan itun eta besteak atzera.

Irakaslea, bere ikasleen beldurrak geratu uan.

Orregatik, gure maisu ori illun-bistan er-

ten uan iges-egunean, beste guziak joan zira-  
nean. Gu sartzen ta ura ateratzen, neronek  
ikusi nin. Itzegin ere bai. Ezkutuan egona  
etxean, arrapatzen bazuten iltzeko beldurrak.

Beeko komunisten batzarra olaxe bukatu  
ziteken. Aietako bakar bat ere ez uan bizirik  
atera.



## IGESA

1938'an, Maiatzaren 22'an, illunabarra. Zortziak igaro berriak. Ia bi urte, guda asirik. Gaixtoen-gaixtoenean guda. Orduan etorri uan San Kristobal'ko igesa.

Aparia eman ta oraindik bukatu gabea genin. Izan ere, gure apariak etzin bost minuturen bearrik, asi ta bukatzeko.

Ezeren txarrik pentsatu gabe kontu kontari ari giñala, tiro-otsak entzun genizkin, eta San Kristobal barruan, mendi aldera, alegia.

— Zer gertatzen ote da or?

San Kristobal barruan ez genin beñere tiro-otsik entzun; eta garai artan eta gutxiago. Leiora erten giñun, eta zentinelak, sutzeari utzi gabe, atzeraka ziaziken.

— Orra palta zana! Oraintxe gureak egin dik! Orra gure suprikizunen bukaera! —bati baño geiagori entzun genioken—. Bertako zentinelak igesi ziazik.

Erasoa kanpotik zetorrela uste baigendun,

ta sartzen ziranak, iges-bideak itxita, bertan ilko giñuztela.

Urduritasun ontan geundela, barruko jendea, presoak alegia, kanpora zijoaztela oartu giñun.

— Au ez dek kanpokoan lana izan. Au barrukoak egin ditek. Espetxeratuak kanpora ziazik, batzuk laxterka, beste batzuk lasai, elkar-izketan.

— Konpañi osoa ortzetaraño armatua orgoien dagola, armarik gabe nola oiek menderatu dizkitek? Ikusten ez diranak al ditukedo? —zioken norbaitek.

— Nik etzekit ori; baña presoak kanpora ziazik.

Zer gertatzen zan ikasi nairik gabiltzala, etorri uan Joxe Mari Korta, azpeitiarra. Guk Joxe Mari Aundia esaten genioken; baña erdaldunak, *el vasco*. Sukaldean lana egiten zuana. Bere abarkak jantzita, zaku lodi bat bizkarrerako artuz, martxarako preparatua, izutu xamarra etorri zaiguen.

— Zer zaudete emen, eroarena egiten? Salta, mutillak, emendik, bizia maite badezute, minutu bat geiago pentsatzen egon gabe!

— Zer gertatzen da, bada? Ez dakigu oraindik ezer ere.

— Ez al dituzute tiro-otsak entzun, eta jendea kanpora nola dijoan ikusten?

— Ori dena badakigu. Baña nork egindako lana da au?

— Barrungo bost edo sei gizon kaxkarrek.

Aundiena ere bost arruatik gora ez dek pasako. Goazen emendik lenbailen.

— Eta nola dakizu ori? —galdetu genio-ken.

— Bi gizon kaxkarrek, batek atzetik eta besteak aurretik, eldu zidatek, beren ustez ni indarrean gelara sartu ta an itxita uzteko asmoan, esanaz: «*Oye, vasco: entra en esa celda. Ez diagu ezer egingo*». Ta besoetatik eldu zidatek. Leku ederrean! Bost arruako bi gizon koxkorrek bilduko niotek ni orren aixa! Alako astindu bat eman ziet eta biak ziraldoka joan dituk. Bi jauzitan eskallerak igo ta emen nauzute. Goazen, zenbat eta lenago obe, Iruña'n onen berri ikasi baño len.

— Alare, Joxe Mari, pauso ori ematerako, ondo pentsatu bearra daukagu, guretzat seguruena non izango dan: kanpoan edo barruan. Etxeko bi txatxuk edo iruk egindako lana bada, ez det uste jendea erabat igesi joango danik.

— Erne, mutillak! Au ez dek txorakerizko lana. Bizia zeukagu jokoan, eta geienok ogei ta amar urtez beerakoak gaituk.

Bitarte ortan, etzekit nola, Zendoia Uzku-dun'en illobak eta nik salletik iges egin genin. Arek besoa nere bizkar gañean zuela, laxterka atera giñun, iñoren oiuei kasorik egin gabe. Nik etzekit non ta nola berezi giñan eta galdu gendun elkar. Bazekit zubitik atera nintzala.

Ango ateeran ikusi nizkin bi edo iru illak; eta beste bat, alderik-alde balazo batek zulatua, ezin illik. Gizarajoak errukia ematen zi-

daken. Aiek begiratuak egiten zizkigun! Igesi zijoaztela, goiko zentinelak tiroz arrapatuak itun.

Ni ez nauk ondo oroitzen. Ura aurrera joan uan eta ni etxera etorri. Baña oraindik bakar batzuk itun aldegiñak. Moltzo bat bazebilleken, zubiz barrungo zabalune artan, aurrera joatea ezin ausarturik, bati galdetu ta besteai galdetu, urduri xamar, jakin nai ta ezin ikasi.

Pakea egin al zan edo eskubitarrak guda galdu egin al zuten, neri ere galdetu zidateken.

Etzala pakerik egin. Eskubitarrak ere etzutea gudarik galdu. Ori dena barruko batzuren lana zala.

— *iMenuda carnicería van a hacer!* —zioken; eta buruari elduz geratu uan, zer joe-ra artu ezin erabakirik.

Larri zebilleken, bada, jendea, joan nai ta ez, aulak geundeken-ta. Geratu ere nai ez, barruan arraixku txarra ikusten genin-ta.

Oraindik ez uan erasoaren jaberik bat bakarrik azaldu ateraño. Batzuk, denak indarrean kanpora biali nairik zebiltzaken. Besteak, beren lana ondo atera zitzaieken, baña nora joan orain? Iñork bai al zekiken ango berri? Zekitenak, onuzkero joanak itun igesi. Egitezkeroz, bakarka egingo ziteken.

Ori dena ikusi ondoren, txuxenean barrura joan niñun, Jainkoagatik ez ateratzeko esatera. Ikusi bainuen an etzegola ezerean laguntzik, kanpo aldetik beñepin; eta kanpoko

laguntzik gabe, bertako batzuk izan ezik etziteken pasatzeko aukerik izango, denak nora etzekitela zebiltzaken-ta.

Anaiak erritan eman zidaken:

— Non abil i, salletik igesi eginta?

— Len salletik aterata joan banaiz ere, ez nauk berriz aterako, igesi egiteko asmoan beñepin. Denak joan nai badezute ere, ni bertan geratuko nauk.

— Zer ikusi dek, bada, kanpo alde ortan?

— Or etzegok ezereen pulamenturik. Iñork etzekik zer egin. Gutxi dituk oraindik joanak. Inguruko jendea, noski, geiena. Oiek zekitek pixar bat bertako berri. Ate ondoan lau ikusi dizkit illak. Laurak presoak dituk, igesi zijoa-zenak. Beste lan txar bat ere egin zigutek: soldadu bat zebillek or arrastaka, ezin illik. Egundoko piketa-zuloa egin ziotek buruan. Bere odoletan arrastaka, ezin zutiturik zebillek. Euskaldun batek igesi egin ziguk: Zendoia'k. Bide-erakuslerik gabe, nik ez dit pausorik emango. Penagarria dek Zendoia'k igesi egitea.

— Txoroa aleena! —zioken Orio'k.

Ondoren, berriz, askotan esan zigun bere leloa:

— Mutillak, erne begia!

— Soldadu ori nork il ote du?

— Valladolid'ko bi igeltsero zakar aiek.

— Il bear ta ere, soldadu gizarajo bat il?

Gu eztabaidaka ari giñala, batzuk joan nai ta besteak ez, azaldu itun erasoaren egille ziran batzuk orma gañera, beren pusillakin:

— *iViva la ansiada libertad!* —oiuka.

— *Viva la libertad* diozute? Gizarajoak! Ez luzarorako. Zoritxarrez, norbaitek esango dizute oraindik ez dala ordua. Zeron buruak galduta, beste gañerakoak arraixkuan jarri nai al gaituzute?

Jendea txoro-txoro baziaken, banakabanaka, kanpora. Barruan entzungo ziteken guda bukatu zala, edo uste gabeko askatasuna etorri zala.

Ango gutxik zekiteken oraindik, barrungo presoan lana zala ori.

Arrigarria: batzuk, zituzten traste pixarrak artuta, treneko geltokira joateko asmoan izango itun, noski. Gizarajoak! Larri asko ibilli bearko ziteken San Kristobal'ko txaran, txakurren aurrean igesi, eiztariz inguratuak.

Zirikatzalleren batzuk an bazebiltzan, aurrean artu ta atera-erazten.

Gurera ere etorri uan bat, bertako jendea kanpora bialtzeko asmoan. Ez alperrik! Aurreko geletan bizi zan jendea sumindua zegoken, eta etzeudeken iru edo lau ero aien esanak egiteko, jakiña, ondo ez baziran bizi ere. Askatasunik gabe ezin litekek gizon bat ondo bizi. Baña naiko dirua bazebilkiteken, eta saltzallea lilluratzen ere bai, eskupeko on bat eskeñita. Aiek etziteken errenkan, guk bezela, jarri bearrik izaten, arrapazka ogi koxkor bat erosteko. *Artza* galdu zanean, iñork etzin zelarrik egiten. Beren gelara ekartzen zienen bear zutena.

— *iFuera de aquí todos!* —oiu egin zin.

Bilbotar txiki bat uan ori. Bere pusilla eskuan, soldaduren bati kendua noski, ausarditsuaren itxurak egin nai zizkin. Baña kolore guziak joanak zeuzkaken, eta daldaraka zebilzkiken eskuak.

Ura ala pusillarekin ikusita, ez uan piatzekoa. Ezer gutxigatik asiko baizan tiroka, gaztea ta bildurak aidean zebilleken-ta.

Gu andik bialtzeko asmoan asi zanean, lau edo bost batera lotu zitzaizkioken eta pusillari eldu. Etzioteken nai zuenik egiten utzi. Batek ala zioken:

— Ez badek ere pusilla ta guzi leiotik beera joan nai, tximistak egiñaz aldegin zak emendik, eta espetxetik joan nai ez duenari utziok pakean. Zer nai zenuteke: zeok igesbiderik ez daukazutenean, denak zuekin batera eriotzera eraman?

— Zenbat eta denbora geiago emen daramazuten, orduan ta zallagoa izango dek zuen igesa.

— Bazekiagu zer gertatzen dan. Zuen asmoa zer dan ere bai. Zuek erre dezute opilla, bai, ta zeok jan zazute.

— Ez dezute olakorik...

Keñu zikin bat egin ziguken, eta aldegin zin andik. Beretzat obe. Bestela, balkoitik beera botako ziteken. Berdintsu izango zitzaiokeen, bai, noski, txaran galdu zin bere bizia-ta.

An zebiltzaken, bada, eroak bezela, orma gañean, «*Viva la libertad ansiada!*» oiuka, oartu gabe urreak baño geiago balio zuela an

galtzen ari ziran minutu bakoitzak. Eraso eman zutenak etziteken bururik.

Iruña'ko jendeak ikasi bazuen igesaren berri... Au ez uan zalla izango, goiko tiro-otsak iritxiko itun beeraño-ta.

— Eta zer martxa ikusi dek?

— Len ere esan dizutet: kaxkarra.

— Soldadu ori orrela iltzeko, txoro ederrak dituk. Oiei etzietek barkatuko.

— Oiei barkatzezkeroz, lo lasai egin gentzakek.

— I zer iritzitakoa aiz: joan edo ez? —galdetu zidateken berriro.

—Len esan detana. Ez banuen bertan geratzeko asmorik, ez niñun sartuko.

— Atera nai-ta ere, nora joango gaituk? —zioken batek.

— Ori dek beste galdera. Nora bazekiagu. Prantzi'ra gabe, gureak egin dik. Baña nola ta nondik joan? Nik emengo berri etzekit. Urruti xamar zegok Prantzi. Berrogei bat kilometro gutxieneko egongo dituk San Kristobal'dik. Bere inguruan bazegok ibai koxkor bat. Atzeraxeago bide zabal bat ere bai. Gu geienok, bi urteko barau luze onekin, aulduak gaudek. Erdiak oñetakorik ez diagu. Nora joango gaituk orrela?

— Zuek ez joatearen alde al zerate? —galdetu ziguketen batek.

— Bai; gu bai —erantzun zioken Orio'k.

— Orma-txoriak bezela berriketan jardunta, ez diagu ezer aurreratuko. Nai badezu-



te, gera zaitezte. Ni baniak –esan ta joan uan bat.

— Motell, ago pixka bat. Ez adilla orren presaka ibilli –eskatu genioken.

— Ordu ontan segundo batek ere asko balioko dik.

Eta zapuztua, iñori kasorik egin gabe, laxterka aldegin zin. Zendoia itzuli uan bizirik. Baña bestea ez. Uraxe bakarra galdu genin euskaldun-sallean.

— Erne begia! –zioken berriro oriotarrak—. Txoroa aleena! Itxu-itxuan aldegin ziguk, bada, orrek?

Denbora galtzen ari giñala bagenekiken. Baña etzin iñork ordu artan, illuna ere ganiñean genin-ta, San Kristobal'ko txara itxuan sartu nai. Ez baigiñan andik aterako. Etsaiak, berriz, bere sukaldeko berri bezela zekiken angoa. Ia okerrenak txakurrak izango itun.

Orduan, denok elkar artuta, ala erabaki genin:

— Gela txar ontan gaudela, etzekiagu zer gertatzen dan kanpoan. Goazen zabalune artara. An ikusiko diagu zer martxa dagon. Ea ezeren itxaropenik baduten. Joan edo geratu, orduan erabakiko diagu. Txotxean bezela jokatzea dek ori. Etxekiagu, dijoazenak edo geratzen geranok, nork asmatuko degun. Agian, iñork ez. Odol-zale oiek ez ditek olako egokierarik galduko.

Zabalunera joan giñanean, oraindik ez itun erru zuten guziak joan. Aien ezin aterea

nabarmena uan. Ez baizekiten nora. Alare, banaka-banaka baziaziken. Baña zabal artan zegoken oraindik Piko, zaitzalle-jantzian.

— Orrixe galdetu bear ziot, ea zer itxaropen daukaten...

— Kontuz, motell. Tiro bat emango dik orrek -zioteken nere lagunak.

— Ez. Orrek, orain ere, txuxen erantzungo zidak dakina, ta egia esan.

Pistola txiki bat zeukaken eskuan. Zaitzalleari kendua izango zin. Jende artetik pasata:

— *Buenas noches*, Piko -esan nioken.

— *Igualmente*, Salvador -erantzun zidaken.

— Meserez, egiz erantzungo al zenioke nere galderari?

— Orain eta beti, bizi naizen artean ez nauk gezurrez iñor iruzurtzearen alde -erantzun zidaken.

— Iges egiteko itxaropenik bai al daukazute?

— Ez, zoritxarrez. Konpañi osoa bertan arrapatu nai genin. Bertan lotuta edo ondo itxita utzi. Biar goizeko zortzirak arte, etzitezken auek igesaren berririk jakingo. Bitarte ortan, nere ustez, asko igaroko giñun fronteraño. An *alto* ematen baziguten ere, bi edo iru izango itun geieneko. Aien lanak laxter egingo genizkin. Baña konpañiko kornetak iges egin ziguk, lubakiaren gañetik jauzi egin-ta. Onuzkero, emengo berri bazekitek. Suerte txarra esaten ziot nik orri -erantzun zidaken.

— Orduan, zer aolku ematen diguk?

— Ori bai jakiten zalla dala. Auen odol-egarria probatua zegok. Ori asetzeko, orain zeukatek, berriz, egokiera bikaña. *Ley de fugas* jarriko zigutek, eta ez dit pentsatu ere nai, zer sarraski egingo luteken. Alare, ni zuek bezela banengo, etxean geratuko niñuke. Lautatik iru barruan geratuko dituk. Ori dek seguruena. Geienak bertan geratuko baidira, eta denak erru gabeak. Iru millatik gora iltzen ezin asiko al dituk.

— Orduan, etxean geratzeko aolkua ematen diguk?

— Ez dek asmatzen errexa. Baña len ere esan dit: zuek bezela banengo, ni etxean geratuko niñuke.

— Eskerrik asko, Piko.

— Ez orregatik.

Esku eman ta:

— Agur, Salvador. Suerte on bat izan. Ori opa dizutet.

— Agur, bada, Piko. Zuek ere suerte on bat izan.

Orduantxe bertan etxe barrundik lasterka etorri uan eibartar bat, euskaldun garbia, Zabaloz izenekoa.

— *¡Adelante, todos! —oiu egin zin—. ¡Ahí nos esperan los guías!*

Gezur borobilla. Zer zekiken arek, orduan erten uan etxetik-eta? Naparro guzian, etzin bat billatuko, presoen gidari jartzeko ausardia zeukanik.

Joan uan, eta bere atzetik jarraitu ziteken erru zuten guziak.

Bidean, Iruña'tik San Kristobal'era berebil txiki batean zetorren konpañiko tenientearekin topo egin ziteken; eta, zijoaztenei, ala oiuegin zieken:

— Etzoaztela igesi! Zoazte berriro San Kristobal'era, errurik ez dezuten guziak! Iru-zurtuta zoazte. Indar aundiak zeudek Iruña'n. Zuek salba zaitezte. Nik, berriz, etzeukat bi eguneko bizirik, ez bainegon nere lekuan.

Geienak iseka egin zioteken; eta, berebilla irauliz, tenientea odoletan utzi ta aurrera joan itun.

Ez, ordea, denak. Baitun tartean sinistu ziotenak. Aiek, San Kristobal'era itzuli itun.

Kontatu zidatenez, nere lagun Piko gizarajoa, ordubete baño len illa zegoken. Arkaitz batetik bestera jauzi egiterakoan, ordurako illun baizegon, erori ta anka autsi omen zin. Igesbiderik gabe, bizi bazan beñepin, urrengo goizean etsaien eskuetan eroriko zala-ta, bere buruari tiro bat eman omen ziokeen. Baña Piko, berez, gizon gozo ta atsegiña uan.

Arek neri esana anai ta lagunei kontatzen ari nintzala, goiko mendi-egalean txakurrak zaunkaka somatu genizkin. Alako zarrara bat egin ziguken, ta:

— Goazen, goazen barrura emendik. Bestela, or ametralladoren bat jartzen badute, erdiak bertan garbituko gaitzitek.

Gu barrura joaten ikusi giñuztenean, ardi aurrelariari besteak jarraitzen dioten bezela, denak gure ondoren sartu itun.

Gu barrura ta Asturias'ko maisua ateratzen topo egin genin.

— Etxean jende asko al zegok? —galdetu nioken.

— Bai. Jarrai barrura. Geienak bertan geratuko dituk —erantzun zidaken, aurrekoen beldurrak, atzekoena ere bai, etxean zeukaken etsairik gaixtoena-ta.

Barrura sartu giñanean, oraindik bauan tartean, geratzearen aldekoa etzana.

— Naiago dit bero-beroan burrukan il, odol otzean barruan baño —esan ziguk.

— Motell, bidea libre daukak —erantzun zioteken—. Nai badek, joan adi.

— Erne begia! —zioken berriro oriota-rrak—. Ez adi txoroa izan. Len joandakoak ere, naiko naigabea ematen ziguk.

Baña espetxea betea ikusi zuenean, ez uan joan.

## ERASOA

Armarik gabe, barruko ta kanpoko zaitzalle guziak nola menderatu ote zituzten?

Barrukoak, geienera jota ere, amar izango itun. Kanpoan, berriz, konpañi osoa zegola zioteken, eta konpañia eunekin osatzen dek. Oiek denak, armatuak, sei gizonek, eta esku utsik, nola menderatu zitazketen? Gezurra zirudik, baña egia dek.

San Kristobal'ko bazter guziak baituz ganezka zeudeken, eta zerbait egin bear, ainbeste milla ar-zulo artan sartzezkeroz. Orregatik, *cuervo de guardia*'tik amar metrora, bazter batean, bazeudeken gutxienez irureun espetxeratu. Antxe bertan, askotan barrukoakin izketan aritzen uan, gero piketaz ilko zuten soldadu ura.

Aiek, bada, ondo zekiteken konpañi artako oituren berri.

Soldadua piketaz jota il zuten bi anai aiek, igeltseroak itun biak. Espetxe barrunbe guzian aske ibiltzen ziranak, ango lan pixarrak

egiñaz. Jeniorik gaixtoenetakoak, batez ere begi bakarra, batere bearrik gabe il ziteken, aurrean zaitzen zeukaten soldadua.

Aiek oraindik obeto ikasi ziteken txee-tsunez ango berri: noiz ta non apaltzen zuten, *cuerpo de guardia* non zeukaten, apaltzerakoan armak non edukitzen zituzten, jaten ari ziran bitarte iñor zaitzen egoten ote zan...

Erasoa eman zutenak, bada, jakiñaren gañean atera itun.

Auen gora-beera ondo erten edo gaizki, konpañiko buru zegonaren esku zegoken. Barruko zaitzalleak utsa itun. Aien lana egiteko, etziteken buru austen ibilli bearrik. Baña goiko konpañia nola menderatu? Oartzen baziran, josiko zizkiteken goitik beera. Arek sinisten bazien, berriz, eunetik larogei ta amar beren alde zeukateken.

Ortan ere suertea izan ziteken. Tenientea edo kapitana an izan balitz, ez dit uste lanak ain errex egingo zituztenik. Baña Iruña'ra jetxia uan bera; ta, gertatuaren berri jakin zuenean, al zuen lenena bere lekura zetorrela, berebilla aldapak beera bota zioteken.

Aren ordeko, bada, eskarmenturik gabeko alferez gazte bat zegoken, agian militarra etzana. Orregatik, errexago ulertzen diagu, joan zan baituari ain errex sinistea.

Zortziak jo orduko, asi itun aparria ematen, eta Galán izeneko, barruko zaitzalle zegona, sartu uan pazi aundi aren atzetik lenengo galerira. Etorri berrietakoa izanagatik, ona, iztuna ta alaia.

Aurrera xamarreraño joan zanean, bi edo iru lotu zitzaizkioken, eta kendu bere pistola ta zaitzalle-jantzia; ta erasoaren buru egiten zuenak, Pikok alegia, jantzi.

Pistola artuz, beste bost lagunekin, auek esku utsik, patioan zear-zear zentinelaren aurrez-aurre igarota, sartu itun *jefe de servicios* zegon lekura.

An *Mitxelin* gizarajoa zegoken. Onek, zi-joazenak armarekin ikusi orduko, besoak jaso zizkin, ta kendu zioteken bere arma.

Orixe bera egin ziteken arrapatu zituzten guziakin, denak leku batera bilduz. Etziteken zalaparta aundirik atera, maitagarria baita bizia.

Orain arte, dena pentsatu bezela txuxen-txuxen atera zitzaioteken. Baña oraindik okere-neko txangoa emateko.

Lenengo galerian bazekiteken erasoaren berri. Baña au itxia geratu uan.

Piko, denetan ausarditsuena noski, ura ziteken buru ere, bakarrik, barruko zaitzalle-jantzian ta arma bere gerrian, goiko *cuervo de guardia*'ra joan uan, an buru zegonarekin itzegitera.

Soldaduak apaltzen ari itun patxara ederean, ezeren txarrik pentsatu gabe ta, len esan degun bezela, alferez gazte ura nagusi zutela.

Au bera aurreratu zitzaiokeen, zer nai zuen galdetzera. Ez baizuten olako oiturik. Indar bakoitzak beren lekuen jabe itun, batzuk barruan ta besteak kanpoan.



— Barru ortan zerbait gertatzen al da? —galdetu zioken.

— Bai, bai. Nere lagun zaitzalle oiek, erdi berdoztuak, batzuk beñepin bero-bero egiñak, tiroka asteko zori dabilta. Naiago nuke pa-keak egitera jetxiko baziñate —eskatu zioken.

Txoro-txoro alferezak sinistuta, bera beste iru soldadurekin, beren pusilla ta guzi, zaitzalle-jantzian zegon Pikorekin batera jetxi itun, bost gizon armatuak zeuden tartera.

Pusillak kendu, soldaduak gela itxi batean sartu ta seiak batera, alfereza pistolaren aurrean zeramatela, lasai apaltzen ari ziran soldaduen aurrera azaldu itun. Auek, zer egin etzekitela utzi zizkiteken.

Amar metrora zeuden presoak ori ikusi zutenean, piketaz jota soldadua il ondoren, laxterka atera ta egin itun ango armen jabe.

Jendea abiatu uan igesi. Orduan oartu itun goiko zentinelak, eta tiroka asi. Lauren bat bazeudeken atean illak.

Beranduegi oartu ordea. Laster artu zizkitekenean erdian. Bederatzitarano bazeudeken etxola aietan zaitzalle, baña eziñaren aurrean makurtu itun.

Korneta gaztea etzegoken, ordea, besteen sallean. Ango martxa ikusi zuenean, aldapak beera laxterka etorri ta jauzi batean lubakia igaroz, jetxi uan Iruña'ra. Ogei minutuko txangoa zeukaken bide laxterretik beera. Onek uxatu zizkin eraso-zaleen ametsak.

Amets bat zirudik onek; baña an geundenoi estuasun ederrak erakutsia.

## IGESAREN BIARAMONA

Banaka-banaka denak beren lekuetara bildu itun. Baña espetxeko atea zabalik zeudeken, zaitzallerik geienak San Kristobal'en egon arren. Baña ez uan, alare, iñor atezai jartzera ausartzen. Denak armarik gabe zeudeken. Zaitzalle soldaduak ere bai.

Ori guretzat arraixku txarra uan. Zetozen indarrak, atea zabalik arrapatzen bazituzten, itxumustu artan edozer astakeri egingo ziteken. Ez baizien iñork eragozpenik jarriko. Guk aurka egin genien aitzakia asmatu ere bai.

Ortarako zeudeken gure aundizkiak, arraixku orren jabe laxter egin itun, eta erabaki on bat artu. San Kristobal'ko inpernura etzin nolanaiko lasaitasuna ekarri.

Espetxeko zaitzallerik geienak politikoak itun, eta joan ziranak etziteken gutxi egin, iñor il gabe joatea. Oiekin konfiantza gutxi zeukateken gure aundizkiak. Baña bat bauan

zuzena, espetxeratu guziei begirune aundia ziena. Onentzat, denak gizonak itun. Prieto bere izena. Au billatu zutenean, ala eskatu zioteken:

— Mesere bat egingo al zeniguke, Prieto jauna?

— Nik al nezakena bada, egiña zegok —erantzun zieken.

— Espetxeratuok zurekin daukagu konfiantzik geiena. Besteak politikoak dira.

— Eskerrik asko. Zuen iritzı ori atsegiña zaidak. Esan zer nai dezuten.

— Erru dutenak aldegin dute. Iges egin nai zutenak ere bai. Beeko atea zabalik ikusten ditugu. Baña ez degu atera nai izan. Naiago genduke, giltzak artuta atean jarriko baziña. Alegia, gu legepean gaudela. Barruan geratu ta pakean gaudenak. Bestela, onera datozen indarrak, astakeriren bat egin lezateke.

— Nere buruan ere bazebilleken iritzi ori. Nere espetxeetako zaitzalle-urteetan artu detan atsegiñik aundiena eman didazute oraingo ontan. Au dek nere egitekoa. Joan lasai, emen ez da astakeririk egingo-ta.

Barrura sartzerako, banekiken nik orren berri, ta benetan lasaitu niñun.

Orregatik, Etkezarraga jauna, kristau zintzoa, gero Ameriketara ilko zana, txoko batean otoitzean ari uan serio-serio.

— Beldurrak zu ere noski? —galdetu niokeen.

— Auekin nor ez? —erantzun zidaten.

— Benetan lasaituko zaitun berri bat

orain ikasi det. Gure zaitzalle dan Prieto jaunari, giltzak eman dizkiote. Ateak itxita daude. Gu, berriz, aren agindupean, ezer gertatu ez balitz bezela. Uste det ori guretzat berri ona dala, sarrera itxu ori galerazteko.

— Ez ona bakarra; segurua —erantzun zidaken—. Ez didazu lasaitasun txikia eman.

Gu, betikoak, gure gela txuloan bildu giñun, eta egundo ez bezela errezatu genin arratseroko errosarioa. Len amar izaten bagiñan, oraingoan berrogei bai.

Baña etziguteken, irurak alde arte, begirik ixten utzi. Beti bagenin norbaiten bixita.

Oiaren gañean etzaten bagiñan, *a formar* deituko giñuzteken. Gu denok banakabanaka jarri ta zenbatu ondoren, kontuak aterako zizkiteken zenbat geratu giñan.

Aiek joango itun. Andik laxter, beste zaitzalleren bat etorriko uan. Arek ere, *a formar* eskatuko ziguketen.

Zaitzalleak beren atzeraka-aurreraketan aspertu itun, eta gu ere bai. Otz aundirik etzegoken; eta, noizbait lo pixar bat egiñaz, atsenden artu bear gendula, ordu arteko ixtilluak aztu nairik. Baña ikusia zegoken etzigutela utziko.

San Kristobal'ko espetxea ixil ta pakepakean zegola, irurak izan bear ziteken urbil xamar. *Ta-ta-ta!* iru tiro-ots entzun genizkin. Jauzi batean leiora atera giñun, etxe barruan ote ziran edo kanpotik ote zetozen jakiteko.

Etxe barruan tiroka ari zan txororik ez al uan geratuko. Kanpoan izango itun, eta Iru-

ña'tik zetozen indarrak sutuak. Barrundik erantzunik ez emana, itxura ona uan. Espetxea pakean zegola, alegia.

Baña bereala oartu giñun. Egoaidera, patioa erdiz-erdi artzen zutela, amabost bat metroko orma gañean, guardiazibillen txapel oker oien diztirak ederki ikusten genizkin. Bi aldeetan ametralladorak jarri zizkiteken, berak zai-zai ondoan geraturik.

— Nola liteke ori, atea itxita dagola? —beldurrak zeuden batzuk zioteken.

— Aixa! —erantzun zieken, ango berri ondo zekin batek—. Atetik igaro gabe, kanpotik bazegok orrera beste bidea.

— Zer deabruzko asmoak ote dituzte? Gu patiora atera ta or garbitzekoak? Patioa beteko ditek illez.

Bitartean, Prieto eztabaida gogorrean, sartu nai zuten guardiazibillakin. Auek ala zioteken:

Iltzeko agindua zekartela. Baña ez denak. Lenengo galerikoak bai, eraso aiek eman zutela-ta.

Azkenean, indarrean sartu itun lenengo galeri ortan, angoak aurrean artu ta patiora ateratzeko asmoan, goiko orma gañetik garbizio bat egiteko-edo. Baña Prieto jauna ere aiekin batean txuxenean joan uan.

Begi-belarri geundenen gu, beldurrak lenengoak ateratzen ikusteko. Baña Prieto'k benetan buruz ta biotzez jokatu zin. Guardiazibillak denak aurrean bialtzera joan ziranean, bera atean jarri uan, patiorako bidea galera-

ziz; ta, etorri-ala, bigarren ta irugarren galeri-  
ra bialtzen zizkin. Ez uan bat bakarrik patiora  
erten.

Tiro-otsik entzuten etzutenean, zer ger-  
tutzen ote zan atera itun gora, ta Prieto atean  
arrapatu ziteken.

Guardiazibillak eraso zioteken, ea zergatik  
etzien patiora ertetzen utzi.

— Erru gabeak diralako. Emen geratu di-  
ranak, zuek eta ni bezin iñoxenteak dituk, eta  
guk ez genikek naiko orrela iltzea.

— Eta non sartu dituk orain?

— Bigarren ta irugarrenean. Zalla izango  
dek oiek or billatzen.

— Oiek iltzeko agindua artuta etorri gai-  
tuk.

— Emengo berri ez dakitenen batzuk  
emana. Oiek erru gabeak dituk. Besteak ez  
iltzezkeroz, auek ere ezin litezkek il. Kanpora  
joan diranetan ere, geienak erru gabeak dituk.  
Baña aiek etzeudek nere mende, ta or konpon  
aiekin.

Guk leiotik entzuten genin eztabaida au  
guzia. Ateak itxi ta zaitzalle bat an jarria,  
etziteken lan txarra egin gure aundizkiak.  
Ateak zabalik eta bidea libre arrapatu balute,  
denak ez bada ere, batzun-batzuk il gabe etzi-  
teken aldegingo. Goxoak etorri itun.

— *¡Váyase usted a la porra!* —esan zio-  
ten, suminduak, guardiazibillak.

Prieto`k, bada ez bada, etzieken erantzun.  
Ura kontentu zegoken, berearekin atera za-

nean. Asarre edo adiskide, zijoazela andik al-  
perrik etorri ziran aiek.

Goiko guardiaibillak beren ametrallado-  
rak kendu ta jatxi ondoren, aldegin ziteken  
andik, berak ziotenez agindua bete gabe, edo  
berak nai zutena egin gabe. Prieto jaunak ez  
baizien sinistu.

Orduantxe bai lasai lotara joan giñala:

— Gu salbatu gaituk!

Lenengo galeriko batzuk geratu itun es-  
petxean. Aiek atera zizkiteken andik beste le-  
kuetara. Denetan geratu itun utsuneak. Igesi  
joan baiziran, eta utsune asko utzi zizkiteken.

Ez uan igertzen zalla, zertarako egin zuten  
ori: bizirik zekarzkiten igesi egindakoak an  
sartzeko. Ori izango uan, San Kristobal'ko  
zaitzalleak ematen zien zigorra.

Itxuraz ezer gutxi zirudik. Baña aspertuko  
itun ederki, andik ateratzerako: ez tabako, ez  
patio, ez bixitik, *tragaperras* 'en ere ezer eros-  
terik ez. Askoko gaixo zeudela? Amaiak erori  
bear ziteken, ez baziran patiora egurastera er-  
tetzen.

Goizean, bada, amets gaixto batetik esna-  
tuak bezela, kornetaren otsera jeiki giñun,  
egun artako gora-beerak ikusteko. Espetxea  
pake-pakean zegoken. Baña atzoko ixkanbi-  
llak, zama aundi batek bezela zapaltzen  
gaitziken oraindik.

Jeiki orduko:

— Gu salbatu gaituk! —genioken elkarri,  
lenengo agurra bezela.

— Baña nola ote dabilta igesi eginda

koak? Ziur asko, oraindik beñepin. San Kristobal'ko egaletan eguna argitu zai, batzuk. Besteak, berriz, al duten lekura iges egiñak.

Naparrak bertako berri bazekiteken, eta aiek zuzen joango itun. Baña, ordurako, etsaiak beren bideak artuta. Auek berebillan joango baiziran.

Egunsentia orduko, asiko itun egal aietan txakur-zaunka, tiro-ots eta giza-karraxiak. Iges egiñak, berriz, nora etzekitela. Zortzireun bat gizon, zar ta gazte, basurdeak balira beze-la, eiztarien igesi.

Esan degunez, espetxea pake-pakean zegoken. Bukatu itun bezperako ixkanbillak eta eten gabeko *a formar* aiek.

Goizeroko oitura nuenez, lenengo lana leiotik begiratzea izan nin. Ez uan ormagain aietan pusilla besterik ageri. San Kristobal soldaduak artua zeukateken. Batzuk exerita, besteak txutik, eguzkiaren ertecrari begira egongo itun, noski. Urteak ez gendula guk olakorik ikusi.

Tenienteak etzin gezurrik esan, Iruña'n indar aundiak zeudela. aurretik atsedeen-aldi bat artzera etorriak.

Goizkiro goxoa benetan, Maiatza ere aurrera zieken-ta.

Al nuen ezkutuenetik begira egon niñun, guardiazibil, rekete edo falanjerik bai ote zebillen gain aietan. Baña ez; denak soldaduak itun. Agidanean, iltzerik etzegon lekura ezin biali aiek. Beeko txaran zeukateken naiko lana.



Amarrak alde ortan asi itun jende-karraio. Zikinduak, buru makur, iñora begiratzeko beldurrak, patioa alde-alde igarota sartu zizkitekenez lurpeko tunel artan, eta nere ustez ez oso asarre. Ezer utzi bazuten, beñepin, ango gauzen jabe laxter egingo itun, denaren bearra izango ziteken-ta. Era ortan egun guzian, eten gabeko lanean.

Soldadu gizarajo ura il zutenak, Valladolid'ko bi anai aiek ere, ekarri zizkitekenez. Biak biurriak, batez ere begi-bakarra. Igeltseroak itun, eta ez uan arritzekoa, piketa txar baten jabe egitea. Gizarajoak! Bazekitekenez, bada, aiek zer ondoren izango zuten.

Urrengo egunean ere bazekartekenez. Aste osoan ia alaxe jarraitu zitekenez. Euskaldun batzuk ere baitun sallean. Aien artean, Zendoia, Uzkudun'en illoba. Non igesi egin zidan, ez nekin ura.

Unanue zestoar jator batek, bein zulotik erten ziranean itzezin nin arekin eta ala ziozen:

— Etzegok itzez esaterik. Lenengo nabaitu nuena, kukua izan uan, egunsentian, nere aldameneko aritz batean, beste ixkanbillak asi baño lenago. Ura aske zebilleken. Gizon zitak lok, berriz, elkarren gorrotoan. Laxter asi itun txakur-zaunka, tiro-ots ta giza-karraxiak. *Alto* emen eta *alto* an. Amaika bider damutu zaidaken etxean ez geratua. Alare, bizirik etorri gaituk, eta zer esanaren paltik ez diagu ekarri. Bereala arrapatu niotekenez ni ere. Baña, Jau-nari eskerrak, soldaduak. Aien eskuetan erori

niñun. Etzidateken tratu txarrik eman. Eskuak lotu zizkidatenean, erretzen nuen galde-tu zidaken, aiekin zebillen sarjentoak. Baietz erantzun nionean, bat pixtu ta aora eman. Andik goiko bidera neramatela, *kuku! kuku!* nabaitu nizkin bat baño geiago txara artan. Aiek aske. Bitartean, ni, Jainkoak munduko errege egin niñuna, lotuta espetxera. Gizona baño pizti gaixtoagorik ez dek lurraren gañean.

Beste batek ere, igesaren berriak kontatzen ari giñala, kontatu zizkiguken berak igaro zitun larriak. Bizkaitarra uan au: Zornotza'ko semea. Arrieta, izena. Joxe Antonio Agirien lagun maitea. Masallean bazeukaken ala-ko zauri bat. Egur-almazen baten jabea len. Arek ere ogei ta amar urteko zama zeramaken bizkarrean, ange geienak bezela.

Au, zoritxarrez, falanjeak arrapatu ziteken, eta goiko bideraño ekarri, beste amar bat atxillotu geiagorekin. Lerroan jarri, esanaz:

— Oñez joateko gauza ez danak, eman dezala aurrera pauso bat, kamioi bat ekarri dezagun.

Maitasun ta begirune geiegi iruditu zitzaiokeen ori, gure Arrieta jaunari:

— Billaukeriz ari dituk auek.

Geienak txoro-txoro eman ziteken eskatutako pauso ori, nekatu ta baldartuak zeudeken-ta.

Ori nai ziteken besteak. Itzik trukatu gabe, il zizkiteken. Ez, ordea, eman etzutenak bizerik uzteko asmoan.

Arrieta jaunak, oso gaztea ez bazan ere, bizia maitagarria baita, buru egiten zuenari ala eskatu zioken:

— Nere azken ordu ontan, utziko al didak eskari bat egiten?

— Bai, bai. Esan nai dekana; baña aguro-erantzun zioken.

— Ni iltzen nauzutenean, esan olakori-au Iruña'ko gizonik sonatuenetako bat uanmeserez abisatzeko nere emazteari, nere gorputz au gurasoen illobian eortzi dezaten.

— Eta ik ezagutzen al dek ori?

— Baita olako ta olako ere.

Izen-zerrenda bat, denak Iruña'koak, eta orduan ango buru ziranak. Oiekin artu-eman aundiak izan zitula, ta oraindik ere bere emaztearekin jarraitzen zutela. Litekena dek diru pixar bat ere eskeintzea, ondo xamar bizi zana uan-ta.

Ez itun iltzera ausartu.

Beste bi abertzale baitun Iruña'koak: Itxaso ta Redin. Biak arrapatu ta esku-oñak elkarri lotuz, Arga'ra bota zizkiteken, ezagunak baizituzten.

Zortzireundik gora itun erten ziranak. Berreun ta ogei ta amar-bat il zizkiteken txaran. Gero beste amalau, *consejo de guerra* ondoren il-eraziak.

Igesaren urrengo egunean azaldu itun San Kristobal'en billauak. Berak eskeñi zizkiteken beren buruak, berak ziotenez, justiziari laguntzeko.

Asturias'ko maisuaren etsaiak ase zin bere

gorrotoa. Onek salatu zin; eta, *consejo de guerra* egin ondoren, beste amairurekin pusillatu ziteken au ere.

Beeko zuloan usteltzen zeudenai, lengoz gañera beste amazpina urte geiago bota ziteken. Ogei ta amarnarekin, beste amazpina geiago jarrita, berrogei ta zazpina urte.

Militar aien joera, jolasean dabiltzan umetxo batzuen uan. Zoritxarrez, umekeri gaixtoa. Irurogei urteko aiton bati, lengoaz gañera, amazpi geiago erantsi, ezeren malizi gabe, espetxea zabalik ikusi ta atera zan bati. Etziteken, beñepin, erruki aundirik eduki. Soldadu bat galdu uan. Baña iltzalleak ondo agerian zeudeken. Ezin bizirik zeuden batzuk orrela zigortzea justizia bada, or konpon bitez. Nik ez dit ulertzen.

Iru bat illabeteetan zoko artan egon itun. Esan bezela, ez tabako, ez pakete, ez patio, ez bixita. Dirua eduki arren, *tragaperras* 'en ezer erosterik ere ez.

Egunik eta eguzkirik ikusi gabe, ta amazpi urte geiagorekin erru gabeko batzuei eransteke, ez uan nolanaikoa. Amaika eraman zizkiteken ankaz aurrera. Baña *Artzak* etzizkin ikusi.

## ALDAKETAK

Gure anai gizarajoak zuloan usteltzen zeuden bitartean, San Kristobal'ko aundizkiak, lan on bat egin bazuten ere, saria kobratu nairik zebiltzaken.

Itun edo dokumento bat ixilka egin ziteken, beren izenak bilduta, geienak guardiazi-billak, zer edo zerengatik zigortuak zeudenak: aiei esker etzala San Kristobal'en izugarria pasa; aien aolkuz ta beren biziak arraixkatuz salbatu zirala ainbeste gizon, batez ere zaitzalleak; bestela, denak ilko zituztela...

Billaukeri gaixtoagorik!... Ara-onera ibilli giñan denboran, ez nin aietako bat bakarrik ikusi. Bazterren batean ezkutuan egonak nonbait elkarrekin, armadunak aldegin zuten arte. Orduan azaldu itun berak, San Kristobal'ko pake-egilleak izan balira bezela.

Emen etzin iñork eraso, norbait iltzeko asmoan. Goseak zeudeken eta beren biziaz etsiak. Ala bizi baño, il obe zutela, noski.

Orregatik erten itun. Iltzera atera balira, aundizki oien aolkuak entzun gabe, bertan ilko zizkiteken.

Beste gañerakoan, arraixkuan jarri zirala ta aiengatik izan ez bazan asko garbituko zituztela, ez dek egia. Il ziranak auengatik il zirala, ori bai: egia dek. Ez itun bestela kanpora aterako. Ori uan Asturias'ko maisuaren kezka. Ura salatu zuena, bai: joan uan au ileraztera.

Ibai naasia, arrantzaleen irabazia. Emen ere ori bera gertatu uan. Besteak etziteken asko irabazi; salatzalleak bai. Ura, bere billaukeriagatik, aske joan baizán. Berez katalana, ta irakaslea bera ere.

Beste gañerakoai iseka egin zieren: beren ogei ta amar urteko zigorrari amabost kendu, urteak bost xentimokoak bezela zebilzkiten militarrek-ta. Baña berrogei ta zazpi zeuzkaten asko, auek baño len erten itun.

Itun ori egin zutenak, geienak guardiazibillak, begiratu txarra ta iseka ugari irabazi ziteken, gu salbajetzat aru giñuztelako. Andik aurrera, oietakoren bat ikustean, askotan entzuten nin:

— *¡Ahí van los de la papela!*

Berreun ta berrogei ta lau-bat, bada, guzitara illak, pusillatuak eta denak sartuta. Ez itun oso goxo ibilli.

Aien odol-saria guk kobratu genin. Len buru egiten zuten guziak kendu zizkiteken, eta beste nagusi berriak etorri itun. Zitalak auek ere, jakiña; baña askoz obeto ematen zi-

teken jana, eta beste errextasun batzuk jarri. Len alako lau ematen ziguteken. Jakiña, burrunzalikada bat; baña trinkoa.

Lengo txitxareak orain puztuta geratu itun; eta, banaka-banaka, ankaz aurrera ziaziken. Auek etziteken asko irabazi.

Ezagun zin jendea poztu zala. Ez uan, len bezela, *Artzik tragaperras*'en azaltzen. Berak, besteak goseak il-erazi zitun bezela, Iruña'ko espetxean bukatu zizkin mundu ontako egunak, pusillatuta alegia. Egundo militarrek zuzentasunik egin badute, arekin egin ziteken.

Lengoak zenbat lapurtzen zigun, orain nabarmen ageri uan. Oraingoak ere etziteken arek baño geiago kobratuko; galduan ere ez itun ariko, ta, esan bezela, gutxienez lau alako ematen ziguteken.

Alare, paketeak sartzen uzteak kendu zin San Kristobal'ko goserik geiena. Amabostetik amabostera artzen genin. Beti, iraun zezaken gauza. Sei-zazpi libra txokolate bai, pakete bakoitzeko.

Gure gelan geundenak, denak artzen genin. Inoiz azkari edo merienda ederrak egin ere bai. *Tragaperras*'tik ardoa ekarri ta bapo jartzen giñun askotan.

Au ere azkenean moztu ziguteken. Bi periodista prantzes zeudeker, egun batzutarako etorriak, gurekin. Aiek egundoko mozkorra arrapatu ziteken. Bai ixkanbil gaixtoak sortu ere. Zaitzalleak etorri itur. Noizbait errenditu zizkiteken. Baña ardoaren estraperloak ere bukatu itun San Kristobal'en.

Ordu ezkeru galerazi ziteken, zelataria jarrita, iñork etzezan bere neurria baño geiago artu. Alare, au aztu zanean, lengoan jarraitu genin.

Garbitasunean eta janean irabazi egin genin. Baña lengo zaitzalleak baño erreagoak itun oraingoak. Etziguteken ezertan ere pakean uzten. Noiznai bagenin itzaldia, beti aberkoia ta Franco'ren aldekoa. Oraindik gogoan zeukat, gizon baldar, bizar-aundi batek esan ziguna:

— Onean edo txarrean, gure uztaipetik igaro bearko dezute.

Igesaren ondoren, ikasi ziteken San Kristobal'ko berri. Etzin gotzai jaunak egokiera au galdu.

Norbaitek esanta, bagenekiken San Kristobal'ko bazter batean obra txiki batzuk egiten ari zirala. Zertako ari ote ziran? Jende geiagorentzat leku berriak jartzeko asmoan? Amaika galdera egiten genin; baña etziguken iñork erantzuten. Alako batean, aurrera xamar zegon oñatiar batek esan ziguen:

— Gaixotegirako mojak ekartzeko ari dituk or lanean.

— Mojak San Kristobal'era ekarri? Norbaitek ziri ederra sartu dik.

— Ez, ez. Ezeren okerrik ez bada, amabost egun baño len gaixotegian mojak jarriko dituk. Neri, or dabilzanak, ala esan zidatek.

— Baña noren bitartez? Bertako agintari auei ori etzaiek komeni. Emengo berri ikasiko ditek, eta *Bergaretxe*'en purrustaldiak iku-



si ere bai. Auentzat enbarazu dek ori. Militar-  
rak ere jolasean dabiltzala zirudik gurekin.  
Oiek etzekitek urteak eransten bestetan.  
Etzaidak iruditzen biotz-xamurtu zaizkigu-  
nik. Lengo lepotik zeukatek burua.

— Auek bai. Baña lendik ere au galeraz-  
teko alegiñak egin ditun bat badek. Aren bi-  
tarte zetoze. Gotzai jaunak iritxi dik ori.  
Ordain bearrak noren bizkar joango diran, ori  
etzekit. Beren garbiketak egiteko-ta, or zeuka-  
tek lekua. Jakiña, Iruña'ra jetxiko dituk  
arratsean, eta goizean-goiz igo berriro. Ez di-  
tuk lotarako emen geratuko.

Arrituta geratu giñun. *Artzak* etzin ori  
egundo ontzat artuko. Goiz batean, bada, gu  
egurasten gabiltzala, gure artean azaldu itun.

Beste munduko izaki estrañu batzuk beze-  
la, denok begira geratu giñun; eta, aiek ondo-  
tik igarotzerakoan, *buenos dias* esaten zieten  
denak. Aiek ere, goxo-goxo *buenos dias*  
esanaz, erantzuten ziguteken.

Ia bost urtean ametsetan bestetan emaku-  
merik ikusi gabeko lau milla gizon ta geiago-  
ren tartean bi emakume, biak bakarrak,  
zaitzallerik ere gabe, alako biotzkada egin  
zioken jendeari.

Iñork irabaztezkeroz, gaixoak irabazi zite-  
ken. Len ez bezelako garbitasuna jarri uan  
gaixotegian. Jana ere, askotan berak jarrita  
eman.

Leku askotan gorriak jan egin zituztela?  
Ez nin San Kristobal'en olakorik somatu.  
Egundoko begirunea zieten; eta, patioan

gure aurretik igarotzerakoan, bidea utzi, goiza edo arratsa zan *buenos días* edo *buenas noches* esanaz. Beti on egiten duenari, nork artu bear zioz gorrotoa?

Batek berrogei bat urte izango zizkin. Besteak, ogei ta bosten bat. Baña ez itun beti berak etortzen. Txanda egiten ziteken. Auek txuriz jantziak zebiltzaken, uxoen antzera alegia.

Laxter azalduko itun beltzez jantziak ere beleak: Iruña'ko bi apaiz gazte. Auen etorrera etzin jendeak, mojatxoena bezin zoramenez, artu. Auek ere, jakiña, gotzai jaunak bialtzen zitunak. Baña ez itun San Kristobal'en geratzen. Arratsero Iruña'ra jetxi.

Igandero ta jaiero, gu patioan txutik jarrita, batek meza ematen zin; besteak, berriz, itzalditxo bat egin. Baña eguneko ebanjelioa bakarra; politikarik ukuitu gabe, bere esanaia agertu.

Lenengoan etzizkiteken ondo artu. Aldarean azaldu ziranean, alako *run-run* bat nabaitu nin. Baña, azkenerako, mezarengatik ajola aundirik ez bazitzaien ere, itzalditxoa poz'k entzuten ziteken.

Etzegok zalantzik, eskubitarrak izango zirala. Bestela, etzieken sartzen utziko. Baña benetako apaizak itun. Nik etzeukat ezertxo ere aien aurka esatekorik. Ezta besteak ere. Edozeñekin izketan jarduten ziranak; eta, al bazuten, lagundu.

Mojatxoak beren gaixotegian sartzen itun, eta ez genizkin apaizak bezela ikusten. Auek

denean zeukateken beren zer egiña, ta zuzen-gabekeri asko ikusi ta salatu gañera. Bein baño geiagotan, zaitzalleekin eztabaida gogor-rak edukitzen zizkiteken, presoen eskubideak zainduz.

— Apaiz auek etzeudek beren lekuan! Di-joaztela elizara! —zioteken zaitzalleak.

Egunak, asteak, illabeteak baziaziken; baña gu betiko lekuan, «*alerta el uno, alerta el dos*» arratsero lelo bera entzuten.

Noiznai bagenin fazisten baten itzaldia.

Zaitzalle buru-aundi batek, goizean egu-rastera irtetzean, irakurtzen zigukuen egunero-ko batetik gudaren martxa. Bagenekiken Ka-taluña erori zala ta Madrid'eri erasotzera zi-joaztela. Guda galdua geneukala ere, zer esa-nik ez. Ondoren, Franco'k nai zuena egingo bazuen ere, etzin guda arek irabazi. Alema-nak irabazi ziteken. Bestela, aspaldi artan az-tuak zeudeken Franco ta bereak.

Illunabar batean, apaiz aietakoak esanta ikasi genin, Itali'ko irratiak guda bukatu zala aizatu zuela. Martxoaren ogei ta amaika uan.

Urrengo goizean, *diana floreada* jo zigute-ken, goizean jaikitzeke.

— Atzo apaizak esana egia izango dek: guda bukatu dala. Bazeukagu pixka bateko itzala, bitartean uste gabekoren bat ez bada gertatzen.

Goibel-goibel garbiketak egin ta gosaldü ondoren, patiora deitu giñuzteken. Denak ba-tera oraingoan, len txandaka ertetzen giña-nak. Goiko balkoi aldera begiratu genin, eta

an zegoken zuzendaria: gizon moztaka bat. Baña gaixtoen gaixtoenetakoa. Bera gorri izana len. Orain, berriz, beltza. Oiek dituk, noski, kalterik geiena egindakoak. Egunerokoa eskuan zeukaken. Bere aldamenean, bi apaizak. Baita bi mojatxcak ere.

— Oiek ezer egitekorik bai ote dakarte orrera? Gure bizkar par egiteko asmoan ote datoz?

Iñork etzin, aiek an ikustea ontzat artu.

Arro-arro irakurri zin, nola guda bukatu zan, baña Franco'ren garaipenarekin.

Apaizak eta mojak txaloka asi itun. An geunden lau milla ta preso geiagok, ez genin txalo-ots aundirik atera.

— *¿No aplaudis?* —oiu egin ziguken beltzak.

Gu, ixil-ixilik, lurrera begira.

— Nai badezute ta ez badezute, il arte etzerate gure uztarripetik ertengo.

Martxa reala, *Cara al sol*. Oriamendi ta *El Legionario* kantatu erazi zizkiguken, besoak gora jasoz. Baña lautatik batek etzin kantatzen.

Ondoren, lepoko zañak eten-zori, iru oiu:

— *¡Franco! ¡Franco! ¡Franco!*

Orri, oraindik, gutxiagok erantzun zioten.

Bukaerako, berriz:

— *¡Arriba España!*

Eskerrak apaiz ta mojak an zeuden. Bestela, bageneukaken pixka bateko txutik egon bearra.

— *¡Rompan filas!* —esan ziguken. Baña ez oso biotzetik.

Dena galdu genin, bai, ta joan itun gure itxaropenak.

España guziko endak batera biltzeko, Kataluña aldetik ere ekarri zizkiteken batzuk. Baña gutxi. Madrid aldetik geiago etorri itun. Baña auek, berekin batera ekarri ziguteken, España'ko espetxe guzietan nazkagarria izango zan eguneroko zikin bat. *Redención* jarri zioteken izena. Presoak berak idazten ziteken.

Pérez del Pulgar jesuita batek jarritako oso lege errukitsua: urte beteko lanak bi urteko baja egiten ziguken, eta Franco'k ontzat artu omen zuela lege ori. Beraz, osasun ona geneukala, amabost urteren buruan ertengo giñun.

Garai artan bertan ekartzen zizkiguteken mando-baba aundi oietakoak, xomorroz be-teak, eta jendeak amaika oiuegiten zin:

— *¡Redención y habas!*

Bein lege ori jarri zutenean, gure apaizak asi itun fitxeroak egiten, lanera lenbailen eramateko asmoan alegia.

Neretzat pozgarria uan. Naiago nin, zigorpean igaro bear nitun urteak lanean pasa. Gure buruak mantentzeko aña egingo al genin. Gure lanaren bizkar batzuk aberastuko itun. Baña San Kristobal'en usteltzen egoteko gogorik ez neukaken nik.

Oso gogoz ekin zioteken lanari; ta, illabete baño len, dena martxan zegoken.

Iñoizka ikusten genizkin, orma-gain aietan, gizon aberats eta gizon tratalari oietan.

koak, goitik bean gabiltzanei begira. Zer moduzkoak ote geunden ikustera etorriak, noski. Igesa aurretik baño itxura ohea geneukaken, zikiñak eta gaizki jantziak bagenbiltzan ere.

Aspaldiko apaiz euskaldun bat banin oso ezaguna; eta, bixitara etorri zan batean, ala esan zidaken, bere umore onean:

— Zuen askatasuna edo ez, erabakitzen asiak dituk.

Eta irudi au esan zidaken:

— Gure Franco'k bi txakur zeuzkak bere zaitzalle. Biak, guda irabazten asko lagundu diotenak. Bere katearekin lepotik lotuak zebiltzik: Eliza ta aberatsak. Elizak asko lagundu diola, etzeukagu ukatzerik. Onek orain sari txiki bat eskatzen dik: preso guzientzat askatasuna. Aberatsak, berriz, diru asko txautu dutela guda irabazten eta baituak nai dizkitetek esku-lan merkea, galdu dutena irabazteko. Bi txakurrak, Franco'ren eder egiñaz, or zebiltzak bere inguruan. Nork irabaziko ote du?

Kapelu aundiak, beñepin, asiak itun espetxeetara beren bixitak egiten, nongoak, urteak eta abar ikasi nairik.

Gure askatasuna, bada, gizon-iltzalle baten eskuetan zegoken. Zer aldarte izaten zuen, aterako giñun. Bestela, lotuko giñuzken aberatsen langille bezela, berak egindako ondamenak konpontzeko.

Bein guda bukatu zanean, San Kristobal zirkotzat artu ziteken.

Noiznai emen itun agure zaarrak falanjejantzian, patioan gabiltzala gu beren argazkie-

tan goiko orma-gañetik arrapatuz. Gero ura billobentzat gordeko ziteken. Baña billobak ez ote ziran gero aitonak baño aurreratuagoak izango? Auek arro astaputz batuzk besterik ez itun. Berak gure bizkar par egitera etortzen baziran ere, guk egiten genin par aien kontura.

Bañan baitun min geiago egiten zizkiguten ikertxoak. «Zorigaiztoko ostegunak!» amaika aldiz esanak giñun. Ez, Iruña'ko neskak bixitara etortzen ziralako. Aiek beti poza ta itxaropena ekartzen ziteken. Baña militarren batzuk baitun, auek izützera bidera ertenak, ta bakarren batzuk atzeratu-erazi ere bai. Askotan bakarka ibiltzen baiziran.

Baña laxter ikasi ziteken, batasunak sortzen duela indarra; ta sallean asi itun etortzen. Sar adi ogei edo ogei ta amar nesken tartean, aiei galerazi nairik. Laxter urratuko ziteken. An ere, bada, galerazi nai zutenak etsi ta asarre erretiratu itun.

Gu naigabetzen giñuzten oiek, ostegun-arratsaldero, egun ona bazan beñepin, beren maisuekin etortzen ziran eskol-umeak itun.

Bolara batean goitik guri begira egon ondoren, lekaimeak baziran irakasleak, gu nor giñan ta zer asmotan ibilli giñan esango zieten. Dena gezurra ta saltsa, umetxoen biotz erru gabeak iruzurtu. Gero, abian, besoak jasoz, *Cara al sol* kantatuko ziteken. Eta, gu suminduak utzita, etxera.

Mojak joan orduko, prallegaiak. Auek ere berdin-berdin egingo ziteken. Gu deabruzat

geundeken umetxo aien biotzetan, ori erakutsiko zieteken.

Neskatxa bakar bati erantzun genizkioken errukizko itzak:

— *Estos pobres hombres ¿qué mal han hecho?*

Beste gañerakoan, iseka ta parra.

Igesaren ondoren San Kristobal'era ekarri zuten batek, ala esan zidaken. Etzekit egia edo gezurra dan. Presoak lotuta San Kristobal'era ekartzeko zai zeudela, seme txiki batek esan omen zioken berè amari:

— Ama, zergatik daude auek lotuta?

— San Kristobal'dik igesi egindakoak dira oiek.

— Nola? Nik ez diet ikusten oiei ez adar ta ez isatsik.

Amak, erantzun ordez, par egin omen zin.

Ez niñuke batere arrituko nola ez dan egia izango ori, eta gu deabruzat ez ote giñuzten Iruña'ko aurrak.

Gure bizitza triste ta goibela zieken. Urrun zebiltzan anai guziak etorri itun etxera. Baita *batallón de trabajadores*'etan zebillena ere. Etxean ez uan, bada, langille-paltik; eta, guri laguntzeko ere, aukera ohea. Baña gu, itzalean eta itxaropenik gabe. Iñondik ez uan argirik azaltzen. Lanerako deirik ere ez. Ertengo giñan berririk, amnistiaren konturik ere, etzeturreken. Etsitzen asiak giñun. Dana geldi-geldirik zegoken, tarteka-tarteka oraindik ekartzen ari baziran ere.

Etorri uan Jesusen Biotzaren eguna. Aldez



aurretik esan ziguteken gotzai jaunak ikertxo bat egingo zigula. Baña, Iruña zaarrea ere, Jesusen Biotzaren ibildeuna egiteko moldaketak asiak izan bear ziteken.

Etzekit ibildeuna esan edo militarren agerpena. Berdin aiek jabetuko zirala etzegoken zalantzik. Ainbeste eriotz ekarri erazi zutenak, lagunduko zioteken, lagun urkoak salbatzarren bere odola ixuri zuenari. Etziteken, ez, ixpillu ontara asko begiratzen.

Beñepin, Iruña'ko arrokeriak utzita, arratsaldean gotzai jauna San Kristobal'era igo zitzaiguen, denak aztu ta utziak geunden preso gizarajo auei poz pixar bat emateko asmoan. Arentzat oraindik gizonak giñun.

Patioan oitura bezela genbiltzaken batzuk, eta *a formar* jo ziguteken, denak kanpora deituz, itzaldi sonatuetan bezela.

— Orain ere badiagu itzaldi aberkoiren bat —zioken jendeak.

Alako batean, aurrez-aurre, balkoian, gotzai jauna azaldu zitzaiguen. Bere ondoan, zaindari bat, apaiz ta mojak, eta beste apaizgaien batzuk.

Ura jendearen run-run!

— *¿A qué viene ése: a remachar nuestra desgracia?* —batek.

— *Ese viene a mofarse de nuestra impotencia* —besteak.

— Ez, gizona, ez. Ikusiko dek, berri onen bat nola ekarriko digun. Jakin baño len, gizonak ez dik ortara ari bear.

Oso itzaldi motxa egin ziguen. Ibildeune-

ra joan bear baizuen. Bere arratsalde onak opa ondoren, ala esan ziguen:

— Geronekoan emen izan nintzan. Bañan ez neukan zuei itzegiteko biotzik. Abereak bezela pillatuak baizaudete. Baña gaur badet zuentzat berri on bat, berri zoragarri bat: uste dezuten baño askoz lenago joango zerate etxera, urteetan zuen zai dauzkazuten mai-teen artera.

Gudaren bukaerak etzin gure artean txalorik jaso. Oraingo itz ale aukeratuak genituenan, bat bezela denok eraso genioken. Txaloak bukatu ziranean, berriro lengoa bera esan ziguen:

— Bai. Badakit zer esaten detan: zuek uste baño askoz lenago aterako zeratela.

Ta bereala joan uan, bai-baizekin Iruña'n zai zeuzkala.

Gaizki esaka ari ziran aietako asko malakoak zerizkiotela ikusirik, bati ala galdetu nioken:

— Gotzai jaunak etziguk nolanaiko iseka egin.

— *No; no es verdad eso* —erantzun zidaken—. Norbait ari dek guregatik ere lanean. Itz gutxi, baña guretzat bai atsegiñak.

Arratsalde artan bertan, anaiaren bixita izan genin. Esan genioken gotzai jaunak zer esan zigun.

Baietz. Berak ere kanpotik entzun zuela. Baña Iruña'n etzirala denak konten.

— Oiek maite baditu, dijoala beren artera!

—omen zioteken, ibildeunerako zai zeuden militar batzuk.

Itxura asko, baña maitasun gutxi.

Andik laxter asi uan Europa'ko guda odoltsu ura. Arek atzeratu omen zin zerbait gure erteera.

Presorik atera ez ta sartu, asi itun espetxe berriak irikitzen; eta San Kristobal'en ere bai aldaketak.

Ogei bat inguru atera zizkiteken emendik Galizi'ra, Madrid aldetik beste mordoskaren bat onera ekartzeko. Ori dek aurrerapena: zenbat eta urrutirago bat eraman bere maitteengandik, ura ta naiago.

Eraman zituztenen artean zegoken Joxe Mari Korta, azpeitiar aundi ura. Benetan nai-gabe eman zin arek. Emen denak maite genin; ez euskaldunak bakarrak, baita beste gañera ko geienak ere.

Alare, naigaberik aundiena berak eraman ziteken. Emen ondo etzeudela, eroak ere bazekik. Baña au ezagutua ziteken, eta azken urte artan aldaketa aundia egin zin San Kristobal'ek jateko kontu ortan. Orain, berriz, etzekiteken nora eramango zituzten, eta eza-gutzen etzuten lekura.

Aiek, beñepin, goiz batean, agur egiñaz, aldegin ziteken emendik.

Denok, aske atera ta gero, gure etxean elkarrekin bazkaldu genin, garai bateko kontuak aizatuz. Aspaldi joan uan gure artetik.

Urrengo deia, berriz, gurea izan uan. Etzekit zenbat joan giñan; baña berrogeiren bat

bai. Gure ordeko, Jainkoak zekik nungoak ekarriko zituzten.

Laxter amnistia zettorrela ta zertarako al-daketa aukeratu? Ez dek ulert-errexera. Baña gal-deiok katu amari, ea zertarako dabilzkin bere umeak ara ta onera.

Alare, itxura ona artu nioken nik oni. Gu baño iru urtez beranduago etorriak baitun, ta orregatik zebiltzala zaarrak leku batean biltzen eta berriak bereixten.

Oraindik, beñepin, gotzai jaunaren itzak durundan zebiltzaken nere belarrietan: arek etzula gezurrik esan, gu poztutzeagatik; ziur jakiñaren gañean itzegin zigula. Alare zortzi bat illabete baituan, au gertaturik. Luzatzen, baña bazirudiken moldaketan ari zirala.

## ORDUÑA

Lau urteren buruan, lagunak agurtuz, arzulo ura ere berdin, gure trasteak pardel banatan bildu ta erden giñun kanpora, zeru-sapaia besterik ikusten ez gendun lekutik. Ia aztu zitzaiguen mundua nolakoa zan.

Zubi ondora erden giñanean, ura uan ikusgarria! Beeko sakonean zegoken Iruña xaarra, guda irabazi zuelako arro, baña gu bezin menperatua. Ase-aldi ederra artu ziteken gure begiak, lau orma zaarren erdian beti bat eta berdin ikusten oituak.

Baña laxter azaldu itun txapel okerrak, ez geiegi pozteko, ez ginjoazela aske adieraztera, beren pusillak bizkarrean, ta gure eskumuturretako antxilla eskuan.

Zubiz kanpora atera-alean, kamioietara igotzen giñun, zaarrak aske ta gazte sasoikoak lotuta. Etzeukateken bista txarra. Euskaldun bat bakarrik etziteken aske utzi, gazte ta sasoikoenak, izan ere, gu giñun-ta.

Kamioi zaar aietan exerita, bereala igaro giñun Iruña'ra, ia lau urte lenago larri asko igo giñan aldapak beera. Naparrak *segunda revuelta* deitzen ziotena igarotzerakoan, nere biotzean ixilleko oroitzapen bat izan nin, an pusillatu omen zituzten bi milla ta geiagorentzat. Erru gabeko gizarajo aiek, Jainkoak ar ditzala bere atsedenean.

Geltokian, oitura bezela, ordu erdiren bat igaro genin trenaren zai. Jende asko zegoken. Aiek ere, gu bezela, noiz etorriko pazientzi osoan itxogiten. Ortxe, ogei minuturen atzerapenarekin, etorri uan ketan, arnaska ta karrankaka, alde guzietatik ziztuka ta ur jario.

Gure guardiazibillak, berriz, elkarrekin eztabaidaka ari itun. Kapitanak, furgoi itxietan nai zin; besteak, berriz, jendeketako bagoietan. Azkenean, kapitanak berea egin zin. Furgoi itxietara sartu giñuzteken, lanparoi zositako idi zaarrak bezela.

Bi leio txiki alde batera, burni-sarez itxiak. Bestera, ate aundi bat sarrerarako. Aulki edo kaja batzuk bazeuzkaken barruan; baña ez bear ainbeste. Zaarrenak an exeritun; eta gu, bide santu guzian, lotuak eta txutik joan giñun.

Onuzkero Madrid'eraño iritxiak izango giñalakoan, arrituak benetan geratu giñun geltoki batean. Oraindik Gasteiz'en geundenen. Lendik ezaguna bainuen geltoki ura.

Emen eman ziguteken bazkaria: opil koxkor baten erdian, urdai-azpiko xerrenda bana. Ura txutik jan ta aurrera.

Miranda alderaño iritxi giñanean, denbora puska bat igaro genin zai. Aldaketak egiten aritu omen zirala. Ondoren, aldapa gora artu genin berriro. An bertako burnibideetan lan egiten zutenak baitun gurekin, eta Bizkai aldera ginjoazela esan ziguketen.

Ez uan guretzat, batez ere euskaldunontzat, oso berri txarra: ez giñala, alegia, etxetik askoz urrutiago geratuko.

Neketan zieken trena. Baña noizbait azaldu uan uri koxkor bat beeko sakonean. Zekitenak, Orduña omen zala esan ziguteken. Oraindik beste kilometro batzuk igaroko zizkin, eta gure trena aldapan geratu uan, Orduña baño gorago, baña ango geltokian.

— Orduña'ra ote goaz? —genioken elkarri—. Emen bai aldeak, ordea, espetxerik?

— Ik bai al dakik, txoriak non ipiñiko duen kabia? —galdetu zioteken.

— Ez. Ikusi arte ez beñepin.

— Auekin ere berdin-berdin gertatzen dek. Presoak gañezka zeuzkatek, eta etxe uts bat aski ditek an espetxea jartzeko. San Kristobal'ko muturrean jartzen duenak, non ez dik ipiñiko?

Jesuitena izandako kolejio aundiren bat bazala esan ziguteken, eta ara joango giñala noski.

Gu, beñepin, an jetxi eta gure esku lotuakin aldapa beera joan giñun, gure pardelak ezin eramanik. Erriaren erdi-erdian zegoken kolejio aundi ori. An ikasi omen zutela Jose Antonio Agirre ta gañerakoak. Atez aurrera

sartzerakoan, askatu zizkiguteken gure esku-muturrak, eta beste batzuk egin itun gure jabe. Orra ostatu berria.

Leporaño betea zegoken. Euskaldun gutxi. Zeudenak ere, zigor gutxikoak; eta asko, beñepin, zuri xamarrak. Katalan-mordoxka bat bazegoken. Gallegoak ere bai. Auek, espetxerik geienetan billatzen genizkin. Baña andaluz ta extremeño, eunetik larogei. Lekutara ekarri zizkiteken.

An etzegoken iñon lekurik. Guk ere nonbait sartu bearko genin, bada. Liburutegia izan zala edo ez, eskallera-buru batean kokatu giñun. Ez geneukaken an ia, etzateko lekurik. Oñak luzatu ezkeru, zintzillik geratzen zitzaizkiguken. Ortan ez genin aldaketarekin asko irabazi.<sup>1</sup>

Gure beste lagun euskaldunak suerte ohea izan ziteken. Ango euskaldun aundizki aiek egin itun jabe, eta jan-lekua izan zan leku argi ta txukun batera eraman zizkiteken.

Oraindik ez dit egundo nere burua utziago ta galduago arkitu. San Kristobal konbentu bat uan. Orduña'koaren ondoan. Ia dena gazte jendea eta andaluza. Kanean dabilzan txakurrak baño lotsa gutxiagokoak. Zaar batzuk baitun; baña gutxi. Aien izkuntza! Aien bizi-modua! Nik, ordura arte, ez nekiken mundua alakoa zanik.

Barrunbe guzi artan, txingurri-pillan bezela bizi giñun. An baitun areto luzeak. Bi aldeetan jartzen itun lotarako. Erdian, metro erdiren bat. Askoz geiago ez uan geratuko.



Urrutitik komonera etorri bear zutenak zeuzkateken ixtilluak. Ots geiegirik ateratzen bazuten, edo lo zegonen bati oñak zapaldu, gorrinak entzungo zizkin. Espartzin-erasoren bat artu ere bai.

Berandu xamar iritxi giñun ta ez genin ezer ikusterik izan. Bere garaian pasa ziguteken apartaia: azpilla txar bat bete, arroz egosi txuri-txuria, koipe-izpirik gabea. Orduña'n egon giñan denboran, otordurik geienak alakoak izango itun. Ez dit esango gutxi ematen zigutenik; baña kemenik gabea. Jan ta iru ordu baño len, uretan ziaziken aren indarrak.

Bi kontratista zudeken gure mantenurako. Auek irabazi bearko ziteken. Zuzendariak etzin aukera ori galduko. Orduña'n ere, presoak itun galtzen zutenak. Beste guziak, irabazian.

Gaua erdi txintxilik igaroagatik, or nonbait lo egin genin. Ez uan ain arrats txarra izan.

Garbiketarako, denetan bezela, eziña. Asko giñun ta leku gutxi. Beti zaitzalle batekan egon bearra, zer gerta ere.

Gosal ondoan, bada, erten giñun egurastera. Baneukaken zer moduzko inguruak zeuzkan ikusteko gogoia. Zearo ase nizkin begiak. Emen mundua ere ikusten genin; ez zerua bakarra. Orduña bera ta bere inguruko mendiak. Mendiz inguratua zegok Orduña. Baña ez txorakerizkoak.

Etxe bikañak bazeuzkan ere, martxa gutxikoa iruditu zitzaidaken. Nekazaritza ere

ez geiegi. Artzairen batzuk inguruko mendietan.

Baña guretzat, orduan, zoragarria. Bi pillota-plaza ere bazizkin. San Kristobal'en lau urte igaro zitun bati, nola bururatu bear zitzaiokeen au?

Emen ere, oraindik karraio zebiltzaken; eta etxeak goiko mandioan zeuzkan gela txiki aiek denak, kentzen ari itun, zetozenentzat leku egiteko. Laxter aukeratu gaitziken, sari gabeko langille bezela, ango ondakiñak kanpora ateratzeko.

Goian ura palta bazan, bean ere etzegoken, bada, aukera geiegirik. Patioan bazeudeken ur-aska batzuk. Baña ainbestentzat gutxi. Erropa garbitu nai ta oraindik San Kristobal'en baño okerrago ibiltzen giñun. Jende geiago ta leku gutxiago. An ere laxter asi itun asareak eta mutur-jokak. Iru edo lau egunetan laxterka joanak baitun, ta garbitu gabe geratuak. Olakoetan, gizon otxanari ere, pazientzia galdu egiten zaiok.

Euskalerrian bizi bagiñan ere, an andaluz giroa zegoken. Gu pelotan ikusita, arriturik egoten itun, zer joko zan ura, bola txiki bati joka. Batek ala esan zidaken neri:

— Zer joko dezute zuek ori? Ez diot ezeren grazirik arrapatzen.

— Berdin-berdin gertatzen zaidak neri torerotzarekin ere. Animali gizarajo bat txikitu arte, ari sastaka ala ibiltzeko, zer egin zioke arek iñori?

— Adiskide, oso bestelakoa dek ori. Gizo-

nak animalirik gaixtoena menderatzea dek ori  
—erantzun zidaken.

— Bai. Baña angoa ez danarentzat, nazka-  
garria.

Alare, asko itun aietan, pelotaren berri ze-  
kitenak; eta polliki jokatzen zutenak ere bai.

San Kristobal baño zikiñagoa uan au, nos-  
ki. Zorria kintalka, etxe ta kanpo. Orman zi-  
potz bat sartu ta an aritzen itun, larrugorri-  
rik jarrita, olloak eguzkitan bezela, arratsalde  
santu guzian zorriketan. Ni ere leporaño bete  
niñun. Baña, guk lo egiten gendun lekuan,  
denak berdintsu bizi giñun, eta ez uan iñor  
arritzen. Etzeukaken iñork iñori kargu artze-  
ko arrazoirik.

Etorri ziranean, aiton batzuk ezagutu niz-  
kin. An aritzen itun kantari. Oraindik egural-  
di epelak egiten baizitun. Baña, bein otzak asi  
ziranean, neguan txantxangorria bezela puz-  
tu ta geienak Orduña'ko kanposantuan utzi  
zizkiteken.

Goizean eguzkia ikusten bazuten, arin-  
arin jantziak aterako itun. Baña, goibeltzen  
bazuen, apaiza ibildeunera bezela, manta  
aundi bat burutik beera arrastaka zutela.

Batek ala esan zidaken:

— *Aquí reina invierno perpetuo.*

— Gizona, oraindik ez dek negua sartu  
—erantzun nioken.

— Atera al dek, sartzeko? —erantzun zida-  
ken.

Auek, beñepin, leku epelekoak, negu go-

rria igaro ziteken. Gaizki jan ta gaizki jantziak, ez uan batere arritzekoa.

Illabeteak baziaziken polliki-polliki, gu Andaluzia'n bizi giñala. Beeko jan-lekuan bizi ziran aundizkiak ez baziran oroitzen, guk an bizi bearko genin zorrien janari.

Baña uste gabeko batek erakutsi zieken Andaluzia'n euskaldunak bizi zirala. Burnizko bola bat bauan. Ordurarte, txapeldun gernikar gazte bat zegoken. Baña bizkaitar baserritar asko aritzen itun arekin jolasean. Alako batean, nere anaia joan uan, zer ari ziran ikustera. Artan Errenderi'ko markik onenak autsia uan anai ori; ta, txanda utzi ziotenean, bota zin. Bai baserritarrak ondo begiratu ere.

— Onek emengo marka guziak autsi dizkik.

Deitu ziteken gernikarra. Arekin ere garai atera uan.

Aundizki aiek ikasi zutenean, naigabez geratu itun, euskalduna etzan bat garaille atera zalakoan. Baserritar aiei galdetu zieten:

— Nor dek ori: katalana edo andaluza?

— Zer katalan ta andaluz! Erderaz ez dakin giputxa dek eta!

Poztu itun, ori entzun zutenean. Pelotan ere euskaldunak baizeuden gallen. Bereala billatu gaitziken. Baita beren artera eraman ere. Oraindik geiago: nork erropa garbitua ere berak billatu ziguteken.

Orduantxe bukatu itun gure arrapazkak eta arropa garbitu eziñak. Baita zorriak ere. Amaika odol edan zidateken zikin oiek lau

bat illabetean. Andik aurrera, larunbatero erropa zikiña eraman, ta garbia ondo plantxatu ta usai gozotua. Askotan, zaarra txarra bazan, berria berenetik jartzen ziguteken.

Guri lagundu zigun aietako bat, Karmen Ibañez uan; arakiña. Etzizkiguken berak garbitzen; baña bai berak ordaindu. Ordurako urteetan aurreratua xamarra. Noski, onuzkerro illa izango dek. Jainkoak ordainduko al zioken guri egiña, berdin guk ez diagu ordaintzerik izan-ta.

Garizuma etorri uan, eta etzekit noren asmoa izango zan. Noski, bikario jaunarena. Oso gizon jatorra; baña etzin asmatu. Mixioak eman zizkiguteken espetxean. Sinismen geiago etzegon lekuan, eta mixeri gorrian zegon jendeari, mixioak ekarri?

Etorri ziranean, ateetan artu genizkin, len errietan egiten zan bezela: gurutzea aurretik, ondoren mixiolariak, gero gu batzuk, sinismenez, euskaldun asko bezela. Besteak, berriz:

— *¡Vaya trágala!*

Batzuk, illez ta bizarrez josiak, erdi larru gorririk, oñetakorik gabe, errenka-errenka, baldea ta erropak eskuan zituztela. Atzetik, berriz, deabruak, zein joaten zan eta nor ez ikusteko.

Jesus Judea aldean ibiltzen zaneke oroitzapenak zetozkidaken, errukiz «*Miserereor super turbam*» zionetakoak. Arek, ordea, gaixoak sendatu egiten zizkin. Auek ez.

Aste osoa itzaldia ta itzaldia igaro genin. Eliza beti betea, jakiña. An baizebiltzan dea-

bruak nor joaten zan eta nor ez ikusten. Aiek kontentu zeudeken. Zenbat eta geiago joan, orduan ta uzta ohea aientzat.

Larunbatean, amar-amabi apaiz etorri itun. Denentzat aña lan bauan. Urrengo goizean, mezetan, erabat Jauna artzera. Konten geratu itun gure apaizak:

— Ori dek uzta, jaso deguna! —zioteken.

Bat oso nere ezaguna uan, mixioak ematen aritu zana: azkoitiarra, Migel Goikoetxea. Oraindik biziko dek, noski. Il danik ez dit entzun. Ala esan nioken:

— Egundoko uztak jaso dituzute orduan?

— Bai. Ez genin ametsik egiten ere.

— Euneko amarrek egin ditek or ondo, geieneko jota ere. Oiek, emengo euskaldunak. Deabruen beldurrak joan dituk bestiak.

— Deabruak? Non zeudeken deabruak?

— Ez al dituk ikusten, pistola ta porra gerrian dauzkaten oiek? Oiek jaso ditek uzta; ez zuek. Emen, lenengo, gorputzari begiratu bear zaiok, ikusten danari alegia, ikusten ez dana salbatuko bada.

Nere aldamenean, bi Badajoz'ko neuzkaken; bat adiñekoa. Oso gizon jatorrak itun. Baña eskola zer zan ere etzekiten oietakoak. Ango nekazariak. Amaika lan egin zuela esaten zin batek: *encorvaico y sudoroso*; eta dena besterentzat. Bere erritarrak asko maite ziteken au. Sasi-mediku oietakoa uan. Eskumuturreko zain bat zapalduz sendatzen zizkin anjinak.

Auek, gizarajoak, ez itun asko jaten oituak

egongo. Baña, Orduña'n, ematen zuten utsarekin zeudeken. Guk, berriz, dirua artzen genin; paketeak ere bai. Jai-goizetan-edo, ontza bana txokolate emateko oitura genin. Baña, lenengo eskeñi nienean, biak, eroak bezela, parrari eman zioteken. Nik, arrituta:

— Baña zeri egiten diozute parra?

— *Es que en mi pueblo sólo las preñaas toman chocolate* —esan zidateken parrez.

Aien ateraldia entzunda, nik ere lasai egin nin parra. Aiek oraindik olaxe bizi itun.

Emen ere etzekit ez ote zebillen Ondarre-ta'ko martxa. Ekarri ta eramán ari baiziran; eta ofizinetan zegon donostiar luze batek, bera ere presoa, arek zeramaken ango sarreraterreen gora-beera. Esan zidanez, ateratzen zituzten geienak iltzera eramaten zituztela. Aurrean ibillitako jendea uan geiena; ta, Euskadi'n bezela, an ere beren garbitasuna egin naiko ziteken.

Balarik gabe ere, ez uan eriotzik palta. Udaberrira sartu bagiñan ere, neguko otzak larri-larri utzitakoak, banaka-banaka baziaziken ankaz aurrera.

Espetxeko erteeran *Requiem aeternam* kantatuz eramango ziteken askatasunera. Leioetatik begira egoten itun etxekoandre asko oien agurrari, otoitzean noski. Xaarra ere asko ekarri baizuten, emengo otzak berea-la bota zizkin.

Gallego batzuk ere baitun. Bat bauan, *más largo que la cuaresma* esaten zioteken batzuk. Baña bizkar makur ta itxusia gogotik.

Zerbait erostera goazela, biok izketan asi giñun, eta laxter aske aterako zan itxaropenak zeuzkaken.

Ertetzen zanean zer egin bear zuen galde-tu nioken. Ala erantzun zidaken:

— Ezer ez. Auen mendean etzegok ezer egiterik.

— Eta, besteak aginduko balute, zer egingo uke?

— Zer egingo nuken? Nere jolasik gozoe-na, aizkora 'aundi batekin enbor baten gañean apaizen lepoa moztea izango uke-erantzun zidaken.

Nerekiko ala nioken:

— Itxusia ezik, eroa ere ez aiz txikia i.

Olako gutxi itun tartean. Baña baitun ortara pentsatzen zuten batzuk.

Iilabeteak polliki-polliki baziaziken. Kanpoan zebillen Europa'ko gudaren berri ikasten genin iñoiz. Alemana, Prantzi'ko lanak eginta, Ingalterra gerorako utziz, beste aldera joana uan. Bai Churchill'ek esan ere:

— Molda gaitzen, beste bi edo iru urtetarako guda bazeukagu-ta. Baña eman ziogu bukaerari asiera.

Beraz, onen iritzian, alemanaren arroke-riak beste urte batzutan irauten bazuen ere, seguru bezela jotzen zin, guda berak irabaziko zutela. Asko poztu zin emengo jendea:

— *Y con ellos irá Franco.*

Baña, zoritxarrez, ura asmatu bazuten ere, onena etziteken asmatu.

Erriko bikarioarekin -apaiz jator bat-



itzegiten genin. Gotzai jaunak zer itxaropen eman zigun esaten genionean, ala erantzuten ziguken:

— Lan oiek ez dituk egun batetik bestera egiten. Baña, bein asten diranean, bereala er-tengo zerate, aspaldian espetxean zaudetenak. Badakizute zenbat milla egongo zeraten? Oiek denak banaka-banaka aztertu bearko dizkitek, expetxeratuak itxu-itxuan atera gabe. Auek maltzurregiak dituk ortarako.

Orduña'n *Itxarkundia* batalloia egon uan; errenderiar asko zan batalloia. Ia mal-koak erortzen zitzaizkioken, garai aiek gogor-  
ratuz:

— Aiek eliz-funtzioak egiten zizkiguten! Abeslari bikañak baitun sail artan. Gero, bat bakarrik utsegin gabe, Jauna artzera. Aiek joan ziranean, beltzak sartu itun, ta ez eliz ta ez funtzio. Biraoa galanki.

Noizbaiten buruan, orratik, asi itun aska-tasunak. Maiatzaren azken aldera zala uste dit. Gallegoa, bakar soil bat, atera uan lenen-go. Askatasunak atsegin eman bazion ere, etzin gizarajoak poz aundirik eraman. Nora joan etzekila baitzebillen.

— Nora joango nauk? —zioken—. Emaztea bi aurrekin utzita sartu niñun; geroztik beste bi jaio dituk.

Ura triste joan bazan ere, guri poza eman ziguken. Bikario jaunak ziona egia bazan, lax-ter jarraituko zioteken berriak. Ala gertatu ere.

San Kristobal'dik gurekin etorritako bi er-

ten itun, euskaldun garbiak, gatzagatarrak. Aiei Gasteiz'en egin ziteken *consejo de guerra*; ta guri, Donostia'n. Baña egun gutxiren barruko gora-beera izango uan. Gotzai jaunaren esanak asi itun betetzen.

Baña bai bikario jaunarenak ere: lanak etzirala bat-batean egingo; banaka-banaka baizik aztertuko zutela kaso bakoitza; ta ortarra urtebete joango zala.

Ori dena gogoan geneukaken. Alare, aien erteera guretzat ere ziurtasuna uan: laxter etorriko zala gurea ere.

Igandean, bikario jauna etorri zanean, esan genioken bi gatzagatar nola erten ziran, eta ala erantzun ziguken:

— Zuena ere ez dago urruti.

Ta ondoren:

— San Pedrotan izango da zuena.

Illabete inguru palta baizan.

— Badakizute ura dala zeruetako atezaia, ta zergatik ez mundu ontakoa ere?

Gu, beñepin, ametsetan asiak giñun: Orduña'tik gu izango giñala urrengoak.

San Pedro eguna ere etorri uan. Apaiz txiki batek eman ziguken meza. Baña bukatu baño lentxeago azaldu uan bikario jauna, ta itzegin genin. Abian, ala esan ziguken parrez-parrez:

— Emen al zagozte oraindik zuek?

— Bai, jauna, bai. Orra San Pedro eguna ere etorri. Baña agian beranduegi etxeratuko zan, ta oraindik lotan egongo da.

— Eguna iritxi dala, egia; baña ez da oraindik pasa —esan ta joan uan.

Egoartea igaro ta etorri uan bazkal-ordua ere. Lerroan jarri giñun, gure azpilla xaarra eskuan, arroz txuria artzeko. Aspaldian ez genin besterik jaten. Nere aspilla luzatzera noa-la, ofizinetan lan egiten zuen donostiar luze ura jetxi uan, bazkaria ematen ari ziran lekura:

— Ea, mutillak, aske zagozte! —oiu egin ziguken euskera garbian.

Guk itxaropena bageneukaken. Baña ain zoragarria uan askatasuna, etzaiguken egundo iritxiko zanik iruditzen; eta, beste norbaitentzat izango zalakoan, guk ez genin aintzakoatzat artu.

Berriro oiu egin ziguken:

— Esan ez dizutet aske zagoztela? Zertarako artu bear dezute bazkari zikin ori?

Nik, ezin sinisturik, ondora etorri baizan:

— Bai; baña aske, nor?

— Zuek! Zapirain anai oik! —erantzun zidaken.

— Eskerrik asko, gutzaz oroitu zeralako ere —erantzun nioken.

Ura txuxenean bere lanera joan uan. Gu, gauza ziran traste pixarrak artu ta lagunak agurtuz, erten giñun espetxe txiki batetik aundiagora.

Erteeran, aurrera begiratu nin, ta ez uan txapel oker oietakorik ageri. Gure eskumuturak, joan-etorri guzietan katez lotuta eramán

genituenak, aske zeudeken. Orduantxe sinistu nin, egia izango zala.

Erten giñun; baña andik etxera etortzeko moduak nola egin? San Pedro eguna uan; larunbata. Gure militarrek jai ziteken, eta aien agiririk gabe etortzerik ez. Treneko txartela ere, aiek eman bear ziguteken. Gu orduan diruz urri genbiltzaken; ango berri ez jakinki, berriz.

Bikario jauna oartu zanean, guri laguntzen ziguten emakumeen bitartez egin zizkin lan oiek denak. Baña, egun artan, etortzeko trenik ez.

Geltokian igaro genin gaua. Apari ta gosaria, dena, gure ongilleen bizkar geratu uan.

Goizean, trenaren zai geundela, inguru artako artzai bat zegoken geltokian; ta, euskeraz nabaitu giñunean, ala esan zigukene, gure par-delak ere ikusten baizituen aldamenean:

— Egingo nitek apustu, zuek abertzaleak zeratela —esan zigukene.

— Bai. Orregatik pasa ditugu bost urte espetxean.

— Zuek eta gu —bera karlista baizan— beste katolikorik etzegok España'n. Orain agintzen dauden auek, denak gorriak dituk.



— Eskerrik asko, motell. Garai onean oroitu aiz. Il da gero, ollo-salda bero —nioken nerekiko.

Igandea uan. Andik Bilbo'ra iritxi ta an meza entzun ondoren, etorri giñun txuxenean bost urtez lenago erten giñan etxera.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK (101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapiirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.

140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6). (*Aitua*).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea.
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsotan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberi'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsotan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsokaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsotan (I).
181. *Ataño*: Zigorpean.



AUSPOA  
LIBURUTEGIA